

IÑAKI ALDEKOA

**68ko Belaunaldia.
Politika, kultura eta
beste mamu batzuk**



*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso du*

© Iñaki Aldekoa Beitia

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2015eko azaroa

ISBN: 978-84-944061-3-3

Lege-gordailua: SS-1172-2015

Irudiko azala: Raphaële Connesson

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

BANATZAILEAK:

BITARTE – 31195 BERRIOZAR (NAFARROA).

TEL.: 948-302239

JAKIN – 64100 BAIONA (LAPURDI)

TEL.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

IÑAKI ALDEKOA

**68ko Belaunaldia.
Politika, kultura eta
beste mamu batzuk**

Utriusque Vasconiae

AURKIBIDEA

Sarrera	9
I. 1960ko hamarkadako hori- zonte berriak: politika, erli- jioa, kultura	17
II. Trantsizioko urteak	59
III. Modernitatea eta Postmo- dernitatea	149

Maixabeli

SARRERA

Zoriontsuak izan ziren 1960ko hamarkadako urteak. Publizitate-eslogan itxura duen esaldi hori ez da, seguruenik, guztiz hutsala. Bigarren Mundu Gerraren amaieratik aurrera, hazkunde ekonomikoak ez zuen etenik izan 60ko hamarkadaren amaiera arte. Gurasoek ez bezalako bizitza-maila izan zuten, 1968ko maiatzean, Berlin, Erroma eta Parisko kaleak hartu zituzten gazte eta ikasle unibertsitarioek. Paradoxikoki, ongizate-estatua-
ren aurka manifestatu ziren Europako hiriburu nagusietan. Baina 1970eko hamarraldiko krisi ekonomikoak erabat aldatu zuen aurreko hamarkadako optimismo-giroa, eta 80ko hamarralditik aurrera gizarte postindustrialaren beste estadio batean sartu zen mendebaldeko kapitalismoa. Nahiz eta 60ko hamarraldiko ikasle-mugimenduak espiritu antiautoritarioa izan zuen oinarrian, Atlantikoaren alde bietan, ez zituzten arrazoi berberak izan batzuek eta besteek errebeldiarako eta borrokarako. Adibidez, Fredric Jameson kritikari marxista amerikarraren iritzira, 60ko espiritua 1963an jarri zen abian Beatles taldearekin eta Vietnam-

go gerrarekin, eta 1973-1975 bitartean amaitu zen kolpean, Vietnamgo gerra bukatzearekin eta petrolioaren krisiarekin batera. Baiki, Martin Luther Kingek “amets bat izan zuen” 1963an, eta 1968ko apirilean hil zuten tiroka, Berkeleyko eta Chicagoko ikasleek Vietnamgo gerraren kontra protestatzen zuten bitartean. Philip Larkin poeta ingelesaren irudiko, sexu-harremanen eklosio soziala 1963an hasi zen, *Lady Chatterleyren maitalea* eleberritari zentsura-debekua kendu ziotenean eta The Beatles talde mitikoak lehenengo LPa edo disko luzea argitaratzearekin batera. Espainia, artean Frankismopean bizi baitzen, oso urrun zegoen Europako kulturatik eta bizitza-mailatik, eta berandu, baldar eta nekez (intelektualki, kulturalki eta politikoki) iritsi zen modernitatera.

Gerraosteko lehen bi hamarkadekin alderatuz gero, 60koa dinamikoa eta bizia izan zen, bai eta gatazkatsua ere. Aurrera egin ahala indarra hartuz doan olatu baten moduan irudika daitezke urte haiek. Gizartea, kultura, politika, ekonomia eta erlijioa, esparru guztiak, busti zituen olatu hark: Kuba, Aljeria, Vietnam, Che Guevara, The Beatles, Bob Dylan, Janis Joplin, Jimi Hendrix, Jacques Brel, Georges Brassens, antikolonialismoa, antiautoritarismoa, existentzialismoa, Martin Luther King... Askatasun erlijiosoa, politikoa eta sexuala. Iraultza eta marxismoa. «68ko maiatza» eta unibertsitarioen protestak hasi Paristik eta Kaliforniaraino. Era berean, 1965ean, frankismopean, itzal

handiko zenbait irakasle kanporatu zituzten (Tierno Galván, José Luis López Aranguren, Agustín García Calvo...) Madrilgo unibertsitatetik, eta hainbat ikasle, irakasle, artista eta intelektual (Salvador Espriu, Carlos Barral, Antonio Tapiés, José Agustín Goytisolo, Manuel Sacristán...) gotortu ziren Bartzelonako Sarriako kaputxinoetan.

Gurean, ETA, Oteiza, Arantzazu, Aresti, Jarrai, GAUR, Ez dok Amairu, apaizen sekularizazioa, euskara batua edo Burgosko epaiketak izan ziren, hirurogeiko hamarkadan, lekuko eta protagonista nagusietako batzuk. Kanpoan eta hemen, hirurogeiko belaunaldia dinamikoa eta gaztea izan zen, konformagaitza, errebeldea eta utopikoa. Eta «statu quo» aldatzearen aldekoa, antikonformista, antikapitalista eta antikolonialista. Askatasun politikoaren, moralaren eta sexualaren aldarrikapena izango litzateke 60ko belaunaldia definitzen duen ikurra.

Utopia-urteak izan ziren haiek, eta Europa osoan entzun zen gazteen aldarrikapen askatzailea. Ulergarria da 60ko hamarkadan gizarteko protagonista sentitu ziren *gazte* haiek urte ederrenak balira bezala oroitzea sasoi hartakoak, helduarotik begiratuta, nostalgiaren igurtziak ere berebiziko eragina izaten baitu. Ederrak izan ziren, inondik ere, 60ko hamarkadako urteak, batez ere oraingo helduak gazte zirelako orduan. Esan beharra dago, hala ere, gartzetasuna bera izan zela 60ko hamarkadaren asmaziorik iraunkorrena, bizitzako aldi soil

bat izatetik harago, bizitzaren dimentsio berria zabaldu baitzen, kualitatiboki definitu beharko litzatekeena. Eta egiatan halaxe ikusi zuen 1968ko belaunaldiak bere burua, gazte eta berri.

1968ko udazkenean, Sobietar Batasuneko tankeak Pragan sartu zirenerako, Europa mendebaldeko gaztediak bazekien Breznev zaharrak eta mendebaldeko alderdi komunistek (PCF, PCI) ez zutela ulertzen haien utopiaren dimentsioa. Hirugarren Munduan zituzten begiak jarrita, eta Mao Zedong, Fidel Castro, Che Guevara, Ho Chi Minh (Txina, Kuba, Hegoamerika, Vietnam) ziren ikono berriak, eta hara bilduta zituzten itxaropen askatzaileak, harik eta, 1970eko hamarkadan, banan-banan denek huts egin zuten arte. Ameriketako Estatu Batuetan, ikasle matxinatuak hegoaldeko arraza gutxiengo bati ukatzen zitzaizkion eskubide zibilen alde borrokatzen ziren. Eta, gainera, Vietnamgo gerraren aurka zeuden. *Beatnik*, *hippy* eta gisa hartako mugimendu libertarioek eta kontrakulturalek ardaztu zuten Estatu Batuetan kontsumoko gizarte-sistemaren aurkako oposizioa. Herbert Marcuseren *The new left* edo ezker berria agertu zen. Ezker zaharretik bereizi nahi izan zuen ezker agertu berriak, haien ustearen kontra, guztiz sinetsita baitzeuden proletarioa ez zela klase iraultzailea izango jada. Ordurako bazekien Marcusek langileria sisteman integratuta zegoela. Marxismo ortodoxoak ez zuen garai berrietarako balio. Hala ere, Daniel Cohn-Bendit-en liburuko

izenburuak zioen moduan, “hainbeste maite zuten iraultza” asmatu beharra zegoen han edo hemen, *hic et nunc*.

Antiautoritarioa izan zen batez ere gazteen mugimendua, eta Estatuko erakunde zurrun eta burokratikoak ziren mugimendu haren errebeldiaren xede, familiarik hasi eta unibertsitateraino, irakasleak eta alderdi politiko zaharrak ahaztu gabe. Hala ere, azken buruan, gurasoen autoritatea izan zen errotik desafiatu zena, haien sinesmenak, balioak eta bizi-ohiturak.

Gaur egungo talaiatik begiratuta, zaharkituta geratu zaizkigu erabat orduko eztabaidagaiak: Francoren diktadura eta hura hil ondoren abiatu zen Trantsizioa (1975-1982); “erreforma” ote zen bidea edota “haustura iraultzailea”; bataren eta bestearen arrazoi politikoak eta ideologikoak... XXI. mendean bizi garenontzat hain urrun gertzen zaizkigu marxismoaren, sozialdemokraziaren eta errebisionismoaren aldeko eta kontrako arrazoiak nola, XVI. mendean, teologoek izaten zituzten eztabaida eskolastikoak. Baina, hala ere, gaur-gaurko arazo politikoak, sozialak eta filosofikoak izaten jarraitzen dute, zahar-igurtzia gainetik astindu ezin badute ere. Horra hor gaiarekin tematzeko arrazoia.

Historialariaren lana ez da soilik gertatu zena jasotzea, hura bere testuinguru historikoan interpretatzea eta epaitzea ere bada. Fikzioaren helburua, berriz, Historiaren hutsuneak betetzea da,

memoriaren hutsarteak osatzea, sentimendua, arnasa eta berotasun humanoa erantsiz guztiari. Gure artean, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995) eleberria izan da Trantsizio deritzogun aldi historikoa bikainen fikzionatu duena. Eleberri horrek osatu eta erantsi egiten dio kontakizun historikoari hark isilean gordetzen duena: gizakien sentimendu eta pentsamendu sakonenak. Historialaria alderdi objektibotik saiatzen da gertaerak kontatzen eta interpretatzen; idazleak, berriz, alderdi subjektiboari begiratzen dio, gizakiek (protagonistek) nola bizi izan zuten garai hura, memento hura.

1960ko hamarkadan abian jarri zen bilakaera kulturalak errotik eraldatu zituen ordura arte Modernitatearen ezaugarri izan ziren kondizio eta oinarri asko, eta, arian-arian, bestelako panorama hasi zen bistaritzen 1980tik aurrera. Postmodernitate izenarekin bataiatu zen garai kultural berria, nahiz eta guk “Globalizazio” terminoa hobetsiko dugun hemen. Gaztetasunaren eta “pop musikaren” arteko lotura ia automatiko bihurtu zen 1960ko hamarraldian; baina, kulturaren aurpegi berria agertzearekin batera, dimentsio komertzial garbia ere bazuen mugimendu hark. Mendebalde garatuan kokatuz beti ere, Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978) lanaz baliatuko naiz, 80ko hamarkadatik aurrera (gurean 90ekotik aurrera), Globalizazioak, bizimoduan, kontsumoan eta kulturaren, ekarri zuen imaginario berria (artean ez oso

kontzientea) ilustratzeko; edo, beste modu batera esanda, kapitalismoaren kultura-sistemak orduko modernitatea nola eraldatu zuen (mezua itxuraldatuz) aztertuko dut, *Etiopia* liburuaren bitartez. Harrezkero mamu bat dabil arte garaikidearen barruan¹, eta ez da Marxek bere *Manifestu komunistan* (“mamu bat dabil Europan barrena”) askatu zuena baino apalagoa.

1. Erlea aldizkariak argitaratu zuen bosgarren zenbakian “Mamu bat dabil arte garaikidean barrena” ataleko bertsio bat.

I

1960KO HAMARKADAKO HORIZONTE

BERRIAK: POLITIKA, ERLIJIOA, KULTURA

Hirurogeiko hamarkadak urte mugarri asko izan zituen bere ibilbidean. Baina lehen-lehena 1959. urtea da. Urte hartan, bi gertaera zedarri ditugu: ETAren sorrera, batetik, eta Aita Donostiaren omenez Agiña gainean eraikitako monumentuaren inaugurazioa, bestetik. Politikoa bata, kulturala bestea. Biak ala biak eraberritze zabal, eragingarri eta oparo baten sorburu; biak belaunaldi berri baten abiapuntu: protagonismo politikoa eta kulturala bere gain hartuko duen “Gaztedi berriaren” une historikoa. Une historiko horrek, baina, ezinbesteko baldintza zuen komentu eta elizbarrutietako gaztediaren sekularizazioa. Eta prozesu hori Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren gertatu zen. Fronte politikoaren, erlijiosoaren eta kulturalaren arteko harremanak zabalak izan ziren 60ko hamarraldian. Goazen, bada, harreman horien urratsak modu pausatuagoan aztertzeraz.

ETAren sorrera eta ibilbidea

Gerraosteko euskal gizartea

Jende asko erbesteratu zen gerraren ondorioz. Errepublikari babes eman zioten erakundeek eta indarrek erbesterako bidea hartu zuten, edo desagertu egin ziren bestela. Eta bide beretik desegin zen nazionalismoaren arrimura, Errepublikako urteetan, eraikitako euskal kultura ere. Irabazleek ezarritako errepresioak eta zentsura gogorrak espetxera, erbestera, bihozgabetzera eta isiltasunera kondenatu zituzten bizirik irten ziren kultur eragile urriak. Gerraostean euskara debekupean jarri zen eta euskal kulturak inoiz jasandako egoerarik larriena bizi izan zuen garai hartan. Karlista eta frankista askoren mintzaira ere bazen arren, euskara galtzaileen hizkuntza izatera pasatu zen, EAJ izan baitzen (gerraren galtzaileetako bat) euskal kulturaren sostengu nagusi, gerra aurreko urteetan.

Horrekin batera, aipatu beharrekoa da, 50eko hamarraldiaren azken urteetatik aurrera, Euskal Herriak bizi izan zuen hazkunde industrialak erakarri zuen immigrazio-uholdea. Egoera berriak berekin zekartzan tentsio politikoak eta sozialak izugarri azeleratu ziren hirurogeiko hamarkadan. Etorकिन etorrerari gizarteko aginte-postuetako funtzionario elitea (maisua, maistrak, epaileak, poli-ziak, militarrek, administrariak, eta beste) eransten bazaio, areagotu egiten da komunitate autoktonoaren babes ezaren sentipena. XIX. mendearen

amaieran eta XX.eko hasieran, nazionalismoaren sorrerako testuingurua ekartzen zuen gogora Euskal Herriak –50eko hamarkadaren hondar-urteetan eta 60ko hastapenekoetan– bizi izan zuen egoerak. Berritu egin zen beste behin “gurea badoa” agoniko hura; jada 1867an, Elisée Reclus frantses ikertzaileak “Revue des Deux Mondes” aldizkarian euskaldunoi buruz zioen hura: “Les Basques. Un peuple qui s’en va”. Euskararik gabe, herririk ez. Eta, gerra aurrean, kulturaren eragile eta babesle izan zen nazionalismoaren adorea makalduta, ahituta eta zahartuta ageri zen. 1960an hil zen Jose Antonio Agirre, Euskal Gobernuko lehen lehendakaria. Erbestean hil zen, eta harekin joan zen EAJk zuen aktiborik prestigiotsuen eta errespetatuena. Testuinguru horretantxe sortu zen ETA, ordura arte nazionalismo tradizionalak (EAJk) izan zuen protagonismoa bereganatzeko prest. ETA bihurtu zen, 60ko hamarraldian, nazionalismo eraberri tuaren ikur. 1959an sortu zen, eta handik aurrera –1968. urtera bitartean eta ondorenean– gazte/zahar dinamikak katalizatu zuen aldarrikapen soziala eta nazionala. 1968ko odol-bataioarekin (Pardines, Etxebarrieta, Manzanas) dimentsio berri eta lausoa hartu zuen dinamikak.

ETAren aktibismoa

1952an, gazte unibertsitario batzuek EKIN izeneko barne-buletin klandestinoa sortu zuten.

Gazte unibertsitario haien artean zeuden, besteak beste, Julen Madariaga, Benito del Valle eta Jose Luis Alvarez Enparantza (Txillardegi). Zazpi urte geroago, 1959an, ETA sortu zen, EGIko (Euzko Gaztedi) militante ugari erakarri ondoren. Txillardegik erabakitzen zituen hizkuntza esparruko auziak, eta bera izan zen erakunde berriari ETA izena jarri ziona (1960an *Enbata* kultur erakundea sortu zen Iparraldean). 1962an egin zuen ETAk lehenengo biltzarra, Beloken. Biltzar hura nazionalismo historikoaren eta nazionalismo berriaren arteko inflexio-gune bihurtu zen. EAJren motel-tasunaren eta antzutasunaren aurrean, aktibismoaren eta “Estatu zapaltzailearekiko” haustura erabatekoaren alde agertu zen ETA. Frankismoari aurre egiteko, baliabide militarrik erabiltzeari ere ez zion uko egin. 1961eko uztailaren 18an (Francoren altxamendu militarren 25. urtemugan), Eibartik Donostiara erreketez beteta zetorren tren errailetatik aterarazi zuen ETAk.

Gerra Zibila atzean geratua zen ordurako, eta beste hainbeste gertatzen zen, belaunaldi berriarentzat, nazionalismo tradizionalaren balio kristauekin. Meza santuarekin eta fede zahar mi-lurtekoarekin ez ziren mugiarazten frankismopeko ur geldoak. ETArekin zer bait hasi zen higitzen. Erakundearen hastapeneko helburuen artean ez bazeuden ere, gero eta indar handiagoa hartzen ari ziren gatazka sozialak eta langileriaren borrokak, eta, egin ziren aurreneko greben aurrean, ETAk ere posizio bat hartu behar izan zuen. ETAREN bigarren

biltzarra 1963an egin zen. Ordurako, askapen nazionalaren aurretik, langileriaren borroka eta mugimendu soziala lehenesten zituen barne-korrante indartsua ari zen sendotzen ETAREN baitan. Hala, “Langileen Batzordeak” (“Comisiones Obreras”) erakundeak sortu zen, lehendabizi Bizkaian, eta gero Gipuzkoan (Zumarragan, 1966), eta hurrengo urteetan, 1967tik aurrera, protagonismo nagusia izan zuen langileriaren borrokan. Euskadi gizarte industrializatua zen, eta langile mugimenduak gero eta indartsuagoak ziren, ezinbestean. Hirurogeiko hamarraldian aurrera egin ahala, hainbat langile-erakunde sortu ziren: “Juventudes Obreras Católicas” (JOC), “Hermandad Obrera de Acción Católica” (HOAC), Herri-Gaztedi eta ELA-STV edo FLPko “Euskal Sozialisten Batasuna”-ESBAS, besteak beste; ideologikoki katolizismotik sozialismo kristauraino hedatzen zen erakunde-sorta hori guztia. Hala ere, “Comisiones Obreras” erakundeak gailendu zen beste guztien gainetik herri populatuaren eta industrializatuenetan. Alderdi Komunista zegoen haren atzean. 1963an, Julián Grimau fusilatu zuten, PCEko batzordekidea.

Handik aurrera, ETAk bizi izan zituen krisialdi teoriko eta zatiketa guztien oinarrian oreka falta egon zen nazio arazoaren eta borroka sozialaren artean; zein borroka-frontetan jartzen zen lehentasuna zen auzia, fronte nazionallean edo sozialean (langile-klasearen alde: sozialismoa, marxismo-leninismoa, maoismoa, troskismoa). Zaila zen orekari eustea, ETAREN ibilbideak erakutsi zuen moduan:

V. biltzarra (1966-1967) > ETA Berria (1967) (“likidazionista”); VI. biltzarra (1969) > “zelula gorriak”. Hala ere, 60ko hamarkadan bereizketa guztiak ez ziren gertatu arazo sozialari protagonismo gehiago eman zitzaiolako. V. biltzarraren ondoren –askapen nazionala marxismoaren borrokan urtu nahi zutenak kanporatu eta gero–, ETAREN sortzaileetako batzuek ere utzi egin zuten erakundea. Izan ere V. biltzarretik aurrera, Federico Krutwigen eta Etxebarrieta anaien (Jose Antonio eta Txabi) eraginez, marxismo-leninismora lerratu zen ETAREN ideologia. Txillardegi, Benito del Valle, Jose Manuel Agirre eta Xabier Imaz, aldiz, gertuago zebiltzan sozialismo humanista batetik. 1970eko bereizketa aipagarrienak abertzaleen barruan gertatu ziren, eta, dimentsio estatalistarik ez zuten arren, funtsean operatibitate-gorabeherak hartara beharturik edo borroka armatuaren eta borroka sozialaren arteko oreka faltak eraginda gauzatu ziren: ETA militarra (1974) eta ETA politiko-militarra; Laia 1974an sortu zen, eta handik gutxira Laia-Bai/Laia-Ez (1976) bereizketa etorri zen. ETA politiko-militarraren barruan, “Komando Bereziak” talde operatiboak protagonismoa hartu zuen 1976an. “Komando Bereziak” ETA politiko-militarraren diziplina abandonatu eta ETA militarrean integratu ziren 1977an. 1975ko abenduan KAS sortu zen, ezker abertzaleko erakunde guztien bilgune gisa. Jokaleku horretan, nazionalismo historikoa (EAJ) nazionalismo burgesarekin identifikatzen da, eta ETA nazionalismo iraultzaileare-

kin, nahiz eta marxismo ortodoxo baten ikuspegi-
tik burgesia txikiaren interesak defenditzen zituen.

Auzi horretan Federico Krutwigen *Vasconia. Estudio dialéctico de una Nacionalidad* liburuak (Buenos Aires, 1963) eskaini zion ETArri ataka larri hartatik irteteko bide-orria: berreskurapenaren izenean eta, beraz, ezkerreko balioen bermeaz, hizkuntza bihurtu zen nazioaren giltzarri. Ez pentsa, ordea, ETAk hasieratik bere egin zuenik Krutwigen liburua, egileak berak aitortzen duen moduan *Años de peregrinación y lucha* (2014) liburuan; Fraga Iribarnek eman zion ospea liburuari. Baiki, orduko Francoren gobernuan “Propaganda eta Turismoko” ministro izan zenak *El Español* aldizkarian idatzi zuen, ETArri eskainitako monografiko batean, zer piztia klase ziren ETakoak; eta horretarako *Vasconia* liburutik hartutako aipamenez bete zuen artikulua Fragak. Handik aurrera *Vasconia* ETaren ibilbidean integratu zen (Biarritzen idatzia izan zen, Fernando Sarrailh de Ihartza ezezinez sinatua, eta Buenos Airesen argitaratu balitz bezala kaleratua, egilearen arrastoak ezkutatzeko). Inoiz ez ziren izan, ez liburua, ez mezua, Txillardegiren gustukoak. Hala ere, onartu behar da ordura arte ETArren baitan nagusi zen Txillardegiren ikuspegi etnolinguista indartzera zetorrela Krutwigen ekarpena, nazionalismo berriaren dimentsio kulturala eta etnozentrikoa sendotzera, alegia. Horrekin batera, hirugarren munduko koloniek metropoliaren aurka hartutako estrategia iraultzailea ekarriko du Euskal Herrira, Euskadi Frantziako eta Espainiako in-

perioek kolonizatutako lurraldetzat hartuz. Aurreantzean antikolonialisten estrategia iraultzailea ETArena ere bihurtu zen. Julen Madariagaren hitzetan: Federico Krutwigen *Vasconiak* “guretako zenbait errebelazio zekarren. ETAREN bizkarrezur ideologikoa osatzen lagundu zuen” (*Egiari zor*, 2014). Hala, ETA V. asanbladaren garaian, nazionalismo berriaren teoriaren asmatzaile bihurtu zen Krutwig, eta identitate berria eman zion, aldi berean. Ordukoa da Franz Fanonen *Les damnés de la terre* (1961) liburua, zapaltzailearen aurka biolentzia armatua erabiltzea zilegitzat hartzen zuena eta garai hartan eragin handia izan zuena. Aljeria (FLN), Kuba, Indotxina eta Israelgo borroka kolonialak izan zituen eredu, batez ere, Israelgo “borroka armatua”, berak aitortu zuen bezala. Menahem Beginen *The revolt* liburua erreferente bat izan zela dio *Años de peregrinación y lucha* liburuan. Krutwigen hezurdura ideologikoak (etnikoa eta antikolonialista) 1970eko hamarkadaren hasierako urteak arte iraun zuen, handik aurrera Burgosko presoek markatutako ildo marxista-leninista klasikoa nagusitu zen eta.

Frankismoak “25 Años de Paz” aldarria lau haizetara ospatzen zuen bitartean (1964), Hegoaldeko lehen Aberri Eguna egin zen Gernikan; lehen Aberri Eguna 1963an ospatu zen Itsasun, Enbatak antolatuta. Urte berean (1963), jalgi zen Madariagaren lumatik “La insurrección de los vascos”, Krutwigen ideietan inspiratuta zegoen benetakako gerrilla-eskuliburua. Eta urte berean eman zen

argitara 1960. hamarraldiko ETArek dokumentu-rik inportanteenetako bat, edo inportanteena, izan zena: “Carta a los intelectuales”, Jose Luis Zalbide *Zumbeltz*-ek idatzia. 1965ean atxilotu zuten arte, ETArek estrategiarik inportanteena izan zen Zalbide.

Jorge Oteizaren “Quousque Tandem...!” liburua izan zen 60ko hamarraldiko argitalpenik garrantzitsuen eta eragingarriena, kultur eragile gisa. Baina Oteizaren nortasun profetikoaren ospeak –ospatuagoa, irakurria baino– ez zuen ukitu gabe utzi bere inguruan mugitzen zen ezer. Bera araduratu zen ETArek “Zutik!” aldizkariaren 45. alearen azalaz. Nazionalismoaren eta marxismoaren arteko lehia ez zen arazoa Oteizarentzat, sine-tsita baitzegoen herri zanpatuaren sendabidea artearen eta kulturaren eskuetan zegoela. “Atzera begira, aurrera eginez, arraunlariak bezala” lelopean, bertsolarien eta tradizioaren irudikapen moderno eta iraultzailea ekarri zuen Oteizak. Arrazoimena-
ren dialektikaren gainetik, estetika sendabidea eskaini zigun, bai eta halako harrotasun sentimendu bat ere, uste guztien gainetik, Neolito aroko euskal harrespilaren irakurketatik abangoardian egona zen herriarenganako. Oteizaren mezua herrigintza nazionalistaren aldeko aldarri ozen eta prometeikoa izan zen, eta ETA V.ak gogo onez hartu zuen bere “Fronte kulturalen”.

Txabi Etxebarrietak izan zuen harremanik Oteizarekin, eta Arantzazuko apostoluen frisoko *Pietatea* obrak (1969) Txabi Etxebarrietaren herio-

tzagatik negarrez ari zen Euskadi sinbolizatzen zuela esan zuen egileak berak: “Jasokundearen Ama Birjina-edo nahi zuten, eta nik semea hil dioten ama jarri nuen, Txabi Etxebarrieta laguna hil zidatelako”. (Gertaera historikoen gurgpilean, zentzu sinboliko berria beretu zuen Arantzazuk).

Txabi Etxebarrieta izan zen Guardia Zibilak tiroketa batean hil zuen ETAko lehen ekintzailea (eta burua). Tolosako Bentaundin hil zuten, 1968ko ekainaren 7an. Ordu batzuk lehenago, José Pardines Guardia Zibila hil zuen berak, Zizurkilen. Iñaki Sarasketa izan zen, Benta Haundin ihes egin eta Errezilen preso erori ondoren, heriotza-zigorra ezarri zioten lehen ETAkidea. Profetikoak gertatu ziren Txabi Etxebarrietak berak 1968an esandako hitzak: “1968. urtea hilik gabe bukatzea zaila izango zaigula, ez da inorentzat sekretua”. 1968ko abuztuaren 2an, ETAk Melitón Manzanás hil zuen. Urte haiek zeharo aldatu zuten ordura arteko dinamika. 1968. urtea mugarria gertatu zen, aurreko aldia eta ondorengo bereizi baitzituen. Orduan abian jarritako “ekintza-errepresioa-ekintza” espiralak ez zuen etenik izan 1975era arte, Franco hil zen urtera arte, alegia. ETAren nortasuna aktibismoa errenditzen zen 1968ra arte; handik aurrera aktibismoa eta indarkeria (teoriaren aurretik praxia) bihurtu ziren ETAren nortasun agiriak. Melitón Manzanásen hilketaren ondoren, Estatuak “salbuespen-egoera” ezarri zuen Euskadin, eta ehunka herritar atxilotu zituzten diskriminaziorik gabe egindako sarekadetan. Frankismoaren kontrako

borrokaren erreferente nagusi bihurtua zen ordura-ko ETA, eta gero eta oniritzi handiagoa zuen herriar askoren artean. Burgosko Auziarekin (1970) nazioarte-mailako zabalkundea lortu zuen erakundeak. Heriotza-zigorra jaso zuten sei kondenatuei Melitón Manzanasen hilketarekin lotura izatea leporatu zieten, baina ez zeuden akusatuta zuzeneko hiltzaileak izateagatik, epaileek ez baitzuten jakin nor izan ziren ekintzaileak; polizia hiltzeko erabakia hartzeagatik eta ekintza bideratzeagatik jarri zieten heriotza-zigorra. 1973ko abenduaren 20an, Carrero Blanco almirantea, frankismoaren iraupena ziurtatu behar zuen militarra, hil zuen ETAk Madrilen. Orduan lortu zuen ETAk inoiz izan duen arrakastarik handiena. 1970ean, Burgosko Auziarekin nazioarte-mailako oihartzuna lortu zuen bezala, Carrero Blancoren magnizidioarekin antifrankista guztien aitormena irabazi zuen. Gero, “Rolando” kafetegiko sarraskia (1974) gertatu zen Madrilen, eta atentatu hark ETA militarren eta politiko-militarren arteko banaketa ekarri zuen. FRAP 1973an jaio zen. Franco azkenekotan zela, bi ETAkide (Jaun Paredes *Txiki* eta Angel Otaegi) eta FRAPeko hiru militante (José Humberto Bae- na, José Luis Sánchez eta Ramón García) fusilarazi zituen, 1975eko irailean.

60ko hamarkadaren azken hondarretan, amaitu zen Espainiaren irekitze-saioa. ETAREN atentatuen eraginez (eta Burgosko Auziaren ondoren) frankismoa bere baitara bildu zen ostera ere, eta Europara eta mendebaldeko kulturara irekitzeko

ahalegin herabeak hutsean geratu ziren. 70eko hamarkadan, gogortu egin zen errepresioa, eta dinamika dogmatikoa hartu zuten antifrankistek. Franco hil ostean, Juan Carlos I.a errege borboi-tarrak hartu zuen haren lekua. Francok berak izen-datu zuen bere oinordeko, 1969an, bera noizbait faltako zela aurreikusita. Franco 1975eko azaroa-ren 20an hil zen, eta, handik aurrera, Trantsizioa (1975-1982) izenez ezagutzen den aldian sartu ginen.

2. Milurteko fedearen gainbehera

Eliza Katolikoak bere *aggiornamento* bere-zia egin zuen Vatikanoko II. Kontzilioan (1962-1965), eta han egin ziren kritikek eta berrikuntzek husteko bidean jarri zituzten apaizgaitegiak, komentuak eta elizak. Vatikanoko II. Kontzilioaren bitartez eguneratu zuen katolizismoak mundu modernoarekin zuen harremana. Estatu frankista-ren eta Vatikanoren arteko konkordatuaren (1953) ondorioz, katolizismoaren balore eternalen defen-datzaile leial agertu zuen bere burua Espainiak. Hala, Vatikanoko II. Kontzilioa puri-purian zegoe-la, Bilboko apezpikuak (Gurpide) Unamunoren aurkako pastorala argitaratu zuen. Esan gabe doa, katolizismoaren barruan, Espainiakoa zela Elizarik atzerakoiena. (1964an, Txabi Etxebarrietak koor-dinatuta, Unamunori eskainitako monografikoa argitaratu zuen *Sarrico* aldizkariak (Sarricoko Eko-

nomiako ikasleen argitalpena). Baina, ez alferrik, gurean ere erlojuak orduan jartzea eskatzen zuten, eta premia hori larriagoa zen gizarte industrializatuetan, langileriaren aldeko borroka sindikalen eragina indartsua zen eskualdeetan. Gero eta gehiago ziren, Eliza ofizialaren aurka, gizartearekin “konprometitu” beharra sentitzen zuten apaizak. Katolizismo soziala eta “konpromiso” hitza modan jarri ziren. Apaizak ere marxismoaz hitz egiten hasi ziren (Paulo Iztueta, *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco (1940-1975)*, (1981). Komentu eta elizbarruti askotako hazkurri espirituala ez zen aurrerantzean Eliza Ofizialaren (frankistaren) doktrina izango, baizik eta marxismoaren eta nazionalismo iraultzailearen bideak jorratu zituen doktrina berria.

Jainkoaren eta Euskadiko langileriaren izenean (PTV: Pueblo Trabajador Vasco), apaiz kopuru handi bat Elizako hierarkiaren aurka (Gurpide eta Cirarda ziren apezpiku) altxatu zen 68an: abuztuan, Bilboko apezpikutza okupatu zuten, eta, azaroan, Derioko apaizgaitegia. Donostiako apaizgaitegia itxita zegoen ordurako (1965ean ikasturtea klausuratu eta 1967an itxi zuten), bertako apaizgai askok alde egin baitzuten, nazionalismo berriaren (ETA) esanetara jartzeko. 1969an bost apaiz epaitu zituzten Burgosen, hainbat elizgizonen atxiloketen aurka protesta egiteagatik. Horien artean ziren Xabier Amuriza eta Julen Kalzada.

Apaiz askok egin zuten fede/ideologia berriaren predikua, katolizismo sozialaren barrutik (He-

rri Gaztedi, JOC...) eta Kontzilioak eragindako espiritu berriaren ildoari jarraiki. Elizako erakunde sozialak berehala bihurtu ziren mugimendu marxisten babesleku, eta ETako eta ezker muturreko talde berriak (“sestakoak”) elikatzeko gune. 70eko hamarkadan, langile mugimenduaren eta unibertsitarioen eragin handia izan zuten talde haiek. Imanol eta Oskorriren sentsibiltate soziala mugimendu horien babesean sortu zen. (“Ez dok Amairu” taldeko kideen ideologia politikoa abertzalea zen, eta garaiko *eladioen* [ELA-BERRI] orbitan ibili zen). Bazihoan, beraz, gaztedia elizetatik, etorkizun premiatsuaren deia erantzunez. Katolizismo sozialaren bitartez, fede batetik besterako bidea egin zuen euskal gaztediak, eta Elizaren arrimura gertatu zen doktrina-transferentzia, fede zaharraren eta berrien artean. Ordukoak dira elizetara iritsi ziren “*ye-ye*” estiloko gitarra eta moderno-itxurak; baina ez ziren nahikoa izan jariora geldiarazteko, elizek husten jarraitu baitzuten. Elizaren irekitze eta berritze ahaleginak apalegiak gertatu ziren 68tik aurrera, izan ere, mundua irakiten zegoelarik, zer egiten zuen gaztediak elizetako bankuetan kantari? Gaztediari eusteko ahalegin guztiek huts egin zuten. Raimonen kantuak zioen moduan, “*Nosaltres no som d’eixe món*” (Ez gara mundu honetakoak).

60ko hamarraldiko urteen gurpilean, abiada bizian ari zen gaztedia aldatzen, ikuspegi zaharrak eguneratzen. Mundu tradizionalaren balio moralak bilakaera etengabea murgilduta zeuden, eta

bilakaera horrek aldiro interpelatzen zituen ordura arteko ikuspegi erlijiosoak, politikoak eta sozialak.

Hamar urte lehenago, 1951n, plazaratu zen Arantzazuko basilika berritzeko proiektua. Francisco Javier Sáenz de Oizak eta Luis Laorgak zuzendutako arkitektura-lanak burutuak ziren 1955erako; baina Oteizaren Apostoluak bide bazterrean geratu ziren, fatxadako frisora igotzeko debekua noiz kenduko. 60ko hamarraldiaren bilakaera horretantxe ulertu beharko litzateke Arantzazuko basilika berriaren afera erlijiosoa eta politikoa, hasierako debekutik Oteizaren Apostoluen frisoko *Pietatea* burutzeraino (1951-1969) Arantzazuk jasandako bilakaera sinbolikoa. Salvatore Mitxelenak bere *Arantzazu, euskal poema* (1949) argitaratu zuenean, Arantzazuk biltzen zuen sinbolismoa erlijiosoa zen. 1953an, Font i Andreu apezpikuak basilikako lanak gelditzeko agindu zuen, eteteko aldi batez. Bost egun lehenago, Espainiako Estatuak eta Vatikanok konkordatu sinatu zuten. Hilabete batzuk lehenago *Time* aldizkariak kritika gogorrak egin zituen Francoren erregimenaren aurka, apezpiku katoliken aldetik (Eliza ofiziale-tik) jasotzen zuen babesarengatik, eta gaineratzen zuen Arantzazu kulturaren, demokraziaren eta sentimendu nazionalisten gotorlekua zela. Artikulua amaitzen zen esanez, Arantzazuko santutegian frantziskotar bat geratzen zen bitartean, euskal kultura ez zela hilko (González de Durana, “Basílica de Aránzazu. Mito y secreto”, *El nacionalismo vasco: mitos, conmemoraciones y lugares de la memoria*,

2006). Bazen basilikako lanak bertan behera uzteko aginduaren arrazoia *Time* aldizkariko artikuluak sorraraz zezakeen aztoramenduan ikusi zuenik. Hala ere, ez dezagun ahaztu, beste leku askotan bezala, Franco paliopean hartu zutela Arantzazuko fraideek 1943an, eta santutegia euskal kulturaren Montserrat bilakatzeko prozesua luzea izan zela. Esate baterako, lehen urteetako (1956-60) *Jakin* aldizkaria bera ere ez zen 1960tik aurrera izango zena. Esan nahi dut Arantzazuko santutegia ez zela inoiz bloke konpaktua izan basilika berriaren arkitektura eta eskultura abangoardistari buruzko iritzian. Baina egia da gizartearen bilakaerak —arlotan politikoan, erlijiosoan eta sozialean— gaina hartu zuela santutegi barruko ika-mikei. Arantzazurekin hasi zen euskal artearen susperraldia; debekuz, zentsuraz eta eragozpenez betetako susperraldia izan zen, ordea: batetik, Oteizaren “apostoluak” errepide bazterrean utziak zeuden, eta bestetik, Basterretxearen kriptako freskoek zigorra jaso zuten (karez zuritu ziren 1954an), Adan eta Eba bizkarra biluzik ageri zirela aitzakia hartuta.

Oteizaren *Quousque tandem* liburuak jasotzen ditu Arantzazuko aferaren inguruko elkarrizketak eta gogoetak. Oihartzun dezentea izan zuen, orobat, Jose Arteche katoliko integristak, *La Voz de España* egunkarian, Arantzazuko lanak burutzearen alde argitaratutako artikulu andanak (“Apóstoles en la cuneta”, 1962).

1964an, apostoluak bere lekuan jartzea galarazten zuen beste debekua jaso ondoren, hona-

ko hau adierazi zuen Oteizak: “Dagokien lekuan ipinita ikusteak haien bakea aztora lezake, urteka zenbatzen duten bake hori, 25.a ospatzeraino” (Erregimen frankista ospatzen ari zen efemerideari buruz “25 Años de Paz. 1939-1964”). Adierazpen honetan ordu arteko diskurtso erlijiosoari dimentsio politikoa erantsi zion Oteizak: debekuaren atzean ez zegoen jada Eliza erreakzionarioa, baizik eta politikari erreakzionarioak. Egia esan, Eliza erreakzionarioa eta Estatu erreakzionarioa hezur eta mami ziren. Ez dago poetarik Oteizaren harriko isiltasun hutsari bertsorik eskaini ez zionik: Aresti (*Harri eta Herri*), Otero (“Palabra en piedra”), Iratzeder, Gandiaga, Lete... 1968an, eskulturak amaitzeko debekua erretiratzeko arrazoiak hauek izan ziren, Javier González de Duranaren ustetan (“Basílica de Aránzazu: mito y secreto”, 2006): Vatikanoko II. Kontzilioaren estilo berria, Ama Birjinaren V. mendeurrenaren ospakizunaren gertutasuna (1969) eta apaizgaien artean gertatzen ari zen sekularizazio masiboa. *Pietatea* 1969ko urriaren 21ean igo zen apostoluen frisor, baina ordurako eskulturak ez zuen irudikatzen Ama Birjina, oinetan zuen semeari negarrez, baizik eta Txabi Etxebarrietaren heriotza. Bilakaera sinbolikoa 60ko hamarraldian bizitako aldaketa sozio-politikoak eragina izan zen. Funtsean, sakralizazio-transferentzia bat gertatu zen, erlijio zaharraren eta nazionalismo berriaren artean.

Nazionalismo zaharra, EAJrena, atzean geratzen ari zen, ez soilik fede zaharrari zintzo jarrai-

tzen ziolako, baizik eta garai berriak eskatzen zuen balioen eraldaketa ere ezin zuelako bere egin. Nazionalismo zaharra uzkur agertu zen, erabat kontra ez zenean, garaiko mugimendu eta ahalegin kulturaren aurrean. ETaren protagonismoaren eraginez, fronte politikoan gaindituta zegoen nazionalismo tradizionala. Kulturaren esparrutik, berriz, EAJk ez zuen begi onez hartu *Ama Lur* filma (1968), Fernando Larruquerten eta Nestor Basterretxearen zuzendaritzapean egina. Euskara batuaren aurka ere agertu zen (Arantzazu, 1968).

Elbira Zipitriaren lan eskerga, isil eta goiztiarraren ondoren, bazen Gipuzkoan, 1950etik aurrera, euskara erdi ezkutuan irakasten zuen haurtzaindegirik eta ikastolarik. 1955erako abian zen, beraz, ikastolen mugimendua. Hala ere, 60ko hamarraldian hartu zuen abiadak eta bultzadak ekarri zuten ikastola gerora ezagutu zaion tamainara. 60ko hamarraldiaren hasierako hiru ikastoletatik 86 izatera pasatu ziren 1969an. Ikastolak indartzarekin batera, Rikardo Arregik euskalduntze-alfabetatze mugimendua abiarazi zuen 1967an. Honek guztiak hizkuntza estandar baten premia erakutsi zuen, irakaskuntzaren erronkari erantzuteko (ikastolen alfabetatze-programak, Unibertsitatea). Nazionalismo zaharra (EAJ) euskara batuaren aurka azaldu zen. Baina euskara batuak idazle eta kultur eragile gazteen babesa izan zuen. “Zeruko Argiak” bazuen “Gazte naiz” (1964) zeritzan atal bat, eta hura idazle berrien harrobi bihurtu zen: Ramon Saizarbitoria, Xabier Lete, Rikardo

Arregi, Ibon Sarasola. 1964ko idazleen belaunaldiaz hitz egin zen.

Txillardegiren eleberrietako existentzialismoak –*Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Peru Leartzako* (1961) eta *Elsa Scheelen* (1968)– ezinegona eta errebeldia transmititzen zuen, eta gaztediak gertu sentitzen zituen sentipenak.

Nazionalismo historikoak gerra aurreko mundu-ikuspegitik jarraitzen zuen arnasa hartzen, eta hori, hirurogeiko hamarraldia aurreratua zela, eragozpen bihurtu zen. Testuinguru horretan ulertu behar da Rikardo Arregiren aldarri ospetsua: “Euskaltzaleen jainkoa ill behar dugu” (1967).

3. Oteizaren *Quousque tandem...!* Eraginak

“Egun batez, Agiña gaineko harrespil xume horietako baten aurrean nengoela, hura ulertu nahian, nire espazio hustuan pentsatu nuen, eta bat-batean dena argitu zitzaidan; zirkulu huts haren esanahia ulertu nuen. Ez da erraza neurtzen nire orduko zirrara, hainbat mendez inork erabili gabeko estatua hura berriro erabili nuenean”.

“Para un entendimiento del espacio religioso” “El crómlech-estatua vasco y su revelación para el arte contemporáneo” (*El Bidasoa*, 1959ko ekainaren 28a). *Quousque tandem...!*, Donostia, Hordago, 1983.

Agiña gaineko memento epifaniko horretatik, hau da, harri megalitikoak espazio erlijioso gisa irudikatzen, sortu zen Aita Donostiaren omenez eraikitako kapera. Errebelazio horren ondorio da *Quousque tandem* liburuarren (1963) mezu profetikoa. Euskal antropologiaren sortzaileen (Telesforo Aranzadi, Joxemiel Barandiaran eta Julio Caro Baroja) eskolatik elikatuz hazkurri eraberritua, moderno eta adoretua eskaini zion Oteizak irakurleari. *Quousque tandem*-ek euskal kulturaren jatorriaren mitoa eraikitzen du. Oteizarentzat zinezko kultura tradizionala da, baina haren meritua da tradizio hura jantzi modernoenez apainduta arnasberritzea. Paradoxikoa ere gertatzen zen abangoardiako artista batek halako atxikimendua agertzea tradizioarekiko (nahiz eta abangoardiak beti izan ohi duen arte zahar eta marjinaletikiko begiramen berezia, Picasso bera adibide). Baina Oteizak egin zuen tradizioaren berreskurapenak, “izan ginenaren” eta mementoan “ginenaren” arteko lotura espirituala eraikitzen lagundu zuen. Esango du badela euskal estilo bat: “Baina euskal tradizioan bada estilo bat, osatzea lortu den arte batetik datorrena, eta egiten duen guztiak estilo pertsonal bat-berari erantzuten dio, gure barne-bizitzaren sekretua den euskal estiloari”. Eta esango du Europako arte prehistorikoaren amaiera neolitikoko euskal cromlechean gertatu zela. Eta hura izan zela gure egonezin existentzialistaren sendabidea; antzinako artzainen (artzain neolitikoen) lorpena izan zela hura. Bertsolaria dugu gaur egun

“estilo” hartatik gertuen legokeen euskalduna, eta bera genuke lehenaren eta orainaren arteko kate-begi eta bitartekaria (Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* liburuaren erabilera oparoa egin zuen, bertso gintza eta herri literaturaren gogoetagai bihurtuta). Bertsolaria da gure poeta, euskal arimaren estiloa galdu ez duen sortzailea. Pio Barojak ere euskal estiloa du, eta Basterretxeak eta Oteizak berak ere bai. Gure azaleko arima latino da, eta arima arrotz horrek gaina hartu dio arima jatorrenari. Nahiz eta euskal estiloa ez dagoen hizkuntzaren menpe, egia da “latinoak” konnotazio kristaua eta espainiarra ere baduela. Hala, Pio Barojaren *Jaun de Alzatek* irekita utzitako bideari ez zaio bizkarrik emango, ezta neopaganismoaren xarmari ere.

Quousque tandem lanaren azpigituluak hone-lambda dio: “Euskal arimaren interpretazio estetikoaren saiakera: haren jatorria harrespil neolitikoan eta haren berrezarpena arte garaikidearen bidez”. Anjel Lertxundik *Mentura dugun artean* (2001) liburuan dioten moduan, azpigitulu horrek asko zorlio ke Barandiaranen *El mundo en la mente popular vasca* (1960) liburuari:

“Begi-bistakoa da non dagoen Oteizaren ekarria: Barandiaranek *mente* jartzen zuen tokian *alma* jarri zuen Oteizak, beldur handirik gabe jarri ere. Barandiaranek lehenari buruzko behaketa, datu zehatzen deskribapena, enpirismoa jartzen zituen tokian, interpretazioa,

ausardia, aurrera begiratzeko premia jarri zituena Oteizak”.

Etengabe saiatzen da Oteiza *cromlech* neolitikoa eta euskara lotzen. Haren ustetan, hizkuntzak gorde behar du lexikoaren erroetan kultura horren zantzurik. Laguntza eskatu zion hainbat euskaltzaleri, haien artean Koldo Mitxeleneri, baina hark gutxi lagun ziezaiokeen bidaia horretan. Gure hizkuntzalari handia zientzia-gizona zen: arrazoimena eta zorroztasun intelektuala zituen akuilu. Oteiza, berriz, arimaren eta estetikaren ikertzailea genuen. Schlegel anaia erromantiko alemanen antzera, bazekien egiak eta balioak deskubritu baino gehiago asmatu egiten direla, eta horixe baizik ez zuen egin Euskal Herriaren sustrai etnikoak eta estetikoak irudikatzeko ahaleaginean. Intuizio poetikoa arrazoimenaren gainetik zegoen Oteizarentzat; irudimena eta sorkuntza zientziaren gainetik. Garaiko klabeen ulertuta, irudimena eta sormena ezkerreko balioak ziren, arrazoimena eta logika eskuinekoak. Mitxelena aipatu ondoren, honela dio:

“Zuhurtasun eta tentu zientifikoagatik (gaizki ulertuak) susmorako eta bilaketarako beste angelu batzuetatik egindako intuizio poetikoan eta hegada espiritualean huts egiten badugu, esan nahi du ez dugula ezagutzen dokumentu historikoez (arteak, hizkuntzak) utzi diguten sorkariaren askatasun poetikoaren izaera misteriozua”.

Eta aurreraxeago: “Euskal irudimena hurbilago dago irudimen artistikotik pentsamendu arrazionalaren logikatik baino”. Beraz, lilura sortzeko kamutsa eta hitsa den arrazoimenaren langaren gainetik salto egin eta “Amets egin behar da berriro, gurea bezalako herri bat, hain iragan misterio-tsua duena, berriro imajinatu beharra dago”. Ezin ukatu Oteizaren interpretazio mitiko-poetikoa iradokitzailea zenik (“Gernikako arbola harrespilean jaio zen”; edo euskararen eta euskaldunen jatorriaz diharduenean, bestek beste). Eta abailduta zeuden herriaren aldeko ilusioa eta harrotasuna suspertu zituen. Haren metafora iradokitzaileak xarmatuta, bere burua altxatzeko tenorean jarri zuen kulturako jendea. Azken batean, amets egiteko tresna mitikoak, poetikoak edo irudimenezkoak eskaintzen zizkigun Oteizak liburuan. Eta, besterik ezean, horri heldu zion artista eta kulturako jende askok; eta frankismopeko giro itogarri hura gainditzeko eta iraultzeko legami bihurtu zen. Horra nola ikusi zuen gaia A. Lertxundik gorago aipatu dugun liburuan:

“Behingoagatik, gugandik beti urruti ibili ohi zen modernitate kutsuko alor batetik –estetikarenetik– zetozkigun loreak eta onarpenak, eta, behingoagatik, eder ikusi genituen geure buruak ispiluaren aurrean. Abailduta zegoen herriak harro puntuko suspirio halako batez hartu zuen Oteizaren jarduna”

Geroago aitortu zuenez, Oteizak ez zuen behin ere ukatu berea birsortze mitologiko bat izan zenik; beharrezkoa, ordea, garai historiko hartan, Euskal Herriko kulturaren egoera lazgarria halakoen faltan ikusi zuelako.

Oteiza eta hirurogeiko hamarkadako kultura

“Ez zen jaio bere bizi osoan aldarrikatu zuen erakunde hura, baina bai artista plastikoen talde batzuk (Sistiagaren Gaur, Emen, Orain) eta bene-benetakoak izan ziren Ez dok Amairu, Ama Lur, Argia, Jarrai, 60ko hamarraldiko motor etnizista. Ez zen bera izan abian jarri zituena, baina haren hatzak ukitu zituen, Migel Anjelen Adan Jainko Aitak bezalaxe”.

Idoia Estornés

1950eko hamarkadaren azken urteetatik aurrera, Donostian eta Gipuzkoan sortutako ekimen kultural gehienetan hartu zuen parte Oteizak. Pio Baroja zendu ondoren bildu zen estreina, 1959tik aurrera, “Academia Errante” izenez bataiatua izan zen erakunde ilustratu eta kulturala. Bazkari-tertulía gisa antolatutako bilkuretan “Azkoitiko zalduntxoak” (1959), “Lope de Agirre” (1961), “98ko belaunaldia” (1961), “Joxemiel Barandiarani omenaldia” (1962) izan ziren landutako gaiak. Koldo Mitxelenak, Luis Martín Santosek (*Tiempo de silencio*, 1962an argitaratu zuen nobela eragingarria-

ren egilea), Julio Caro Barojak edo Jorge Oteizak hartu zuten parte “Academia Errante” haren bile-retan, harik eta Melitón Manzanas Gipuzkoako ordena publikoaren arduradunaren aginduz bertan behera utzi behar izan ziren arte.

Aurrerago, “Arte Garaikideko Euskal Eskola” bat zerabilen buruan bueltaka Oteizak, estetikaren ikerketarako laborategi bat, diziplinartekoa izango zen erakunde bat, koreografo-taldeak, poetak, artista plastikoak, eskultoreak, musikariak eta zine-magileak, folklorearen ikertzaileak bilduko zituen. Ez zen halakorik inoiz gertatu, baina urte askoan aldarrikatutako “Escuela Vasca” haren orbitan, arte esperimentalen zentro imaginario horrek beste izendapen batzuk ere hartu zituen: “Universidad Vasca de Arte”, “Instituto de Estética Comparada”, “Universidad Vasca de Loyola”, “Universidad de Artistas Vascos”, “Debako Eskola”... Zenbat ideia eta iradokizun, zenbat proposamen artistei eta erakundeei. Bera izan zen mugimendu artistiko askoren eragile eta akuilu, animatzaile eta bultzatzaile.

1966. urtea mugarria da euskal kulturari: urte hartan GAUR talde artistikoa sortu zen, eta euskal kantagintza “Ez dok Amairu” taldearekin. José Antonio Sistiagaren proposamenari kasu eginez, GAUR taldearen erakusketa antolatu zen “Galería Barandiarán” deituan. Honako artista hauek hartu zuten parte: Jorge Oteizak, Eduardo Chillidak, Jose Luis Zumetak, Rafael Ruiz Balerdik, José Antonio Sistiagak, Remigio Mendiburuk, Amable Ariasek eta Nestor Basterretxeak. Erakusketarekin batera

(1966ko apirila-maiatza) katalogo bat argitaratu zuten, non “Escuela Vasca” edo “Escuela Vasca de Arte Contemporáneo” zelakoaren sustatzaileek euskal artea defendatzeko aldarrikapena egiten zuten. Donostiako GAUR taldearen eraginez beste hiru probintzietara ere zabaldu zen asmoa, baina Bizkaiak (“Emen”) eta Arabak (“Orain”) ez zuten lortu Donostiakoaren oihartzunik eta eraginik; eta Iruñekoa, “Danok” lemapean ekimenaren gailur izan behar zuena, ez zen gauzatzerara ere iritsi. Esparru artistiko desberdinetako artisten parte-hartze bateratua zuen helburu “Galería Barandiarán”eko egitasmoak. Bilerak eta eztabaidak izan ziren, baina ez zen proiekturik mamitu. Bilera haietan izan zen “Ez dok Amairu”ko ordezkariak ere, baina ordurako mahaiaren gainean zegoen “euskal kulturaren” izaerari buruzko eztabaida, euskaraz egitea ezinbestekoa ote zen euskal kultura izan zedin, edo hizkuntza ezin zela arazo gertatu, eta abar. Urte berean itxi zen “Galería Barandiarán”, eta hortxe itzali zen egitasmoa.

GAUR taldeko artista batzuek *Ama Lur* filmean parte hartu zuten (Basterretxea, Oteiza, Chillida). *Ama Lur* filmaren errodayea amaituta zegoen 1966an; baina tramiteek eta Madrildik jarritako eragozpenek eta zentsurek atzeratu zuten estrainaldia: Gernikako Arbola ezin zen elurtuta agertu; Espainiako erregea euskal foruei zin egiten ere ez, nahiz eta gero onartu zuten; Picassoren *Guernica* margolanaren lekukotza ezabatu egin be-

har zen (Picasso euskalduna ez izaki) eta “Espainia” hitza hiru aldiz aipatu behar zen gutxienez.

Bere igurtzi etnozentriko eta guzti, autoafirmazio-saio bat izan zen *Ama Lur*. Bere buruaz harro zegoen herri bat irudikatzen zuen filmak, aurrera egiteko konfiantza eta gogo suharra zeuzkan herri bat. Halakoa zen frankismopeko zulotik burua altxatuz amestutakoa, eta mezu kodetua balitz bezala irakurri zen gazte askoren aldetik, esaten zenaren gainetik, iradokitzen zuenari (eta sinetsi nahi genuenari) arreta jarritz. Montxo Armendarizek hauxe esan zuen filmaz:

“Pelikula bat baino gehiago sinbolo bat izan zen, euskal nazio-kontzientziaren akuilagarri bat. Niretzat, *Ama Lur*-ez mintzatzea ilusioez hitz egitea da, itxaropenaz, sufrimenduaz, bai eta eskematismoaz eta urte haietan errealtateari ekiteko izan ohi genuen idealizazio handiegiaz ere”.

Jose Luis Bakedanok, berriz, beste hau:

“*Ama Lur*” izan zen euskara zinematografikoki erabili zuen lehenengo filma, eta gure hizkuntza zaharra errebindikatzen du, orobat, ahozko komunikaziorako eta adierazpenerako tresna gisa”. Azken batean, filma ekintza politiko bat ere izan zen (euskara, “zazpi probintziak”).

Honelaxe bizi izan zuen Idoia Estornesek filmaren estreinaldia: “Basterretxea eta Larruquerten

“Ama Lur” filma uda hartan estreinatu zen; zinema-aretoa bero-bero, *Agur Jaunak* amaieran zutik jarrita, tradiziozko abertzaletasunaren zerikusirik ez zuten *volkegeist* andana bat, uste genuenez”. Hiru dira, nazionalismo erradikalaren erreperatorioan, hildakoen omenaldietarako erabili ohi diren musika melodiak: “Agur Jaunak”, “Eusko Gudariak” eta Pablo Sorozabalen “Guernica. Marcha Fúnebre Vasca” (1966an konposatua).

Ama Lur filmaren errodejean (Hondarribian) ezagutu zuen Juan Antonio Urbeltzek Jorge Oteiza. *Haritzaren negua* (1993) liburuak dakar Oteizaren hitzek harengan izan zuten inpaktuaren lekukotza: “Oteizaren jardunak –Jupiter trumoitsuaren harrizko hitza bailitzan– nire garun osoa okupatu zuen”. *Quousque tandem..!* liburua errebelazio bat izan zen Urbeltzentzat; hango musika eta dantzaren sinbiosi magikoak (*Quousque*, 135-136. or.) liluratu egin zuen guztiz. Handik aurrera, Oteizak buruan zerabilen “Arte Garaikidearen Euskal Eskolaren” orbitan ibili zen “Argia” dantza-taldea. Ordurako folkloreaken inguruko ikertzaile saiatua zen Urbeltz. 1959an hasi zen euskal dantzaren ikerketa-bideak lantzen. Ikerketa eta biltze-lanaren emaitza da *Dantzak. Notas sobre las danzas tradicionales de los vascos* (Bilbo, Caja Laboral Popular, 1978), euskal dantzari buruz ordura arte argitaratutako lanik bikainena. Dantzaren erritual xaloa folkloreaken ikuspegi filologiko, sinboliko eta estetikoarekin solasean jarri zuen.

Bertsozale askoren oroimenean geratu da grabatuta 1968ko Anoetako Bertso-Txapelketaren finala. Ekitaldi hartan sendotu zen Xalbador bertso-lariaren fama, epaimahaiaren erabakia txistuka hartzetik txalo zaparrada hunkigarria jasotzera pasatu zen tarte laburrean, halakoxea izan baitzen txistu egin ziotenei Xalbadorrek eman zien erantzuna. Bertso estilo liriko finekoa, *Odolaren mintzoa* liburu argitaratu zuen 1976an. Xabier Leteren “Urepeleko artzaiari” eskainitako kantak areagotu egin zuen haren izen ona.

4. Ez dok Amairu

60ko hamarkada ezin da ulertu musikaren eraginik gabe. *Pop* musikaren eztanda izan zen, Elvisena eta The Beatles taldearena (1965ean Madrilera etorri ziren). “Los Xey” 60ko hamarkadako belaunaldi gaztearen gurasoen adinekoak ziren. Zaharrak, beraz; parroketako abesbatzak eta zortzikoteak bezainbat. 60ko hamarkadaren hasierakoak dira “Los Contrapuntos” azkoitia-rrak, edo “Mocedades” talde bilbotarra, baina baita “Urretxindorrek” ere, beren “Aitorren hizkuntza zaharra” kantuarekin. Alabaina, Bob Dylanekin eta Joan Baezekin gertatu zen bezala, gurean ere kantaria gitarra soilarekin igotzen zen oholtzara, eta mezu sozialeko *popa*, existentzialismo-igurtziarekin, kantatu ohi zuen. Gure kantautoreak ziren. Beste hainbat esparrutan bezala, ezin aipatu gabe

utzi Nemesio Etxanizen (*Abertzalekantari*, 1951) bitartekaritza, gaztediak hazkurri musikala bere hizkuntzan izan zezan. 1958an, Txabi Valverdek eta Robles-Arangiz anaiek “Soroak” taldea sortu zuten, Bilbon. Abesti tradizionalak eta atzerriko kantu euskaratuak zituzten erreperatorioan. Michel Labeguerie (1963) kantariak hartu zuen haien arrakastaren lekukoa, eta “Ez dok Amairu” taldearen aitzindari zuzena bilakatu zen hala. Ezin aipatu gabe utzi kantari lapurtarraren “Gu gera Euskadiko gazteri berria” abesti ospetsua (Belen Oronoz, *Gaztedi berria*, 2006).

Handik gutxira, 1964. eta 1966. urteen bitartean, Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi eta Mikel Laboa agertu ziren. Azken honek 1964an grabatu zuen bere lehen diskoa (*Azken*). Geroxeago etorri zen Lete. Kantari bakoitzak bere gustuak eta eraginak zituen: Mikel Laboak (Atahualpa Yupanki eta Bob Dylan), Xabier Letek (Georges Brassens eta Jacques Brel), Benito Lertxundik (Elvis Presley eta The Shadows), Lourdes Iriondok (A. Yupanqui eta Joan Baez).

Medikuntza-ikasketak amaitu eta bere espezialitatea –haurren neuropsikiatria– zela eta, Bartzelonarekin harreman estua izan zuen Mikel Laboak, 1964-1965. urteetan. Han ezagutu zituen Kataluniako *Nova Cançó* deitua eta Jorge Oteiza (1965eko udaberrian), honek Bartzelonako euskal unibertsitarioei “Fronte kulturalaz” eman zien hitzaldi batean. Mikel Laboak Oteizarengana jo zuen (1965eko udazkenean) kantagintzaz buruan

zerabilen asmoa aurkeztera, eta “Ez dok Amairu” izenarekin bueltatu zen etxera (Joxemari Iriondoren bitartez ezagutu zuten taldearen izenaren sorburua). R. M. Azkueren *Euskalerrriaren Yakin-tza* liburutik hartutako “Martin errementeriaren” istorioan dago taldearen izenaren sorburua. Taldearen bedeinkapena, Oteizarena; taldearen logotipoa, txalaparta bat (Artze anaiak ziren txalapartariak), Remigio Mendibururena, biak ala biak GAUR taldekoak. Hernanin eta Donostiako Victoria Eugenia antzokian –“Jarrai” antzerki-taldearen eskutik– eman ziren ezagutzera, 1966an; baina taldearen aurkezpen ofiziala Irungo “Bellas Artes” antzokian izan zen, 1966ko martxoaren 20an. Jaialdiaren hasieran “Martintxo errementariaren” ipuina irakurri zuen Xabier Letek, *off-ean*, aretoko argiak itzalita, eta kanta-sortaren ondoren, *Pelotari* filma eman zuten (Nestor Basterretxearen eta Fernando Larruquerten zuzendaritzapean Gernikan estreinatua, 1964an). Oteiza ere bertan zen, eta elkarrekin bazkaldu ondoren, arratsaldean, Aita Donostiari eskainitako eskultura bisitatzea igo ziren Agiña gainera (Xabier Lete, *Abestitzak eta poema kantatuak*, 2006). “Aste Kulturalak” zirela-eta, izan zuten esparru artistikoen artean harremanik (“Jarrai” taldearekin eta Jose Luis Zumeta artista plastikoarekin, besteak beste). Taldearen espirituari dagokionez, *Quousque tandem...!* liburuan saiaturako bideetatik ibili ziren, kantu zaharrak, hizkuntza eta herri-kontzientzia berreskuratze ahaleginean, beti ere kantutegi zaharreko ondarea

arnasberrituz eta molde moderno batean eskainiz. Oteizaren liburuak duindu egin zuen bertsolaria: haren merezimenduak goratu zituen. Ez zen Oteiza lehena bide hori saiatzen, ordurako Aresti ere bide beretik zebilen; gogoratu “Bizkaitarra” (1958) poema edo *Harri eta Herri* (1964) liburu arrakastatsua. Hortik aparte, ez zuten besterik egin “Ez dok Amairu”koek Xenpelar, Udarregi edo bertsolari zahar eta herrikoiekin. Salaberryk, Manterolak, Riezuk, Azkuek edota Aita Donostiak jasotako kantutegietan bilduta zegoen gure ondare tradizionala; Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* ahaztu gabe, Oteizak hain estimatua zuena. Telesforo Aranzadiren lanetan aurkitu zuen Oteizak baserritarraren belarriak sorgintzen zituen gurdiaren kirrinka-hotsaren lilura. Seguru asko lan haietara jo zuen Lauaxeta poetak ere, kirrinka-hots berberak liluratuta baitzegoen hura ere, *Arrats-Berrian* (1935) poesia-liburuko “Burtzaiña” poemak erakusten duen moduan.

Aranzadirenean bezala, “Ez dok Amairu”ko poetek Oteizaren *Quousque tandem...!* liburuan bertan aurkitu zuten inspirazio-hazkurria beren poesietarako. Aipagarriena, Joxean Artzek 1969an argitaratutako *Isturitzetik Tolosan barru* poesia-liburua. Isturitzeko harpeetan aurkitutako “txistuaren” (munduko musika-tresnarik zaharrena, Oteizaren esanetan) aipamena dakar Oteizaren liburuak, bai eta “txalapartaren” erritmo natibista eta paganozalea ere. Pierre Lafitte kalonjearen hitz kristauak Mari-
ren, gure mendietako jeinuaren, legera iraultzen

ditu atariko poeman, liburuaren asmoa ezkutatu gabe. Hurrengo poeman, Mariren jeinuak euskaldunak gatibu izan zituen "Euskaldun fededun" esapide tradizionala birrindu zuen, "gizakumea eta kristaua" bateratzen zituen moralarekin batera, "bestela gure asaba zaharrak haserretuko direla eta". Txalapartarekin eta Mariren jeinuaren konjuroekin batera sakondu zen "neopaganismoaren" bidean, 50eko hamarkadan Jon Mirandek abiarazi zuena. Azken batean, kristautasunaren moral estu eta gatibutik askatzeko garrasi bat zen Artzeren poema-liburua. Xabier Letek ere eskaini zion Pio Barojaren "Altzateko jaunari" bere omenaldi partikularra. *Isturitzetik Tolosan barru* liburuaren paratestuak informazio ezin hobea emanten dio irakurleari barruko mamiaz: esperimentazioa eta ordena moral tradizionalarekiko haustura, akelarrearen iruditeriaz apaindua eta sexu gozamenerako Etxepareren mezu transgresorean beratua. Sexualitatea tabua zen 60ko hamarkadako moral esturako.

1971n, gazteen akanpada-kontzertu bat egin zen Larraitzen (han ziren Artze anaiak, Mikel Laboa eta Benito Lertxundi). Gau-pasaren berri eman zuten egunkariei kasu egitera, han gertatuak akelarrearen itxura osoa zuen, orgia eta guzti. Txalapartaren "ttakun" oteizar natibistaren deira bildutako gazte jendeak maitasun librean igaro bide zuen gaua. Bertako lekukoen esanetan, ordea, inork ez zuen halakorik ikusi. Gertatu "omen" ziren, eta seguru gertatu zirela, baina, garai bateko inkisidoreen buruetan bezala, oraingo honetan apaiz,

nazionalista tradizional eta, oro har, hara hurbildu ez zen ortodoxia atzerakoiaren irudimenean gertatu zen. Gure “68ko maiatz” propialak urtetxo batzuk gehiago behar izan zituen sexu-harremanak normalizatzeko.

Lourdes Iriondo eta Estitxu kantari ari ziren, baina non zeuden orduko emakumeak? Idoia Estornesek *Cómo pudo pasarnos esto* (2013) liburuan dioen bezala, “Vascolandian baziren feministak baina ez feminismoak”. Egile berak jasotzen du 1968ko eslogan hau: “Ba al dago soldadu ezezagunagoa baino ezezagunagorik? Bai, emakumea”. Ez dakit zenbatek zuten artean Simone de Beauvoir-en *Le Deuxième Sexe* (1949) liburuaren berririk (1957an Buenos Airesen gaztelaniara itzulia). Frantziako mugaren hurbiltasunak abantailarik izan zuen zenbait irakurketa moderno “debekatu” frantsesez egin ahal izateko. 1969an legeztatu ziren antisorgailuak Frantzian (Ingalaterran, 1961ean), eta *pilule* famatua emakumearen askatasunaren ikur bihurtu zen.

Urte haietan modan jarri ziren “Aste kulturalak” zirela-eta, “Ez dok Amairu” euskal kultura modernoaren eta antifrunkistaren erreferente garbia bihurtu zen publiko zabal batentzat. Errebindikazio politikoa eta kulturala batera agertu ziren, binomio baten aurkia eta ifrentzua bezala. Euskaraz kantatzea bera ekintza kultural bat zen frankismoan, baina “Ez dok Amairu”ren kasuan areagotu egin zen hori, euskal kantagintza berri horren muinean klabe modernora bihurtutako tra-

dizioaren berreskurapena eta interpretazio berria zegoelako. Eta, jakina, haien kantetan mamitzen zen mezu ezkutua, mezu antifrankista, askatasun indibidualaren eta kolektiboaren aldeko aldarria zen. Eta kantarien eta entzuleen artean halako konplizitate bat sortu zen, non entzuleak bazekien kantarien hitzak mezu kodetuak zirela (“txoriak”, esate baterako, askatasunaren metafora gisa funtzionatzen zuen: “txoria” preso dago, bahituta, Euskal Herria bezala); eta bazekien beste zerbait adierazten zutela, askatasunarekin eta justiziarekin edo gizakiaren aldarte existentzialistarekin (hauek ere kezka ezkertiarak eta modernoak) lotutako esanahia zutela. Kode sekretua zentsura saihesteko bidea zen. Ez dezagun ahaztu 1968tik aurrera debekaturta egon zirela “Ez dok Amairu”ko kantari batzuen emanaldiak eta diskoen argitalpenak; edo kanten izenburua aldarazi zitzaizela (Benito Lertxundiren “Detroit ez”, adibidez, “Ez kanta, beltza” bihurtu zen). Garai hartako “Aste kulturek” dimentsio politikoa ere bazuten. Bertara hurbiltzen zena fronte antifrankista batera hurbiltzen zen, eta egoera politikoa, kulturala eta morala iraultzeko egin nahi zuen lan, gizartearen balio zaharrak balio berrietara bihurtze aldera. Gaztedi berriak gizarte berria zuen helburu. ETAko aktibistak ez zuen galduko “Ez dok Amairu”ren emanaldirik (Mario Onaindia, *El precio de la libertad*, 2001), eta emanaldi horie tara hurbiltzen zen jende askok eman zion sostengua ETAREN ibilbideari 1968tik aurrera. Poetek kantariantzako hitzak idatzi ohi zituzten. Gabriel

Arestiren *Harri eta Herri* (1964), 60ko hamarraldiko poesia libururik enblematikoenak, irakurleen aldetik erantzun ona izan bazuen ere, ezin da konparatu egile beraren “Egun da Santi Mamiña” kantak Laboaren ahotan lortu zuenarekin.

1970ean, “Baga, biga, higa” proiektua aurkeztu zuen “Ez dok Amairu”k; “Sentikaria” izenez ere ezagutzen zen ikuskari eszeniko osoago eta bate-ratuagoa (dantza, musika, plastika, txalaparta...). Joxean Artze zen ikuskizunaren zuzendari artistikoa. 1970-1972. urteetan “Sentikaria” proiektua-ren inguruan bildu ziren taldekideak, eta 1972ko Eguberrietan desegin zen taldea. Xabier Leteren hitzetan esateko (Eugenio Ibarzabalekin izandako elkarrizketan), estetikoki “Ez dok Amairu”ren lorpenik handiena izan zen proiektu hura, eta baita taldearen amaiera ekarri zuena ere. Arrazoi politiko-ideologikoez eragin handia izan zuten taldearen desegitean, beren arteko asmo artistikoen gorabeherak baztertu gabe. “Baga, biga, higa” ikuskariaren ondoren, bi talde agertu ziren iparraldean: “Zazpiribai” taldea lehenbizi eta “Ortziken” taldea hurrena (Manex Pagola, Maite Idirin...). Bigarrena lehenengoa baino politikoagoa izan zen. Eta, Trantsizioko urteetan murgildurik, ezin utzi aipatu gabe Pantxoa eta Peio bikote arrakastatsua, Telesforo Monzonek eta Manex Pagolak egindako kantuak Euskal Herri osoan ospetsu bihurtu zitue-na. Urte bertsuetan, abiarazi zuten Errobi taldeak eta Niko Etxartek euskal rock-a (rock and rolla).

5. 1960ko hamarkadako poeta. Gabriel Aresti

Eragile izugarria izan zen Oteiza. Haren *Quousque tandem...!* liburuak bazter guztiak astindu eta harrotu zituen, eta eztanda haren uhinek politikaren, sinesmenaren eta kulturaren bazter guztiak inarrosi zituzten. Haren eraginpean gauzek ezin zuten lehengora itzuli, ortodoxia guztiak geratu baitziren bere onetik erauzita. Eta hori sinesmenarekin, poesiarekin, dantzarekin eta musikarekin gertatu zen euskal munduan. Luis de Pablori, Carmelo Bernaolari eta Francisco Escuderon ere iritsi zitzairen magoaren ukitua. John Cage, isiltasunaren musikaria, *Quousque tandem...!* liburutik Joxean Artzeren poesiara pasatu zen. Eta Agiñako para-jeak ere sakratu bihurtu ziren Artzerentzat, Aita Donostiari eskainitako omenaldiaren ondoren. Mikel Laboaren errautsak ere hantxe haizatu ziren, 2008ko abenduaren 8an, Oteizaren lur sakratuan. Egun berean aitormen hau egin zuen Joxean Artzek: “Duela berrogei bat urte Agiñako para-je honetara igo nintzen lagun batzuekin, ‘gure arbasoen espiritu sakratua sentitzera’. Behe-lainoa zegoen, behe-laino itxia, orduantxe idatzi nuen ‘Maite ditut, maite, geure bazterrak’ poema”. Mikel Laboaren ahotan ezaguna bihurtu zen poema-kanta. Beste hainbeste esan genezake Bitoriano Gandiagaren *Hiru gizon bakarkako* (1974) liburuaren azken zatiaz, “Artasoko salmoak”, lurrarenganako

maitasun erakustaldi hori erlijiotasun tradizionalaren mugak gainditu eta, apoteosi panteista batean, erlijio estetiko-telurikoan murgiltzen zen.

Oteizak kulturako jendearen ahalegin eraberritzaile gehienak suspertu, katalizatu eta kitzikatu zituen. Animatezaile paregabea gertatu zen. Hala ere, Iñaki Beobidek zuzendutako “Jarrai” taldeak antzeztutako obren errepertorioari erreparatuko bagenio (Tennessee Williams, Max Frisch, Arthur Miller, Albert Camus, Xalbador Garmendia, Gabriel Aresti), ez genuke lan erraza izango Oteizaren ideia nagusien eraginik aurkitzen.

Elkarren arteko losintxak gorabehera, laster konturatu zen Aresti ere Oteizarekin zuen desadostasun sakonaz. *Harri eta Herri* (1964) liburuan gorazarrea egin zion, bai, baina Oteizaren Agiñako “harrien” mistikari egindako kritika ironiatsua zen. Eta, Bartzelonako unibertsitarioen aurrean, Jorge Oteizak aldarrikatutako euskararik gabeko euskalduntasunaren mistika salatu zuen, eta gauza bera “Pelotari” filmari buruz. Gogaitu egiten zuen gure poeta “profetaren” errealismo faltak, diren gauzak bere izenez aipatu beharrean, “espiritua” bezalako hitz lausoez baliatu beharra “euskalduntasuna” definitzeko. Halako estrategiak susmagarriak gertatzen zitzaizkion Arestiri, hizkuntzaren ezagutza eza ezkutatzeko trikimailuak. Ez zuen Mitxelena ez Aresti (ez Ramon Saizarbitoria ez Ibon Sarasola) Oteizaren mistifikazioak sorgindu. Bai beste asko, ordea, “Ez dok Amairu”ren orbita abertzalekoak bereziki.

Ordura arte idatzitako euskal poesiatik urruntzen duten bi berrikuntza ditu *Harri eta Herri* liburuak: poesia urbanoa da eta bertso librean idatzita dago. Liburuak arrakasta handia izan zuen, eta modernotasunaren eta aurrerakoitasunaren ikono bihurtu zen. Liburua plazaratu eta handik bi urtera, Ibon Sarasolak hau idatzi zuen, euskaldun gazteen eta unibertsitateko ikasleen artean liburuak izan zuen eragina aipatuz (argitalpena elebiduna zela esatea ahaztu bazitzaion ere):

“Donosti’ko Biblioteka probintzialera joaten naiz estudiatzera. “Harri eta herri” da han estudiatzen duten unibertsitarioak ateratzen duten euskal-liburu bakarra... Badira unibertsitarioak euskal-literaturan liburu hau bakarrik ezagutzen dutenak. Euskara jakin gabe liburu hau erosi duten unibertsitarioak ere ezagutzen ditut...”.

Horretan datza, beharbada, liburuaren arrakastaren giltza, sentiberatasun berri batekin bat egin izanean; gazteekin, euskaldun berriekin eta unibertsitarioekin, alegia, jende hark oso kontuan hartzen baitzituen elkartasuna, ezkerreko humanismoa eta antzeko balioak.

1967an, *Euskal Harria* argitaratu zen, eta, 1971n, berriz, *Harrizko Herri Hau*. Zentsurak zorrotz tratatu zituen bi liburuak.

1965. urteaz geroztik, Aresti behin eta berriz korapilatu zen polemika ideologikoetan. *Harri*

eta Herriko baikortasuna asko murriztu zen *Euskal Harrian*. Aurreneko liburua arrazoi ematen zion Ebanjelioetako esapide honi: “aitaren etxean egoitza asko daude”; *Euskal Harriaz* geroztik, ordea, ez dago garbi nor bizi den aitaren etxean eta nor kanpoan. Arestiren poesia haizearen kontra zihoan: bere kontzientzia eta sentiberatasun poetikoa orroka ari ziren, hiriak eta hiriko jendeak jasaten zuten zapalkuntzaren eta bidegabekeriaren kontra, Aresti bera eta bere familia barne (ez da ahaztu behar poeta sozialaren “ni” “gu” dela beti). Ordu-rako, ordea, ezkerreko komunitate nazionalistak bizkarra emana zion Arestiri (eskuinekoak askoz lehenago). Arestiren tremendismoak nekatu egin zuen, azkenerako, higikunde nazional iraultzailea.

Arestik ez zuen ezein alderdi politikotan militatu, EGIN (PNVren gazteria) bolada labur batean izan ezik; espiritu independente nabarmena izan zuen beti. Izaeraz, ortodoxia guztiak arbuiatzen zituen. 1968an, sobietar armadak Txekoslovakia inbaditu eta komunista ortodoxoak isilik geratu zirenean, Arestik argi eta garbi hitz egin zuen inbasioaren kontra. Bera izanik Bilboko euskal idazlerik handiena, bilbotar auzoetan bizi ziren etorkinak euskaraz eskolatzeko aukeraren aurka agertu zen Aresti. Alegia, komunista gisa, kontra zegoen, eta nazionalista gisa ere bai. Esan nahi dut Aresti, ideia-gizon gisa, politikari gisa, berez zela kontraesankorra. Horrek haserrarazi eta bere one-tik atera zuen sozialista eta abertzale ezkertiar bat baino gehiago. Nolanahi ere, haren zintzotasun

intelektualak susmoak eta errezeloak pizten zituen bezala, inork ez zuen zalantzan jarri behar haren giza zintzotasuna. Haiek ez ziren, ordea, ñabardura eta neurritasun-garaiak; Aresti bera ez zen izan, beharbada, beste inor baino ñabardura zaleagoa eta neurritsuagoa. 1968. urteaz geroztik, adiskide gutxi izan zituen Arestik, *Lur* argitaletxeari atxikitako idazleak izan ezik; ortodoxia nazionalista berria kontra jarri zitzaion, eta, gainera, “Ez dok Amairu”ko kantariak urrundu egin zitzaizkion, nahiz Arestik poema asko eman zizkien beren kantuetarako. Aresti “españolista” zen haientzat guztientzat. “Eladioak” –ELA-STVtik bereizitako sindikalistak, 60ko hamarraldian *Lan Deya* aldizkaria atera zutenak– eta nazionalista iraultzaileak behin baino gehiagotan saiatu ziren Arestiren hitzaldiak boikotatzen: Hernanin (1966), Bilbon (1968), Baionan (1972).

Arestik, ordea, “aitaren etxea” defenditzen jarraitu zuen, euskaraz defenditu ere. Arestiren imaginarioan irudi berberak ari ziren lanean: “Melitxu Basurtuko, aitaren etxearen habea”, ildo horretatik jarraitu zuen poetak zapalkuntza, pobrezia eta antzeko errealitate sozialak salatzen. Hala ere, Aresti tematuta zegoen irudi eta ideia-errepertorio bera erabiltzen, horrek ahalmena jadanik agortua zeukan arren. Poesia soziala modatik pasatuta zegoen jada Espainiako poesian. Blas de Oteroren, Gabriel Celayaren eta Angela Figuerasen poesia soziala estimu handitan zuen. Eta eroso sentitzen zen La Concordian biltzen ziren Bilboko poeten eta ar-

tisten giroan. Horiez aparte, Natxo de Feliperekin eta Oskorriren inguruan aurkitu zuen, seguruenik, beste edonon ukatzen zitzaion harrera abegikorra; Donostia aldean, berriz, eroso egoten zen Ramon Saizarbitoriarekin eta Lur argitaletxeko lagunen artean, azken hauek ere españolistak baitziren *doxa* abertzalearen ikuspegirako. Erljioak erakusten zuen jarrera sektario berbera nagusi zen jokaleku ideologikoan eta politikoan, izan abertzaleen artean, izan marxisten artean. Gogotik pairatu behar izan zuen jarrera sektario hori 1970etik aurrera, Arestiren ingurutik (eta haren poesiaren eskutik) plazaratutako “Oskorri” taldeak tomate eta arraultza-jaurtiketa ugari jasan behar izaten baitzuen bere emanaldietan, abertzaletasun sanoaren izenean. Burua altxatu eta ikusiko balu gaur nola dabiltzan teman, nork bere aldarera eraman nahian!

Aresti eskuzabala izan zen belaunaldi gazteekin; aita baten gisakoa zen 1969an sortutako *Lur* argitaletxearen inguruan bildutako idazle gazteentzat –Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Arantxa Urretabizkaia, etab.–, eta haien lankide usua zen. Atxaga, Izagirre, Sarrionandia eta beste idazle asko Gabriel Aresti irakurriz bildu ziren euskal literaturara. 1975ean hil zen.

II

TRANTSIZIOKO URTEAK

Sine ira et studio

Espainiako Trantsizioa ez zen eredugarria izan. Frankismoaren diktaduratik demokraziara egokitzeko behar izan zen epeari ematen zaio izen hori. Franco 1975eko azaroaren 20an hil zen eta Juan Carlos I. Borboiak hartu zuen haren lekua. 1976ko uztailean, Adolfo Suárezek ordezkatu zuen Arias Navarro, gobernuburu gisa. Suárezen ardurapean antolatu ziren 1977ko ekainaren 15eko hauteskundeak, berrogei urteko diktaduraren ondoren egin ziren lehenengoak, eta, ondoren, prozesu konstituziogilea ireki zen; hau da, ekainaren 15eko emaitzen arabera eratu ziren Gortetako zazpi legebiltzarkideri eman zitzaien Konstituzioaren proiektua idazteko ardura, gero Kongresuan onartu eta 1978ko abenduaren 6ko erreferendumean bozkatu zena. Espainiak ere bazuen, aurrerantzean, bere demokrazia legitimatzen zuen Konstituzioa

(Carta Magna ere deitua). Trantsizioaren prozesua Estatuko aparatu frankistetatik diseinatu eta bideratu zen. Hasteko, Gorte frankistek onartu zuten, 1976ko azaroaren 18an, “Erreforma Politikorako Legea” izeneko proiektua. Legeak Francoren diktaduratik monarkia parlamentariora igarotzea ahalbidetzen zuen. Trantsizio hori egiteko, baina, Konstituzio bat onartu behar zuen gizarteak alde aurretik, eta hori –Konstituzio demokratiko baten erredakzioa– legitimoki aukeratutako ordezkariak egin zezaketen soilik. 1976ko abenduaren 18an Erreforma Politikorako Legea onartzeko erreferenduma egin zen. Oposizioa abstenitu egin zen, Lege hura, demokraziaren oinarriak jartzeko urrats xume bat zena berez, bere parte-hartzerik gabe eta onartzen ez zituen irizpideen arabera egin zela argudiatuta. Artean alderdi politikoak legeztatu gabe zeuden.

Horrela, bada, Erreforma Politikorako Legearen onarpena abiapuntu izan zen, gerora “Erreforma Adostu” gisa ere definitu izan den Trantsizioa gauzatu zedin. Trantsizioa, beraz, erregimen frankistaren eta oposizio demokratikoaren arteko adostasunik gabe abiatu zen. Hortaz, egokiago litzateke esatea frankismoaren hegal erreformistak inposatu egin ziola oposizioari bide-orria, eta oposizioak men egin ziola, galtzeko baino irabazteko gehiago zuenez, zeren eta oposizioak ezin baitzion uko egin aukera txikienera ere, diktadura trauma odoltsurik gabe (Gerra Zibila *in absentia* gogoan) gainditzeko.

Konstituziogileen artean izan zen kontsensu eta adostasunik, baina Erreforma Politikorako Legearen bide-orririk inoiz aldendu gabe. Gauzak horrela zirela, ezin esan daiteke, lotsarik gabe, 1977ko ekainaren 15eko hauteskundeak guztiz demokratikoak izan zirenik: klandestinitatetik irteten ari ziren alderdi politikoek (PCE, PSUC), aurretiko hartan legeztatutako PSOEk eta EAJ/PNVk, edo hauteskunderen parte hartzeko *ad hoc* sortutako alderdiek parte hartu zuten lehen hauteskunde haietan. Baldintza horietan egindako hauteskundeak eskasak izan ziren, ezinbestean, kalitate demokratikoaren aldetik. Hala eta guztiz ere, hauteskundeak egin ziren, eta jendeak bozkatzeko aukera izan zuen berrogei urteko diktadura baten ostean. Ez zen gutxi.

1977ko hauteskunderik ez zituzten bermatu aukera-berdintasun oinarrizkoenak: zerrendak itxiak izatea, probintzia bihurtzea hauteskunderen barruti, populazio handiko probintzien kalterako (proportzionaltasunaren arauari zuzenketak egin zizkioten, ezkerreari kalte eginez eskuinaren mesedetan) eta alderdibitasuna kontsakeratzea izan ziren ondorioak. 1977ko urriaren 25ean, Estatu-ko alderdi nagusiek (UCD, PSOE, PCE, AP, PNV, CIU...) “Moncloako Hitzarmenak” sinatu zituzten, zeinetan krisi ekonomiko larritik irteteko hartu beharreko neurriak jarri baitziren mahai gainean. Oposizioaren laguntzarik gabe –giroa baretzeko eta Konstituzio bat negoziatzeko behar zuena–, aukera gutxi zituen Suárezen gobernuak

maniobratzeko. Nolanahi ere, 1978ko abenduaren 6an onartu zen Konstituzioa negoziatua izan zen, inondik ere, baina ez zen inposaketarik falta izan: prozesuan zehar konstituziogileek kokotean sentitu zituzten erregimenaren hegalki gogorren eta esentzialistenaren arnasa (1981eko otsailaren 23an frogatu zen moduan), presioa eta Gerra Zibilaren mamua. Horren kariatz, demokraziaren sakoneko espirituari nabarmen kalte egiten zioten hainbat erabaki onartu behar izan zituzten. 1978ko Konstituzioaren proiektua erredaktatu zuten konstituziogileek ezin izan zieten eutsi botere faktikoen (Armadaren, Elizaren) presioei; 1931ko Konstituzio errepublikanoak ez bezala, 1978koak ez zuen Estatu akonfesionala postulatu, ez baitzuen esparru pribatuaren eta etika publikoaren arteko banaketa ziurtatu. Eliza katolikoari eman zitzaion lehentasuna kredoen artean, eta, ondorioz, baita pribilegioak ere. Hala, kexu agertu zen Gregorio Peces-Barba—Konstituzioaren zazpi “gurasoetako” bat—, bere azken egunetan, Eliza katolikoari eman zitzaion estatusa eman zitzaiolako, eta hutsegitea izan zela esan zuen. Jordi Solé Turák ere, Konstituzioaren beste egileetako batek (memento hartan, txandatuz joaten zen ponentzia-buru zenak), kanpoko norbaitek emanda eskuratu zuen Konstituzioaren bigarren artikulua testu zehatza, testu hura negoziatzina zelako abisuarekin batera. Bertan garbi zehazten zen marra gorri gaindiezina non zegoen. Idatzia Espainiaren batasuna bermatzeko agindua zen, eta igorleen erabakitasun sendoa adierazten

zuen, agindutakoa bete zedin. Azken batean, ez zuen alferrik Francok gerra irabazi gorri-separatisten aurka. Eta onartu egin behar izan zuten. Itxura guztien arabera, militarren esku-sartzea izan zen. *Nacionalidades y Nacionalismos en España* (1985) liburuan ematen ditu Solé Turák xehetasunak gertatutakoaren gainean.

Gerra Zibilaren ondoren, kostata erabaki zuten Bigarren Mundu Gerrako irabazleek (aliatuek) Franco boteretik ez botatzea. Ez zuten erabaki hura 1950eko hamarkada arte hartu; ordurako, “Gerra Hotzaren” erdian, mendebaldeko blokearen aliatu bihurtua zen Francoren erregimena. Geopolitikak agintzen zuen, eta angloamerikarrentzat Franco ez zen arazoa. Hori da 1953an, Estatu Batuekin sinatutako itunak eta Vaticanorekin egindako konkordatuak adierazten dutena. Bi urte geroago, 1955ean, NBEen sartu zen Espainia. 1959ko abenduaren 21ean, Torrejongo base iparramerikarrean, Eisenhower eta Francoren arteko besarkadak oso garbi irudikatu zuen Espainiako erregimenak nazioartean lortu zuen legitimazioaren neurria.

1950eko hamarkada amaitu aurretik, legez kanpoko alderdi guztiek –hasi EAJtik eta PCEra bitarteko guztiek– barneratuta zuten luzerako izango zutela Franco eta irteera demokratikoa zela soluzioa. 1962an, barneko eta erbesteko oposizioa Munichen bildu zen PSOEn buruzagitzapean (PCE ez zuten gonbidatu), eta demokraziaren aldeko bidea diseinatu zuten, Errepublikaren ideia baztertuz. 1960ko hamarkadako bilakaera ekono-

mikoak eta sozialak Estatuaren itxura aldatu zuen, eta Espainia Mendebaldeko mundura hurbildu zen.

Trantsizioko urteak arte, PCE izan zen “alderdia” *par excellence*, bera baitzen faxisten aurkako alderdirik kohesionatuen eta eraginkorrena. Artean 1975ean, Trantsizioaren atarian bertan, honako hauek ziren PCEren barruan eztabaidagai ziren binomioak: haustura ala erreforma, monarkia (1969tik Francok oinordeko izendatuta zuen Juan Carlos Borboikoa) ala Errepublika. PCE 1977ko apirilaren 11n legezatu zuten. Apirilaren 14an, Batzorde Zentralaren bileran, Espainiako monarkiaren banderak ordeztu zuen bandera errepublikanoa. Santiago Carrillok hartarako erabili zuen argumentua garbia zen: “Juridikoki legalak baldin bagara, sinbolo legalak erabili behar ditugu, eta Espainiako bandera ofiziala gorri-horia da, ez errepublikanoa”. Solé Turák bere oroitzapenetan (*Una historia optimista*, 1999) jasotzen duen moduan, komunistaburu asko atera ziren handik beren historia intimoa eta kolektiboa norbaitek lapurtu izan balie bezala. Baina hura ere, gaineratzen du Turák, ikasbide berriaren kapitulu bat zen. Ez zen bakarra, ordea. Asko zegoen ikasteko, gehienek arrotz sentitzen zuten sinbologia hori guztia irenstea ez baitzen nahikoa; horrez gainera, iraultzaren mitoari, komunismoaren berdintasun-itxaropenari, Errepublika azpiratuaren nostalgiari edo justizia historikoari berari uko egitea eskatzen zuen aldaketak. Mingarriak izan ziren zinez, justiziaren

eta iraultzaren alde egin orde, adostasunaren eta askatasun mugatuaren alde PCEkoek egin behar izan zituzten ukapenak.

Laburbilduz, Espainia katolikoa eta monarkikoa zen Espainiako Konstituzioaren oinarria; Indar Armatuak zituen Espainiak zaindari eta babesle, haiek baitziren Espainiako lurralde-batasunaren bermatzaile. Ez zen indar zapaltzaileen (polizia eta aparatu juridikoa) garbiketarik egin. Beraz, punta-ko historiagileen idatzietan “eredugarria”, “haustura adostua”, “kontsentsu hauslea” eta gisa horretako hitzak eta esapideak agertzen direnean, badakigu gehiegikeria erretoriko baten aurrean gaudela, “haustura demokratikorik” ez baitzen gertatu.

Hau guztia esan ondoren, ezin ahaztu, aldi berean, 1977ko ekainaren 15eko hauteskundetan, jendeak bozkatzeko aukera izan zuela lehen aldiz, berrogei urteko diktaduraren ondoren. Hori ezin da, inolaz ere, gutxietsi: urrats ikaragarria zen. Eta jendeak halaxe bizi izan zuen. Euskadin ez zitzaion 1978ko Konstituzioari baietza eman, ezta ezetza ere (EAJ posibilistak bazekien “geneukantxo” beti zela aurreko hutsa baino gehiago). Espainiako indar nagusiek, Konstituzioaren bermearekin, autonomia erregimen bat adostu zuten, gaur ezagutzen dugun demokraziaren instituzionalizazioa ekarri zuena. 1979. urteaz geroztik, Autonomia Erkidego bihurtu zen Euskadi, bere burua antolatzeko eta kudeatzeko eskumen zabala duen Autonomia Erkidego, hain zuzen. Kontzertu Ekonomikoa da, besteak beste, eskumenik inpor-

tanteenetako bat, inportanteena ez bada. Frankismo luzearen mamuek uko egin zioten neguko kuarteletara betiko erretiratzeari, eta Diputatuen Kongresua hartu zuten 1981eko otsailaren 23an. Hurrengo urtean, 1982an, PSOEk irabazi zituen hauteskundeak.

ETAren erabakia

Trantsizioak indar eta ilusio ikaragarriak piztu zituen Euskadin. Ikusi besterik ez dago urte haietan (1975-1982) egindako hauteskunderen ingurumarian zenbat alderdi politiko berri sortu zen, egiazko “sigla-zopa” bat osatzeraino, ideologiaren azokatik (marxismo-leninismoa, troskismoa, maoismoa, kastrismoa...) hartutako esloganak aldarri, Marx-en “beharraren erresumatik” “askatasunaren erresumara” edo “gizakiaren historiaurretik” “gizakiaren (egiazko) historiara” igarotzeko promesa beroa ahotan zutela guztiek. Alabaina, laster amaitu zen mozkorraldi hura, edozer eskura egon zitekeelako liluramendu hura.

Franco hil zenetik 1982. urtera arte –Trantsizioko urteak tartean zirela–, Euskadik (eta beste modu batean Kataluniak ere bai) bizi izan zuen mobilizazio eta haustura gogoia ez zen alderagarria Estatuko beste ezein lekutan bizitakoarekin. Ezkerreko alderdietako eliteek frankismoaren hegal erreformistarekin negoziatzen zuten bitartean, gizarte aparta mantendu zen Espainian, baina, esan

dugun bezala, ez zen halakorik gertatu gurean, hemen benetakoa izan baitzen haustura-gogoa; hala, 1978ko Konstituzioaren erreferendumean garbi geratu zen Konstituzioak ez zituela asebetetzen Euskadiko boto-emaeleen helburuak. Hala ere, Frankismoaren aurka ETAk izan zuen protagonismo nagusiaren ondoren, Carrero Blancoren magnizidioarekin heldu zena punturik gorenera, uste izan zen posible zela diktadurarekiko egiazko haustura lortzea. Carrero Blancoren aurkako atentatuaren ostean, Historiaren aldaketarako agente aktibo gisa ikusi zuen ETAk bere burua. Baina ilusio bat zen, ispilatze bat. Franco ohean hil zen, amaiezina zirudien agonia luze baten ondoren. Eta ez zen ezertxo ere gertatu, ez hil aurretik, ez hiltzorian zegoela, ezta hil eta gero ere. Ordurako oposizioak amore emana zuen, eta ez zen haustura demokratikorik gertatu. Oposizioak ez zuen bere burua indartsu ikusten gainbehera zetorren sistema frankistari hordago jotzeko, eta otzan onartu zuen, eskainitako bide-orriaren inguruan negoziatuz, adostasunetara iristea. Indar armatuen beldur eta iraganeko Gerra Zibilaren mamua kolkoan, ez zuen oposizioak demokrazia duinago bat konkistatzeko adorerik izan. ETAk baietz uste izan zuen, baina huts egin zuen. 1978tik aurrera, berehala argitu zen Euskadiko mapa politikoa, eta alderdi gehienek bizitza laburra zutela ikusi zen.

Ezker abertzaleak bitan banatu zen: Euskadiko Ezkerra (1977an sortua eta ETA politiko-militarra atzealdean zuena) eta Herri Batasuna (1978an

sortua eta abangoardian ETA militarra zuena). Bi bide zeuden aukeran: soseguz eraikitzen ari zen demokrazia parlamentarioaren bidea eta haustura iraultzailearen bidea. Jada ETA V. biltzarretik aurrera, ezker abertzalearen ondare bihurtua zen abertzaletasuna eta iraultza lotzen zituen formula: “askapen nazionala da borroka sozialistaren ifrentzua Euskadin”.

Bata, Euskadiko Ezkerra, alegia, demokrazia parlamentarioaren arrastora etorri zen, bide bihurri, zail eta atze-aurre gatazkatsu askoren ondoren. Eurokomunismoarekin Espainiako PCEk iraultzaren bidea albora utzi zuen bezala, hala egin zuen gurean Euskadiko Ezkerrak ere (eta harekin batera ETA politiko-militarrak, 1982an); hau da, bazter utzi zuen haustura iraultzailea, eta izaera erreformista (posibilista, gradualista, negoziatzailea) onartu zuen, eta, iraultzaile askok bezala, marxismo-leninismoari uko egin ez zioten arren (1979ko PSOEren kongresuan Felipe Gonzálezek “marxismo” hitza baztertu zuen alderdiaren estatuetatik), birziklatu egin ziren demokraziaren mesedetan (nahi diren kakotx guztiekin). Eta gauza bera egin zuen autonomiaren hautuari dagokionez ere; independentziari uko egin gabe, eskura zuten eskumenen kudeaketaren alde agertu zen Euskadiko Ezkerra.

Besteak, ETA militarrek, alegia, ez zuen onartu aldaketarik, eta indarkeria armatuaren bidez haustura iraultzailearen bideari lotu zitzaion. Eta xede horretan, bortizki jo zituen Estatuaren instantzia

boteretsuenak: armada eta indar zapaltzaileak (Polizia Nazionalea eta Guardia Zibila), frankismotik zetozen goi-kargudunak (alkate eta beste), indar zapaltzaileen kolaboratzailetzat hartzen zituztenak (txibatoak), eta abar. “Haustura demokratikorik ezean, beste irteerarik ez” lelopean defini daiteke ETA militarren estrategia nagusia. Gogor tematu zen egoera tenkatzen, eta ia lortu zuen “ernamui-netan” zegoen demokrazia, artean hauskorra, estatu kolpe batek zanpatzea. ETAREN politika “la politique du pire” izan zen, “zenbat eta okerrago, hobe”. Indartzen ari zen demokrazia burgesari mo-zorroa kendu eta Estatu zapaltzailea legez kanpoko neurri makurrenak hartzera behartu nahi zuen ETAREN estrategiak, jendea “demokraziaren gezurraz” jabetu zedin. Armadaren inboluzioa erreala izan zen. Urte gatazkatsuak izan ziren: hilketak, bahiketak, atrakoak. ETA militarri eta poli-miliei Autonomoak (Komando Autonomo Antikapitalistak) gehitu zitzaizkien. Aparatu frankistek ere beren aurpegirik ankerrena erakutsi zuten: eskuin muturreko “inkontrolatuak”, “Estatu terrorismoa”, Polizia eta Guardia Zibilaren erasoak, atxiloketa indiskriminatuak, torturak, eta abar. Dinamika horrek ez zuen etenik izan 1980ko hamarkadan: ETAREN atentatuen intentsitatea areagotu egin zen; 1980an, atentatu bat izaten zen hiru egunetik behin. Beste aldetik, 1979tik aurrera, hainbat erakunde paramilitar sortu ziren legez kanpo ETAREN kontra borrokatzeko: BVE (Batallón vasco-español), ATE (Antiterrorismo ETA) eta AAA (Triple

A-ren) sortu ziren, eta horien ondoren GAL, 27 lagun hil zituen, 1983an sortu zenetik 1987ra bitartean. Nolanahi ere, Konstituzioa onartu ala ez, Euskadiko Autonomiaren bidea gorputza hartzen hasi zen apurka-apurka, eta demokraziatik kanpo geratu zen ETA militarra. Gauzak horrela zirela, haren jarduna ezin zen “terrorismoa” baino izan. Terrorismoa indarkerian oinarritutako politika egiteko modua da, baina haren logikak politikaren bidea zapuzten du. Garai hartako diskurtso marxista klasikoaren ikuspegitik, Alain Tourainek zioen biolentzia politikoa ez zela terrorismoa, baldin eta mobilizazio sozialaren eta nazionalaren onurarako bazen. 1980ko hamarkadatik aurrera, indarkeriaren aurrean gizarteak bizi zuen bilakaera (eta kontzientzia) demokratikoaren neurgailu bihurtu zen “terrorismo” hitzaren erabilera bera. Estatuak aurrez aurre garaitu ezin bazuen, eustea zegokion ETARI, “degusteko gerraren” onurak noizbait jasotzeko itzaropena galdu gabe. “Eustea irabaztea da” edo “eutsi eta aitzinatu”, ezen etorriko da eguna non Estatuak makurtu beharko duen KAS alternatiba onartzera eta egiazko haustura demokratiko baten inguruan negoziatzera. Aljerreko negoziazioetan harrapatu zuen gailurra ETAREN eskakizun-mailak; handik aurrera, etengabea izan zen gainbehera.

HBk, berriz, hauteskundeetan parte hartu zuen, baina ez zuen ardura instituzionalik bere gain hartu Legebiltzar estreinatu berrian. Kontua ez zen erakunde berriak legitimatzea. Handik aurre-

ra, ezker abertzalea (ETA militarra erreferente nagusi zuena eta Autonomia Estatutua onartzen ez zuena) bere baitan gotortu zen eta komunitate sozio-politiko paralelo bihurtuz joan zen. ETA-ren indarkeria armatua indarkeria defentsiboa zela adierazi zuen ezker abertzaleak, eta Estatuak “gure herriari” egindako erasotik defendatzeko aspalditik datorren gerra bat zela ETArena. Marxismoan proletarioak betetzen zuen lekua beteko zukeen “herriak” gurean, langileriaren eta nazioaren batasunak. “Herria”, printzipio politiko gisa, kontzeptu nagia eta iheskorra da, inondik ere. Izan ere, legitimazio printzipio erabakigarrienaren subjektu bihurtu nahi izan zen “herria”, eta haren izenean legea betetzea bera ere gutxietsia izan zen. Ez dezagun ahaztu, baina, Frantziako Iraultzaren ondoren, “herria” herritar bihurtu zela, eta herritarra dela aurrerantzean gizarte demokratikoaren eskubide subjektua. Beraz, “gure herriaren alde”, edo “herriak juzgatuko gaitu”, eta halako esaldiak entzuten genituenean, bagenekien baliabide erretorikoak zirela beste ezer baino gehiago. Izan ere, definitu beharko litzateke, halakoetan, zenbat ziren hau edo hori nahi zuten herritarrek, eta zenbat nahi ez zutenak. Herria herritar guztiok osatzen baitugu, herrian bizi garen pertsona guztiek. Horixe da, oraingoz, herritarren borondate edo nahiak ezagutzeko (eta errespetatzeko) modurik demokratikoena. Oso arriskutsua da norbanakoaren borondatearen gainetik “herria” bezalako abstrakzio interesatu eta manipulagarria jartzea.

Aljerreko negoziazioen barruko elkarrizketetan (1988) ere agertu zen halako tentaldirik; hau da, gauza bat direla botoak, eta beste bat herriaren borondatea. Ez zuen besterik adierazi ETA militarrek 1977an, esan zuenean funtsezkoa ez zela botoak pilatzea, “herriak” bere eskubideak lortzea baino. Zein urruti geunden politika demokratiko baten exijentziatik, zeren eta herritarraren nahia baita espiritu liberalaren helburu bakarra, gizakiak egiatan nahi duen hori errespetatzea. Beste kontu bat da nola harmonizatu behar diren eskubide indibidualak eta kolektiboak, ezen kolektiboaren eskubideak ere beharrezkoak baitira maiz, gizabanakoaren eskubideak errespetatuak izan daitezten. Hori da, adibidez, hizkuntza minorizatu baten aurrean erabiltzaileen borondatea errespetatzeko modua.

Estatuaren aurkako konfrontazioan ezker abertzalea izan zen haren ondorioak zuzenean pairatu zituen, modu gogorragoan nozitu baitzuen ETAREN biolentziak eragindako Estatuaren erantzuna, eta ondorioz, gerra-egoeraren sentipena barneraturik zuela, bizi izan zen bere komunitatearen baitan. Atxilotu, erbesteratu, torturatu eta hildakoen inguruan eraiki zen elkartasunak komunitate-sentipen beroa sortzen bide zion, komunitate partaideen arteko batasuna, eta etsaiaren eta lagunaren arteko bereizketa sakona. Eta horren arabera antolatu zuten balio moralen kudeaketa ere, zeinetan lagun/etsai dialektikak agintzen baitzuen. Dialektika horretan, ez zen behin ere norbanakoa izango eskubide-subjektu nagusia, kolektibitatea

bera baizik. Eta horretan deskuidatzen zena komunitetik kanpo geratzen zen. Arnaldo Otegik etika iraultzailearen eta etika burgesaren arteko bereizketaz azpimarratu zuen *Berria* egunkarian (2014-10-26); bata estrategia kolektiboan ardaztuta zegoen, eta bestea, mendebaldeko demokrazia burgesetan ohi bezala, norbanakoarengan. Pertsona indibidualen gainetik dago gizarte paralelo bateko (edo kontra-gizarteko) partaide izatearen sentipena. Militantea ez da gizaki bakartua, ez da gizaki atomizatua, konstelazio zabal baten partaide baizik.

Modu paregabearen irudikatu zuen Joseba Sarrionandiak marinel zaharren bitartez mintzagai dugun gizarte paralelo (edo kontra-gizarte, kontra-botere, kontra-estatu) horren izaera kolektibo eta kohesionatua. Klasikoengan beti izan zuen ontziak nabardura negatiboa, hauslea. Esate baterako, nabardura hori du, Horazio poeta latinoarentzat, itsasontziaren metaforak, kolokan jartzen duen ziutateaz edo zibilizazioaz hitz egitean erabiliko baita: “Oh, ontzia, uhin berriek eramango haute berriro ere itsasora!” / Zer ari haiz? Heldu hadi ausart portura”. (Oda, I, XIV)

Ontzia, beraz, arriskuan ikusten den gizartearen metaforatzat erabili zuten klasikoek. Gizarte bera metaforizatzeke, berriz, ziutatea eta jardina ziren erabilienak. Autore klasikoentzat ez ziren Odiseo eta Jason itsasoratu bidaiatzeko ametsak kilikatuta, inondik ere. Eta bataren zein bestearen egiazko desira lehenbailehen etxeratzea zen. Baina imajinario horretan bilakaera nabarmena gertatu

zen, erromantizismoaren eraginez. Handik aurrera itsasoratzeak (bustitzeak) zentzu positiboa hartu zuen eta bidaiatzea bera bihurtu zen helburu, inongo portura heldu ala ez. “Navigare necesse est, vivere non necesse” (Nabigatzea prezisoa da; bizitzea, ez). *Marinel Zaharrak* (1987) poema-liburuko poema batean, ontziaren eta marinelen izaerari buruzko galderak egiten ditu Sarrionandiak. “Itsaso debekatuak” du poemak izenburua, eta honela dio:

“Nondik datoz marinelak?
Nora doa untzia? Zergatik?
Nortzu dira marinelak?
Eta zer da untzia?”

(*Marinel Zaharrak*)

Sarrionandiaren poesian marinel horiek izen-abizenekin agertzen dira maiz; hildako lagun izen-abizenak dira. Hildako ETakideak (kontroletan, poliziarekin tiroketan, eta abar), atxilotu, torturatu, iheslari, erbesteratu eta ezein hiritako kaleetan poliziaren ihesi dabiltzan manifestariak doaz *Marinel Zaharraren* ontzian. Eta poetaren beraren hitzak erabiliz, “(guztiek) estimatzen genuenaren alde bizitzeko” hautua egin zuten, eta itsasoratu egin ziren komunitate edo gizarte paralelo baten partaide izatearen sentimendu betearekin. Koldo Izagirrereren *Non dago Basque's Harbour* poema-liburuan, imajinario bera dabil bueltaka: “Ontziaren metafora”, “Ontziaren semantika”. “Irudiaren mugak” izeneko poeman hau dio Izagi-

rrek: “Ez naiz exiliatua, ez naiz atzerritarra, ez naiz iheslaria / Ez naiz gerlaria baina umea itsasoratu egin zen”. Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* nobelako ETAkidea ere busti (itsasoratu) egiten da.

Ontziak, baina, bere hierarkia zuen: ETA militarra zen abangoardia nagusia eta KAS (buruzagitza-taldea) lemazaina; horren ardurapean, herri-erakundeak (Amnistiaren aldeko Gestorak, Komite anti-nuklearrak, auzo-elkarteak, talde feministak, eta abar). LAB sindikatua, JARRAI gazte mugimendua, Herri Batasuna erakunde politikoa, KASen aholkuetara zegoena, boto-emaileak. HASI zen langileriaren abangoardiaren muina, eta “zentralismo demokratikoaren” printzipio leninistak agintzen zuen planteamendu gisa; aldi berean, ordea, ETAREN esanetara zegoen beti. Esan dudanaren lekuko esanguratsua da HASIren ibilbidea (1978ko eta 1988ko kanporatzeak). Sobietar Barasunaren gainbeheraren ondoren, 1990ko hamarkadatik aurrera, lausotu egin zen marxismo-leninismoaren indarra, nahiz eta legitimitate diskurtsiborako tresna sendoa izaten jarraitu zuen. Ez zitzaion ezker abertzaleari interesatzen modaz kanpo gelditutako diskurtsorik; iraultzaile-igurtziko edo itxurako edozein jantzi zetorkion ondo. Baina Ezker Abertzalearen baitan independentziaren kausa zen sustantiboa eta marxismoarena adjetiboa, nahiz eta kolorea eta lustrea emateko erabili. Ez dezagun ahaztu independentismoa dela ETA erakundearen muina.

Kontra-ispilua zuen gizarte demokratikoaren balio etikoen aurrean, norberaren kolektiboarenak jarri ohi ziren, gizarte paraleloaren “ontzian” nabigatzen zutenen balioak, alegia. Azken hauentzat “demokrata zintzoak” burges-kume bihotz-epelak ziren, nabigatu ordez, hiriko etikan babestea aukeratu zutenak, bihotz-zabaltasun gabeak eta zintzotasun gutxiko jendea, egiatan mereziko luketen ametsen eta sentimendu nobleen alde egin ordez, epe motzeko kalkulu miserable eta berekoietara emanak; gaitz erdiaren argumentua onartzeko prest zegoen jendetxoa, hau da, pentsatzen zuena demokrazia –jarri nahi diren kalifikatiboak eta kaktotxak– beste ezer baino hobea dela beti. Gaitz erdiaren argumentua hain da atsegin tristea! Gauzak horrela zirela, eginak egin, “ez al ziren, bada, gure asmoak hatz bat mugitu ez zuten bihotz-epelenak baino hobekak? Intentzio bikainez abiatu ginen itsasora, baina...”.

Maiz gertatzen zait politikarien arteko jardunetan, parte-hartzaileen arteko ezin ulertuaz ohartzeara, eztabaida ez baita ezker-eskuin dialektikan ardatzen, hau da, ezker altruistaren eta eskuin egoistaren artean. Eta nolatan elkar ulertu, legitimitasun osoz ari baldin bada nor bere gizarte-eremutik mintzatzen, alde zuzenetik adostu gabe zein diskurtsotatik ari den norbera, edo sistema demokratikotik edo iraultzailetik, haien eredu etikoak eta politikoak ezkontezinak izanik? Bata-bata dispartea iruditzen zaio bestearengana, eta nola ez, bada, bata logika demokratikotik eta bestea

logika iraultzailetik ari baldin badira? Ez zuen besterik esaten Arnaldo Otegik gorago aipatutako elkarrizketan, non zioen berea “etika iraultzailea” zela eta ez “etika burgesa”, demokratikoa esango genukeena, nahiz eta Otegiarentzat “demokratikoa” demokrazia popularra edo herri demokrazia izan. Edo, beste modu batera adieraziz, biok egongo ginateke ados esanez demokrazia utopia bat ere bade-la. Hau da, bizi ez dugun baina geuretzat nahiko genukeen gizarte batetik soilik irudika ditzakegula gaurko demokraziaren gabeziak eta betekizunak. Horrek esan nahi luke badirela partekatu genitzakeen balioak; askatasuna edo justizia, kasu. Margaret Thatcherren “gizartea deitzen duzuen hori ez da existitzen” doktrina neoliberalaren aurrean, dimentsio sozialaren defentsa izan beharko luke ez-kerraren balio nagusia gaur egun. Edo ekonomia-
ren eskakizun aseezinen eskutan ez uztea politika-
ren agenda...

Hala ere, bizi dugun demokrazia da munduaren prosa, eta estimatu eta nahi genukeena bihotzaren poesia. Ez dago zalantzarik zein den ederragoa eta liluragarriagoa. Arazoa da nola planteatzen den hura iristeko bidea. Erreforma-
ren eta iraultzaren artean, perfekzioa kolpetik nahi duenaren, eta urratsez urrats, inperfekzioz inperfekzio, gauzak hobetzearen aldeko jarreraren artean, ez dago soluziobiderik. Marxismoaren “doxa” da mundua gizakiok aldatzen dugula, baina egokitu zaigun testuinguru historiko jakin batzuen baldin-
tzapean gertatzen dela gizakion jarduna, eta gure

testuinguru historikoa frankismoak mugatua eta markatua izan da. Historia tristea inondik ere. Ez genuen non ikasi izan askatasunean bizitzen; ez genuen erakunde demokratikorik ezagutu haien errespetuan hurkoa ere errespetatzen irakatsi zizunik. 1980an, bi eskuetako hatzekin konta zitezkeen, eta, soberan izango genituzke gainera, XX. mende osoan demokraziaren itxurako erregimen politiko batean bizitako urteak. Europako beste herrialde batzuetan esan zezaketen haien erakunde demokratikoak eta herritarren izaera demokratikoa parean zeudela, gurean ez. Baina demokrazia izaten demokraziaren kulturen baino ezin ikasi. Ederki azaltzen zuen George Orwellek paradoxa hori, 1944an, Arthur Koestler-i buruz ari zela, *Zeroa eta infinitua* (1947) liburuaren egileari buruzko lan batean, 1933tik aurrera, anti-totalitario izan gabe anti-faxista izan nahi zuen ezkerreko jende guztiaren bekatua deszifratu zuenean. Eta guri ere anti-frankista izatea egokitu zitzaigun, eta borroka horretan hartutako ohitura sektario asko metabolizatu genituen.

Ontzia porturatu arte, ez dago soluziobiderik auzi honetan. Bien bitartean, damurik, itsasoaren erdian beren ontzia berregin nahian dabiltzan marinelak dira ontzian itsasoratuak, zuloak estaltzeko ohol busti eta higatuak erabiltzera behartuta daudenak, ohol lehor eta sendoak erabili ordez. Eta porturatzeak esan nahi du, hiztegi politiko bera partekatzea (edo tribuko hitzen esanahietan adostasun batera iristea), balio-sistema berean oina-

rritzea eta portuko beste herritarren eskubide eta eginbide berberak izatea, ez gehiago ez gutxiago.

Historiaren irakaspenak. Alternatibak eta erabaki politikoak

Erabaki politikoez gogoeta egiten denean, erabaki hori hartu zen testuinguru historikoan protagonistek eskura izan zituzten aukeren edo alternatiben inguruan egiten da gogoeta. Beraz, politikaren inguruan gogoeta egitea politikariek, taldeek edo alderdiek hartutako erabakiez gogoeta egitea da, haien xede eta bitarteko izan zirenez; nola pentsatzen zuten, zein ustetan oinarritzen ziren, azken batean, haien unibertso politiko eta mentalaz eta zein ikuspegi filosofiko-moraletan oinarritzen ziren.

Hori guztia kontuan hartu gabe nekez uler-tu eta baloratu daitezke erabaki politiko zehatzak. Trantsizioaren urteetan (1975-1982) politikoki garrantzitsuak izan ziren datak daude: 1977 (lehen hauteskundeak), 1978 (Konstituzioaren erreferenduma), 1979 (Euskadiko Autonomia Estatutuaren onarpena), 1980 (Carlos Garaikoetxea lehendakari izan zuen lehen Eusko Jaurlaritza). Gorago azpimarratu ditugu labur-labur data horiek biltzen dituzten xehetasun historiko eta politikoak, eta ataka historiko hartan aktore politiko batzuek eta besteek hartu zituzten erabakiak. Memento historiko berean kontrako bi ikuspegi erakutsi zituz-

ten EAJ/PNVko nazionalismo historikoak eta ETA militarra/Ezker abertzaleak. Funtsean, unibertso politiko kontrajarriak ziren: bata demokraziaren aldekoa (nahi den izenondoa erantsi: kristaua, burgesa, formala, parlamentarioa..., baina beti demokrata), eta bestea iraultzailea (Estatu zapaltzailearen egiturak goitik behera eraitsi ezean, bere helburua bete gabe lukeena). Jose Migel Beñaran Ordeñana *Argala*-ren (“Argala: autobiografía política” in Jokin Apalategi, *Nationalisme et question nationale au Pays Basque*, 1977), Txomin Iturberen edo Jose Manuel Pagoaga *Peixoto*-ren unibertso politikoan bi alternatiba besterik ez ziren ikusten: erreformaren bidea edo iraultzarena (Mario Onaindia, *El aventurero cuerdo. Memorias [1977-1981]*, 2004). Testuinguru politiko-historikoan, ETA militarrek egiten duen hausnarketaren arabera, demokrazia formalaren bidez erregimen frankistak bere aurpegia zuritu nahi du (Argala, *Zutik* 69) eta Europa mendebaldeko beste demokrazia burgesengana hurbiltzeko trajea itxuratu. 1986an, Europako Merkatu Erkidean sartzearekin egin zuen Espainiak haiekin parekatzeko azkeneko urratsa. Gauzak horrela direla, ETAREN ustez ez da amaituko Euskadik jasaten duen zapalkuntza nazionala eta soziala. Horretarako, Argalak iragarri zuen bezala, euskal iraultza sozialista bat (“La revolución socialista vasca”, bere hitzetan) bideratu beharko litzateke. Beraz, ez zegoen erdibiderik berehalako eta guztizko askatasuna helburu lukeen jarreraren eta pausoz pauso gauzak hobetuko diren ustearen artean. ETA

militarra eta Ezker Abertzalea mutur batean daude eta Estatutuaren alde bildutako indarrak (PNV, PSE, EE) bestean. Mendebaldeko demokrazia liberaletan, askatasunaren lorpena prozesu gradualak, progresiboa izan da, eta ez berehalakoan lortua.

Estatua eta marxismo-leninismoa

Bi jarrera politiko nagusi izan dira historia modernoaren barruan: liberalismoa eta sozialismoa, *frères ennemis*. Liberalismoa eta sozialdemokrazia alde batean elkartuko bagenu, marxismo iraultzailea beste muturrean jarri beharko genuke, ezinbestean. Izan ere, aurkari izan arren, sozialismoaren helburua ez da historian zehar urrunegi ibili liberalismoaren bideetatik. Liberalismoaren jatorria ekonomia politikoan dago. Adam Smith eta Ricardo ekonomisten formulazioetan oinarrituz, XIX. mendeko lehen hamarkadetan hartu zuen gorputz politikoa, Benjamin Constant eta J. S. Mill-en idatzien bidez. Erreformismo liberala eta marxismoa elkarrengandik urruti egon arren, badituzte, hala ere, partekatuko lituzketen balioak: gizakia mugarik gabe hobetu daitekeen ustea, gizarte harmoniatsu baten itxaropena, askatasunaren eta berdintasunaren arteko bateragarritasuna. Batez besteko sozialista baten idealak –askatasuna, berdintasun politiko-juridikoa, berdintasun ekonomikoa eta aukera berberak– ez ziren ezkerre-

ko liberal batengandik asko aldentzen (Isaiah Berlin, *Four Essays on Liberty*, 1968).

Baina marxismo iraultzailearen erabateko berdintasunaren promesak (eta ez soilik batzuen artekoa, iraultza burgesaren kasuan bezala) erakarmen handia izan zuen intelektualen (eta pertsona xumeen) artean, buru ugari liluratzera iristerainokoa. Halako zoriontasun-promesaren aurrean (*promesse de bonheur*), mendebaldeko demokrazia liberalen askatasun politikoa, adierazpen askatasuna, kontzientzia eta pentsamendu askatasuna, jabetza pribaturako eskubidea, justiziaren eta aukera sozialen aurreko berdintasuna bezalako norbanakoaren eskubideak, sakrifikatu egin beharko ziratekeen iraultzaren aldrean. Plekhanovek (Leninekin batera, marxismoaren teorizatzaile errusiar bikainena) ez zuen horretan zalantzarik izan, 1903an –nahiz eta aurrerago iritzia aldatuko zuen–, iraultzak aginduz gero, guztia –demokrazia, askatasuna, gizakiaren eskubideak– sakrifikatu beharko litzatekeela aitortu zuenean. Halako zoriontasun promesa bati ezin ziztaion mugarik jarri, halako tortilla eder baten aurrean ez zegoen apurtutako arrautzei erreparatzen hasterik.

Kapitalismoaren desagerpena begien bistako dogma zen Marxentzat. Izan ere, Historiak, bere bilakaeran, desagertzera kondenatzen zuen sistema bidegabe hori. Eta harekin produkzio-bideen jabea, kapitalista. Ez zuen besterik iragarri Leninek *Estatua eta iraultza* liburuan. Han agindutakoa burutu zuen Errusian 1917ko Urriko Iraultzan. Gi-

zarte kapitalistatik komunistara pasatzeko orduan, tarteko trantsizio iraultzaile bat izaten da, non Estatua langileriaren diktadurapean egoten baita (*Gotharen programaren kritika*, Marx). Iraultza babesteko, zentralismo demokratikoa defenditu zuen Leninek; hau da, proletarioen interesak ordezkatzeko lituzkeen alderdi bakarra, langileriaren lorpenak bermatu eta kudeatzeko lituzkeena. Iraultzaren profesionalizazioa egongo litzateke alderdi boltxebikea, iraultzaren abangoardia. Iraultzaren bidegile izango dira aurrerantzean boltxebikeak, elite politikoa, intelektuala eta legegilea aldi berean. Langileriaren aurrean autoritate handia du, eta abangoardiako kideen eskuzabaltasuna eta argitasun zolia txalotuko ditu langileriak.

Ez ziren, baina, iraultzaren teoriko guztiak bat etorri Leninek praktikan jarri zuen zentralismo demokratikoarekin. Leninen zentralismo demokratikoa tradizio jakobinotik zetorren, eta Rosa Luxemburgek kritikatu egin zuen 1918an. Nahiz eta iraultzaren alde egon, Rosa Luxemburgentzat, 68ko Maiatzeko ikasleen artean hain ospetsu bihurtu zen iraultzailearentzat, Trotskik eta Leninek ezabatu egin zuten demokrazia (“sobiet” kontseiluak) argi eta garbi, eta haren esanetan, aldatu nahi izan zuten okerra baino kaxkarragoa izan zen erremedioa. Rosa Luxemburgen iritzian “askatasuna beti disidenteen askatasuna da”. Leninen “Botere guztia sobiet kontseiluei” iraultzaren aldarrikapenetik, edo 1920an komunismoa azaltzeko “sobietak eta elektrizitatea” hartatik, 1921eko

Kronstadt eta “sobiet” guztiak suntsitzera eta indargabetzera igaro ziren boltxebikeak. Sobieten sistemak eman zion izena komunismoaren estatu sortu berriari (Sobietar Batasuna). Langileria joera erreformistatik babestea zen alderdi bakarrak (boltxebikeak) bere buruari emandako arduretako bat, eta ahuldade erreformistaren edo gaitz kontrairaultzailearen pipiak janda zegoen Kronstadteko sobieta, nonbait.

Mende eta laurden lehenago gertatu zen Frantziako Iraultzaren (1789-1793) konkistak osatzera zetorren Errusiakoa, eta hango iraultza burgesaren askatasun indibidualari (orduko aristokraziaren eta Elizaren aurka lortuak) egiazko berdintasunarena erantsi nahi zitzaion. Robespierrearen ahalegina amaieraraino eraman behar zen, eta horretarako askatasun politikoari berdintasun ekonomikoa erantsi behar zitzaion. 1796an, Gracchus Babeuf-ek egin zuen, lehen aldiz, doktrina komunista praktikara eramateko saioa, baina huts egin zuen eta bizitzarekin ordaindu zuen, bai berak eta bai haren jarraitzaileek. 1848-1849ko iraultzetan sozialismoaren aukerak porrot egin zuen. Nahiz eta gogor zapaldua izan 1871n, Parisko Komunaren esperientziak oihartzun sinboliko eta emozional iraunkorra utzi zuen tradizio iraultzailearen barruan. Han saiatu zen estreina, labur bada ere, langileriaren agintaldi iraultzailea. Errusiako 1917ko urriko iraultzak lortu zuen aurrekoek –Babeufek 1796an, 1848ko iraultzaileek eta 1871ko Parisko komuneroek– lortu ezin izan zutena, eta halakoxea

izan zen, XX. mendean zehar, iraultzaren prestigioa, itzala eta liluramendu izugarria.

Marxismoaren muinean dagoen kontzeptu nagusia Marxen “kontzientzia faltsuaren” doktrina da, alegia, bizitza burgesaren eraginez, gizakia hainbesteraino egon daitekeela alienatua bere egiazko behar eta izatetik, non komunismoaren bidean berriro hezia beharko duen izan, benetan aske izango bada. “Kontzientzia faltsu” hori da Marxentzat ideologia burgesaren muina, norbere egoeraz eta gizarteaz, oro har, klase sozial batek duen irudi engainagarria. Hegelen filosofiari buelta emanaz, ikuspegi marxistaren kontzeptu-giltzarri hauxe adierazi zuen Marxek: ez duela gizakiaren kontzientziak baldintzatzen bere existentzia, alderantziz baino, gizakiaren existentzia sozialak baldintzatzen duela gizakiaren kontzientzia. Proletarioak burgesia garaitzen duenean amaituko dira alienazioa, objektuekin eta munduarekin ditugun harreman faltsu eta gezurrezkoak. Izan ere, proletarioa da balio unibertsalen eramailea, eta haren borroka gizadi osoarena da. Materialismo historikoaren argitara, ekidin ezinezkoa da Historiak bere dialektika ekonomikoan eta sozialean daraman bilakaera. Materialismo historikoa ez da sistema filosofiko berri bat, gehiago da azterketa sozial eta historikorako metodo praktikoa eta estrategia politikorako oinarria. Hortaz, materialismo dialektikoak dio, produkzio-indarrak garapen maila batera iristen direnean, produkzio-harremanak gaiztotu egiten direla eta egoera iraultzailea

nagusitzen dela orduan. Ez du besterik erakutsi zientifikoki Marxek bere *Kapitala* (1867) obra nagusian. Sozialismo zientifikoaren (sozialismo utopikoa baztertu ondoren) arrazoibideei jarraituz, badakigu kapitalismoa eta bere egitura instituzionalaren zimenduak, Estatuak alegia, begi-bistan dutela amaiera. Behin kapitalismoa, bere barne kontraesanen gatibu, suntsitu ondoren, ez da gehiago izango gizakiaren esplotaziorik, ez da gehiago izango klase borrokarik. Hauek dira doktrina marxistaren dogma ukiezinak.

Nahiz eta erabakita eta aurreikusita egon, langileriak garaituko duela burgesia, ez da gutxietsiko giza ekimena. Bere patua bete dezan, langileria prestatzea eta kontzientziaztea historiaren norabidean aritzea da, eta gertakizun den jaiotzaren alde, egia historikoaren alde, jardutea da norabide hori. (Indarkeria komunista “historiaren emagina” zela zioen Sartrek). Ez dago beste baliorik erabakitzeko zer den ona eta zer ez, zer den etikoki zuzena eta zer ez, komeni dena zer den jakitea baizik; hau da, norabide historikoarekin bat gatozen ala ez berrestea besterik ez dago. Leonidas Breznevек errazago garbitu zuen auzia, esanez gure gizartean morala dela komunismoaren interesarekin bat datorrena.

Marxismoa ez da, beraz, historiaren filosofia edo ikuspegi bat, baizik eta Historiaren Filosofia. Arrazoibide historikoan Marxek ez ditu balio burgesak kondenatu objektiboki faltsuak direlako, burgesak direlako baizik, eta, haien interes kla-

sisten defendatze tematian, historiaren norabide progresiboaren aurka huts egiten dutelako, egiazko bizitza eta egintzak desitxuratuz. Izan ere, objektiboki bizitza egokitu zaien une historikoan nagusi diren ideiak eta erakundeak hobetsiko ditu, gizakiak balio unibertsaleraino goratuz. Baina marxista batentzat ideia eta balio etiko horiek aldakorrak dira, ezinbestean proletarioa irabaztera eramango duen prozesuaren etapen arabera. Prozesu edo ibilbide horretan gizateria aldatu egingo da, bai eta horren balioak ere, teoria eta praktika (praxia) estu-estu lotuta baitaude.

Proletarioen abangoardia bihurtu den alderdiak erabakitzen du zein diren langileriaren zinezko interesak, eta hark erabakitzen du zertan den prozesuaren etapa bakoitzeko egia. Alderdiak biltzen ditu garai bakoitzeko gizakirik aurrerakoienak, balio berrien prozesuan aurreratuenak, eta horiexek izango dira, nola ez, bururik argienak, bizkorrenak. Haiena da azken hitza, gertaerak eta ekintzak historiaren pentagraman ondo irakurri eta interpretatzen dituztelako, betiere gizadiaren egiazko helburuei norabide egokian jarraituz. Garaiaren arabera aldatuko dira ontziko marinelek obedituko dituzten arauak, baina lemazain eta agintarien hitzari, ontziaren norabidearen berri dakitenei, zor zaien obedientzia sakratua da, haiek erabakiko baitute une bakoitzean zer den egokia eta zuzena. Alderdiak du egia absolutuaren monopolio osoa, teorian zein praktikan.

Estatua eta erreforma.

Sozialdemokrazia

Marxen ondorengo historialariek eta ekonomistek asko zor diote haren analisi eta metodologia historikoei eta ekonomikoei. Beste kontu bat da Marxen doktrinak bere baitan ezkutatzen zuen mezu profetikoa. Lehenengoan asmatu zuen bezala, bigarrean huts egin zuen. Marxentzat Estatu modernoak ezin zuen egitura zapaltzailea baino izan, ez baitzen sistema burgesaren sostengua baino, eta desagertzera kondenatuta zegoen, horrenbestez, bere baitan ardatsu zuen sistema kapitalistarekin batera. Bigarren Internazional Sozialista (1889) bildu zenerako, langileriaren kondizio ekonomikoak dezente hobetu ziren Europako herrialde askotan. Ez zen hori Marxen teoriak agintzen zuena, haren arabera, aberastasuna esku gutxitan kontzentratuko zen, eta ondorioz, langileriaren pobretze larria areagotu egingo zen. Eta profezia hori ez zen bete; areago, gauzak justu alderantziz gertatzen ari ziren, langileriaren bizitzaila hobetzen ari baitzen. Hala, Eduard Bernsteinek ozenki salatu zuen Marxen teoriaren huts hori, eta, haren beste analisi batzuk onartzen bazituen ere, Marxek (Engelsek bezala) gauza asko ez zituela behar bezala ulertu gaineratu zuen, langileriaren erabateko pobretze hori, kasu. Eta zalantzan jarri zuen hala kapitalismoaren nola Estatuaren halabeharrezko desagertzearen profezia. Salatu

zuen sozialismoaren eta iraultzaren arteko lotura banaezin hori Hegelen dialektikaren “konstruktio” artifiziala zela, eta eskubide politiko, ekonomiko eta sozialetan sakonduz posible zela boterera iristea. Pentsatu zuen estatuaren baitan eraiki zitekeela sozialismoa, hau da, “demokrazia bitarteko eta helburu zela” aldi berean. Heresia gradualista eta errebisionistatzat (erreformista) hartu zituen ideia horiek Karl Kautskyk, bere garaian Alemaniako alderdi sozialdemokrataren teorialari nagusiak. Batak (Kautskyk) marxismoaren ortodoxiaren dogma nagusiei (klaseen arteko borrokari eta hark piztutako iraultzari) eusten die, bigarrenak (Bernsteinek) dogma horien halabeharra ezbaian jarri zuen. Bi eredu buruz buru: bortxaz eragindako haustura iraultzailea edo erreforma progresiboa. Marxen teoriaren arabera, onartezina zen estatu burgesaren tresna eta aukerez baliatzea, langileria-
ren egoera hobetzeko. Sistemaren amarru bat baino ez zen hori, langileria (esklaboak, esango du Marxek) atzipetzeko asmatua. Nahiz eta erreformistek uste zuten posible zela Estatua suntsitu gabe sistema barrutik aldatzea, ez ziren konturatzen Hegelek iragarritakoaz, alegia, erakunde orok zeramala bere baitan suntsiduraren pipia. Eta horrela gertatuko zela erakunde iragankor guztiekin, gizartearen historiaurretik egiazko historiara igarotzen ez garen bitartean. Azken aldi honetan bakarrik, Proletarioak burgesia garaitu ondoren, inauguratuko litzateke klaserik gabeko gizartea: hala amaituko da betiko gizakien arteko esplotazioa.

Halaber, espiritu erreformistak marxismoaren beste dogma nagusietako bat baliogabetzen zuen, klase sozialen arteko borroka ez zuela zertan hil edo bizikoa izan; eta elkarren arteko adostasunari bidea leuntzen zion horrela. Eta jakina, horrek berarekin ekarriko zukeen giza balio komunak partekatzea, klase sozialen artean nolabaiteko konponbideetara iritsi daitekeen itxaropena. Marxek, ordea, berehala argituko zukeen auzi hori, esanez balio moralak, guztia bezala, produkzio-sistemaren parte zirela, eta gizarte-klaseen arteko balio moralak ez zirela besterengarriak, bakoitzak bereak zituela, eta azkenean, historiaren bilakaera atzeraezinean, balio unibertsalen eramaile diren proletarioenak nagusituko zirela. Gizakiek, idatzi zuen Marxek *Louis Bonaparte Brumario-18* liburuan, beren historia egiten dute, baina ez dute egiten atsegin duten bezala, ez dute egiten berek hautatutako kondizioetan, baizik eta iraganetik topatu, eman eta helarazitako baldintzen pean.

Lehen Mundu Gerrak (1914-1918) II. Internazionalaren printzipioen porrota ekarri zuen, eta porrot hori nazionalismoak eragin zuen, sentimendu nazionalista gutxietsi egin zelako klase elkartasunaren mesedetan. Erreformisten eta iraultzaileen arteko haustura ekarri zuen porrotak. Kautsky eta Plekhanov marxismo iraultzaile erradikaletik sozialdemokraziaren planteamenduetara etorri ziren, erreformismoaren bideak onartuz. Bi-biek hautsi zuten Leninen marxismo iraultzailearekin. Lehenago Kautskyk berak “errebeisionistatzat” har-

tu bazituen Bernsteinen planteamenduak, haren botika berarekin ordaindu zion Leninek oraingoan, “oportunista” eta “arnegatu” deituz. Plekhanov, berriz, 1917ko otsaileko konkistak defenditu nahi zituen, eta boltxebikeen eta mentxebikeen artean, bigarrenen estrategiara lerratu zen, sozialismo demokratikoaren tesietara.

1919ko III. Internazionala boltxebikeen Alderdi Komunista ahalguztidunaren esanetara egon zen. Sozialdemokraziak zentzuzko lorpenak zituen helburu, erreforma baketsua eta demokrazia. Komunismoa, berriz, iraultzailea zen, eta kapitalismoaren gainbehera bortxaz errematatzea zuen xede. 1917ko urriko “Neguko jauregiaren” konkistaren ondoren (gerora etorriko ziren Txina, Kuba, Aljeria, Vietnam...), gertaera epifanikoa bihurtu zen iraultzaileen artean, erasoaren bitartez irabazitako boterearen saria. Garai hartan lortu zuen marxismoak inoiz lortu ez zuen moduko liluramendua.

Frankfurteko Eskolako kideen (Max Horkheimer, Theodor Adorno, Herbert Marcuse, Walter Benjamin...) jardunean gizartera hurbiltzeko jarrera kritikoa izan zen nagusi, betiere gizarte horren eraldaketa helburu zutelarik. Bidegabekeria soziala zuzentzeko asmoak akuilatuta aritu ziren. Hortaz, teoriak eta praxiak batera aritu behar zuten elkarlanean, izan ere “kritikoa” izan nahi zuen teoriak harreman estuan jardun behar baitzuen eragitea xede zuen kolektibitatearekin. Eta ikerbide historiko horretan, kontzientzia burges mugatu

eta abstraktuan ez bezala, teoria eta teoriaren subjektua aldatu egingo ziren praxiaren eraginez. 1930eko hamarkadan, Teoria Kritikoaren jarduna historiaren filosofia marxistan oinarritzen zen. Dialektika marxistak erabakitzen du burges txikien ordezkarien (intelektual burgesaren) eta ikuspegi iraultzailearen arteko aldea. Marxek *Louis Bonaparte Brumario-18* liburuan idatzi zuen bezala, espiritu iraultzaileak burgesaren ikuspegi mugatutik harago begiratu, norbanakoaren interes, balio eta mundu-ikuspegiak gainditu eta kolektibitatearen interes politikoak besarkatzen ditu.

Frankfurteko Eskolako Teoria Kritikoak Georg Lukàcsen *Historia eta klase kontzientzia* (1923) liburuaren eragina jaso zuen, baina kritikatu ere egin zuen 1930eko hamarkadan, egileak berak 1967an egingo zuen kritika baino lau hamarkada lehenago. Lukàcsen tesien igurtzi metafisiko handiegia kritikatu zuten frankfurtarrek. “Osotasunaren”, “absolutuaren”, “identitatearen” teoria guztiak susmagarriak aurkitzen zituzten Frankfurteko Eskolakoek. Hegelek esana zuen osotasuna zela “egia biribila”; bada, Hegelen “Espiritu Absolutuaren” korrelato marxista horren aurka, hala erantzun zion Adornok, “osotasuna zela egiazkoa ez zena” (*Minima moralia*, 1951). Lukàcsen iritzian, proletarioa prozesu historikoaren subjektu eta objektu zen, aldi berean. Oinak lurrean zituen Hegel bat asmatu nahi izan zuen Lukàcsek, baina 1967an metafisikoegia iruditu zitzaion berari ere subjektu-objektuaren bateratze hori, eta baztertu egin

zuen. Horkheimer-ek zioen moduan, “Historiak” ez zion bizitzarik ematen ez kentzen inori, ez zuen ez eginbeharririk planteatzen ez konpontzen. Soilik gizaki partikularrek –beren jardunaren bidez– gainditzen zituzten eragozpenak, eta gutxitzen zituzten beren eraginez sortutako bidegabekeriak. Artean Lukàcsek *Historia eta klase kontzientzia* liburua argitaratu zuenean lausoa baino ez zena, bistaratu egin zitzairen 1930eko hamarkadatik aurrera Frankfurtekoei. Eta 1940ko hamarkadan zalantzan jarri zuten marxismo klasikoaren doktrinaren dogma nagusia, alegia, proletarioa dela iraultzaren helburu eta aktibo nagusia. Estalinismoaren arrakastaren sasoirik beteenean, 1940ko eta 1950eko hamarkadetan, marxismo klasikoaren bidetik aldentze luze bat bizi izan zuten Frankfurteko Teoria Kritikoaren kideek. Hasierako marxismo humanistatik (1932an ezagutzera eman ziren Marxen 1944ko *Manuskrito ekonomiko eta filosofikoetatik*) 1960ko hamarkadako ikuspegi liberalera etorri ziren.

Frankfurteko eskolako kideek 1930eko hamarkadaren amaieratik ohartarazi zuten doktrina marxistaren eta errealitate historikoaren arteko desfaseaz. Nazismoaren eraginez Estatu Batuetan erbesteratu behar izan zuten Eskolako kideek, W. Benjamin salbu, Espainiara pasatu nahian bere buruaz beste egin baitzuen 1940an, Portbou-n (Girona). Haien lanek, ikerketa soziologikoa eta marxismoa bateratu zituzten, baina ez ziren 1960ko hamarkada arte ezagutu European, eta ondorioz, lau

hamarkada lehenago kritikoki soluziobidean zeuden arazo (eta hutsegite) berberak errepikatu ziren 60ko hamarraldian Frantzian. Horren adibide zen, Sartreren *Critique de la raison dialectique* (1960) liburuko planteamendua bera. Ordurako salatu zuen Horkheimerrek marxismoak nozitzen zuen gaitz metafisiko endemikoa, alegia, behin eta berriz heredatutako egia-sorta dogma huts bihurtzearena. Frankfurteko Eskolaren ahaleginaren muina marxismoaren egiazko mementoak, haren ondare teoriko baliotsua, salbatzea izan zen; marxismoa giza zientzia guztien kontzientzia kritikoa eta historikoa ernaldu zuen metodologia bizia izan baitzen. Ez du besterik esaten Foucaultek *Dits et écrits III* (1994) liburuan, alegia, lastima izan zela Frankfurteko Eskolako lanak aurretik ezagutu ez izana, haiengan modu txalogarrian bideratuta zeuden arazoak artean eztabaidagai zirelako Frantzian 1960ko urteetan.

1968ko maiatzaren talaiatik

Europa mendebaldean, Bigarren Mundu Gerraren (1939-1945) amaieratik 1970eko hamarkadako petrolioaren krisira bitartean (1945-1973) hazkunde ekonomikoaren urrezko urteak bizi izan ziren. Hogeita hamar urtez jarraian, hazkundera etengabea izan zen, eta europarren bizitza-mailak ordura arte inoiz ezagutu gabeko hobekuntza lortu zuen. Ez zen hori Europa ekialde komunistaren

egoera, ezta Espainiarena ere, ekonomia autarkiko batean murgilduta baitzegoen. Alabaina, Espainiak ere ezagutu zuen ekonomiaren susperraldia 60ko hamarkada osoan zehar, bere “urrezko hamarralditxo” partikularra bizi izan baitzuen, harik eta 1973ko krisiak hura ere harrapatu zuen arte. Gerraondoko Espainia eremu mortu bat zen intelektualki; zentsurari ihes egiten zion gauza gutxi argitaratzen zen, eta merezi zuten lan gehienak Hego Amerikatik iristen ziren. Adibidez, 1949an frantsesez argitaratutako Simone Beauvoir-en *Le deuxième sexe* ez zen 1957ra arte gaztelaniara itzuli; itzulpen hori Argentinan egin zen, ordea, eta ez dakigu noiz iritsi zen Espainiara. Bada 1965ean egindako liburuaren argitalpen bat. Freuden lanak ez ziren frankisten deboziozkoak, Marxenak zer esanik ez. Eta pitinka-pitinka iristen ziren nobedadeak, berandu iristen ziren arren, frantses-kolorekoak ziren, modako kulturaren ehotik iragaziak, alegia. Baiki, Frantzia bihurtu zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren, kulturaren erreferentzia nagusi Europa osorako. Eta Espainiari dagokionez, esan behar da bertako kultura-jende progresistak ez zuela beste inorako begirik: kultura frantsesarekiko mendekotasuna erabatekoa izan zen 1960ko eta 1970eko hamarraldietan. Beste kontu bat da musika eta *pop* kultura angloamerikarra nola hedatu zen 1960tik aurrera Espainian eta Europa osoan. Esan gabe doa, azken kultura honek gazteen kontsumo ohituretan nolako

eragina izan zuen. Hala, bada, bi kultura motaz ere mintza gintezke, europar kontinentala izango litzateke aurrenekoa, gorago esan dugun bezala, frantses-kolorekoa neurri handi batean: kultura politikoa, intelektuala eta literarioa. Bigarrenaren kasuan, bizitza-ohituretan sekulako aldaketak ekarri zituen (*jean* galtzak, Coca-Cola, musika). Bi-biek, hala intelektuala nola *pop* kultura, eragin betea izan zuten belaunaldi gazteen heziketa sentimentalean. Lehendabizi aurreneko aukerari helduko zaio, bizitza intelektualari, alegia, eta aurrerago ekingo zaio bigarrenari.

Gerra aurreko Parisko abangoardia artistikoak utzi zuen ondareak, filosofia existentzialistaren modak eta literaturak izugarri lagundu zuten Frantzia Europako kultura erreferentzia bazterrezin bihurtu zedin ostera ere. Jean Paul Sartre, Albert Camus eta Simone Beauvoir, nobelagile, intelektual eta existentzialistak (nahiz eta Camusek beti ukatu atxikitze hori) bihurtu ziren modako izenak intelektualen artean. Sartreren *L'Être et le Néant* (1943) eta *L'existentialisme est un humanisme* (1946), Simone Beauvoiren *Le deuxième sexe* (1949) edo Camusen *L'homme révolté* (1951) liburuak dira modako irakurketak. 1947an *Les Temps Modernes* sortu zuen Sartrek Merleau-Ponty-rekin batera, urte askoan puntako aldizkari intelektuala izan zena. Hantxe eman zen marxismoaren inguruko eztabaidarik famatuena, Sartreren eta Camusen ordura arteko adiskidetasuna betiko zapuztuko zuena. *L'homme révolté*-ren argitalpenaren ondoren gertatu zen, eta

iraultzaren gaian ardaztu zen eztabaida. Gerra ondorengo urteetan, 1940eko eta 1950eko hamarkadetan, “doxa marxista-leninista” zen nagusi Paris-ko intelektualen arteko pentsamendu politikoan. Eta garaiko kezka intelektual nagusia zen Sobietar Batasunaren aurrean zer jarrera hartu. 1960ko hamarkada arte marxismoa izan zen mendebaldeko sistema ideologiko alternatiboa, Biblia ordezkatzuz gizakiaren interpretazio globala bihurtzeraino: gaizkiaren jatorria (produkzio-bideez jabetu direnak), gizatxarrak (kapitalistak) eta salbabidea (langileria). Historiaren aldeko uhinari bizkarra ematen dioten “kriminalek” Jainko kristauaren aurka altxatutako bekatarien pareko lirateke. (R. Aron). Eta iraultza zen sistema salbatzaile horren muina, zeinak Frantziako ezkerreko klase intelektuala xarmaturik zeukan.

Gizakiari eta munduari begira, Sartreren eta Camusen arteko aldeak ez ziren nabarmentzekoak. Sartreren *Izatea eta ezereza* eta Camusen *Sisiforen mitoa* edo *Izurritea* (1947) liburuen artean, adibidez, bazeuden diferentziak, sakontasun eta anbizio filosofikoaren aldetik, baina ez ziren espiritualki unibertso filosofiko desberdinetatik sortuak. Esan nahi dut bietan zegoela abiapuntu bera: Jainkoa hil da eta unibertsoak ez dio ez argirik ez babesik eskaintzen bizitzaren abenturari. “Gizakia pasio ezdeusa da”, Sartreren *Izatea eta ezereza* liburuan. Biengan zegoen egitasunaren aldeko borondate zintzoa, eta ilusio eta lilura faltsuak (engainagarriak) baztertzeko gogoia. Biek zuten giza kon-

dizioaren mugatasunaren kontzientzia, bai eta existentzia bakarra eta mugatua izatearen sentipen larria ere. Askatasuna eta benetakotasuna ziren, existentzialismoaren altzoan, 1960ko belaunaldiak maileguan jaso eta bereganatu zituen balioak. Askatasunak, baina, aukeratzera behartzen zuen gizakia, munduak ez zuen beste zentzurik norberaren jardunarekin ematen zaionaz harago. Nork bere buruaren ardura zuen, norbera zen bere hautuen eta ekintzen azken arduradun. Eta, ibilbide horretan, bere bide-lagunak aukeratzen zituen.

Orain arte esandakoekin ez genuke bi egileen arteko erabateko konponezintasunik aurkituko. Baina 1950eko hamarkadako Sartre 1940ko urteetako *Izatea eta ezerezaren* gizakiaren bakardade hutsa (abstraktua) atzean utzi eta 1960ko liburu-eramango zuen bilakaera marxistan murgilduta zegoen. Existentzialismoaren larrimin burges intelektuala alde batera utzi eta “Materialismo historikoaren” esanetara errendituko da, langileriaren eta gizarte-borrokaren norabidearekin elkartasunean aritzeko. Historia bilakatu zaion filosofia da aurrerantzean marxismoa, gizakia bere osotasunean, bere egoera historiko zehatzetik abiatuta, mundua ulertzeko gai den antropologia bakarra. Ez da Jainkoagan sinesten, bai ordea Historian.

Camusen “Gizaki matxinatuarentzat”, berriz, dialektika marxistak askatasunaren ukazioa zekarren berarekin. Camusek honako interpelazio hau egiten dio marxismoari, edo onartzen da helburuak bitartekoak ere justifikatzen dituela, krimena

ere legitimatuz, edo aurrerantzean uko egiten zaio marxismoari, filosofia absolutu gisa hartuta. Ez du berez iraultza gaitzesten, baizik eta bortxaz konkistatutako boterearen ideia, alegia, ekintza prometeiko eta erromantikoaren irudi hori. Tarrou-k, Camusen *Izurritea* (1947) nobelako pertsonaiak, honela dio: “Arbuiatzea erabaki dut, modu batera edo bestera, zuzenean edo zeharbidez, inor hiltzera edo beste batzuk hil dezaten justifikatzera eraman-go lukeen oro”. Camusen kasuan, ez da halakorik justifikatzen duen Jainkorik, ez Historiarik, ezta hizki larrizko Arrazoirik ere. Izan ere, beste nonbait dioen bezala, historiarekiko erantzukizunak askatu egiten gaitu gizakiarenganako erantzukizunetik. Nobelagile eta intelektual gisa, Camusek ikuspegi moral batetik jardun zuen. Urte horietan komunismoaren makurrak bistaratzea ez zegoen ondo ikusita Parisko ezkerreko intelektualen artean; Gerra Hotzeko giro politikoan, Inperialismoari (Ameriketako Estatu Batuei) jokia egitea zen hori. Sartreren ustetan aukeratu beharra zegoen bakoitzak bere burua non kokatu. Esango nuke 2001eko “Dorre bikien” aurkako atentatuaren ondoren ere, melodia bera entzuten zela isilean.

1955ean Raymond Aron-ek *L'Opium des intellectuels* liburua argitaratu zuen, Marxen esaldi famatua irauliz (“Erljioa herriaren opioa da”). Marxismo-leninismoak eta iraultzak sorginduta zeuzkan Parisko intelektualei zuzendutako kritika politiko-filosofiko zorrotza zen. Aronen pasioa politikoa da. Aron ez da ari ongiatz eta gaizkiaz,

politikoki egokiago edo higuingarriagoa denaz baizik. Ikuspegi liberal batetik idatzitako lana zen, nahiz eta Parisko ezkerreko muturretik kontserbadoretzat jo. Liberal batek ez luke alderdi ahalguztidunik onartuko, ez askatasuna ezabaterik, ezta boterearen arteko nahasmenik edota inongo buruzagirik gurtzerik ere.

1956an indar sobietarrek Hungaria inbaditu zuten, eta orduantxe hasi zen poliki-poliki desegiten komunismoaren mitoa. 1968ko maiatzaren inguruan halako loraldi moduko bat, *revival* moduko bat bizi izan zuen marxismoak, baina gainbehera atzeraezinean abiatuta zegoen. 1974an Solzhenitsinen *Gulag artxipelagoa* salaketa-liburuaren argitalpena izan zen errematea. Liburuak konmozio izugarria eragin zuen ezkerreko intelektualen artean. Ez zuen beste inon izan Frantzian izan zuen eraginik, eta aldaketa ideologiko galanta eragin zuen. Handik urte batzuetara, 1980. urte inguruan, eskuinaren lerroetara pasatu ziren orduara arte maoista izandako ez gutxi; *Nouveaux philosophes* (filosofo berriak) deitzen moda izan zen. Hauentzat bide zuzena zegoen Hegelen Espiritu Absolututik Stalinen Gulagera. 1968an, Praga okupatu zuten Brezneven tankeek, eta ordurako itsuena ere konturatuta zegoen komunismo sobietikoa indar zapaltzaile eta totalitarioa baino ez zela. Hala ere, ez zen faltako inperialismoaren (Ameriketako Estatu Batuak) politikaren ondorioztat ikusi nahi izan zuenik sobietarren jokabidea. Izan ere, hor

zegoen Vietnam, eta geroxeago Hego Amerikako kolpe militarrek, Txile (1973), eta beste.

1960ko hamarkadaren talaiatik, egokia da galdetzea iraultzaren liluraren zergatiaz. Giza borrodatearen autoafirmazio eta autodeterminazio erradikalen estreinako kapitulua Frantziako Iraultzaren oholtzan jokatu zen. Egunen eta orduen igarotze isilaren harian gertatzen den erabateko haustura da iraultza, eta historia berri baten ilusioaren itxaropena, non zoriona gizaki guztiona izango den. Utopia gauzatu horretan gizakia aske eta autonomo izango da betiko. Parisko Komunaren (1871) egunetan, erlojuei egiten omen zieten tiro komuneroek, bidegabekeriaren aroaren amaiera sinbolizatuz eta garai berri baten ilusioa konjurratuz era horretan. Agintaritzan eta legean ardaztutako indarkeria-harremanak ezabatzeko, iraultza eta orgasmoa bateratuko dituzte 68ko maiatzeko ikasleek. Denbora historikoa gainditzeko (eta ezabatzeko) aldarrikapen ludikoa zen, irudimena eta sormena arrazoimenaren aurkari ziren. Hala ere, “gerezi denbora” (*Le temps des cerises*) laburra izan ohi da, hala 1871ko Parisko Komunan nola 68ko maiatzean, baina kantak zioen moduan, bihotzetan utzitako oroitzapena sakona izan zen. Halaxe zioen Georges Moustakik ere garai beretsuan: “Je déclare l'état de bonheur permanent” (Betiko zoriontasun egoera deklaritzen dut).

Adierazpide eta hezurdura izan zuen ideologia gezurtatu ondoren ere, handik luzera iraun zuen

bizirik iraultzaren lilurak, xarmak, sentimenduak. Errealitatearen frogen aurka, noiz arte defenditu iraultzaren irudi klasikoa? Marxen gaurkotasunaz ari zela, hala zioen Horkheimerrek 1968an, Marxek uste ez zuen norabidea hartu zuela Historiak. Berak aztertu zuen kapitalismoan ez zuela aurrera egin proletarioen behartasun larriak, ezta ezta-ndarik egin ere espero zuten iraultzak. Eta halako entusiasmoa bildu zuen Leninen eta boltxebikeen komunismoak ere ez ziotela Marxek iragarritako “askatasunaren erresumari” justiziarik egin. Beste utopia batzuk sortu ziren 68ko maiatzaren inguruan: ekologistak (gero Berdeak), feministak, gay eta lesbianen taldeak, antinuklearrak, antimilitaristak, eta beste. Mugimendu sozial horiek ez ziren ezker-eskuin dialektika klasikoaren gatibu izango.

Frankfurteko maisu zaharren irakaspenak gorabehera, Sartrearen ospea izugarria zen Frantzia (eta Europa osoan), intelektual gisa. Urte haietako kultura eta politikaren konstelazioan izarrik distirantena zen bera. Intelektual burgesaren “kontzientzia dohakabea” gainditzeko materialismo dialektikoa besarkatu zuen. Hala ere, marxismo ortodoxoa dogmatizatu eta anemikoa aurkitu zuen: “marxismoa gelditu egin da”. Hura biziberritzeko existentzialismoaren legamia txertatu nahi izan zion marxismoari, marxismo existentzialista bat xede. Existentzialismoarekin batera, Parisko eskuizkribuetako (Marx gaztearen idatziak) Marx humanista berreskuratzen saiatu zen. Marxismo humanistak solidarioa izan nahi zuen, bertan giza-

kia ez zen gehiago “alienaturik” sentituko lanarengatik, lagun hurkoarengatik edo norbere buruarengatik. “Batzuen boterea eta besteen etsipena” desagertzen da halako eraldaketa sozial batean, eta subjektu eta objektuaren, existentziaren eta esentziaren eta izadiaren eta gizakiaren arteko bereizketa amaitzen da betiko. Existenzialismoa, marxismoa, alienazioa, 1968ko belaunaldiaren hiztegi filosofiko-politikoan modan zeuden hitzak ziren.

Sartrek gizarte burgesa eta bere sistema politikoa, liberalismoa (norbanakoaren oinarrizko eskubideak, bozketak, pluralismoa) arbuiatu egiten zituen (“burgesia lurperatu egin behar dugu, berarekin lurperatu behar badugu ere”), eta haren aurkako indarkeria inbokatu zuen Frantz Fanonen *Les damnés de la terre* (1961) liburuari idatzitako hitzaurrean: “Europar bat hiltzea harri batez bi txori hiltzea da, zapaltzaile bat eta zapaldu bat ezabatzea, aldi berean”. Aljeriako gerra antikolonialean bete-betean sartuta –1962an lortu zuen Aljeriak independentzia–, metropoliaren interesen aurkako biolentziaren aldarria da Fanonen liburua. Indarkeriaren eta iraultzaren aldeko haizeak iristen ziren hirugarren mundutik eta deskolonizazio gerratan askapen nazionalaren alde borrokatzen ziren herrialdeak: Kuba, Aljeria, Vietnam. Marxen aldarri ospetsuena parodiatuz, proletarioen faltan, hirugarren mundua bihurtzen du Sartrek iraultzagune: “Azpigaratuetako herritar guztiok, elkar zaitezte”. Gerra hotzaren bi blokeen artean harrapatuta, ekialdearen eta mendebaldearen artean, “hiruga-

rren mundua” aukeratu zuten 1960ko hamarkadako ikasle matxinatu askok ideologia gisa. Hasi Maoren Txinarekin eta Fidel Castroren Kubarekin amaitu. Ikasle matxinatuen artean gehien inbokatu ziren figuren artean hirugarren munduko askatzaileak daude: Mao, Castro, Che Guevara, Ho Chi Minh. Horiek ziren Europako belaunaldi gazte, ezkertiar eta iraultzaileen lilura asetzen zuten ikonoak. Sobietar Batasuneko Breznev zaharraren komunismo zurrunaren ordeztu, hirugarren munduak aseko ditu (modu bikarioan) Europa aberatsean ezinezko bihurtu zaizkien ametsak.

1960an gertatu zen Khrustxev-en Sobietar Batasunaren eta Maoren Txinaren arteko krisia, komunismoaren esparrura banaketa ekarri zuena. Hala, 60ko hamarraldian, Mao Zedong-en marxismo-leninismoaren bertsio txinatarrak (maoismoak) hartu zuen iraultzaren lekukoa. Maok Stalin ordezkatu zuen, eta haren “liburu gorriak” (Krutwigek euskaratua) Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren historia loriatsua. Maok erreformistatzat jo zuen handik aurrera Sobietar Batasuneko komunismoa.

Txinako iraultza kulturalarekin batera (1966-1969) jo zuen Maoren ospeak gailurra Europa mendebaldean, irakasle, artista eta intelektual txinatarren aurkako jazarpen kanpaina bete-betean zegoenean. Eric Hobsbawm historialari marxistak *How to change the world* (2011) liburuan esaten duen moduan, Montesquieuk *Gutun pertsiarrek* idatzi zuenean Irani buruz ezagutzen zuenaren

parekoa zen Txinako egoerari buruz mendebaldeko iraultzaileek ezagutzen zutena. Maok liluratu egin zuen Parisko intelektual jendea: Barthes, Sollers, Kristeva. Sartrek berak ere “La cause du peuple” argitalpen maoista banatzen amaitu zuen 1974an (1973etik aurrera *Liberation* aldizkari maoistaren sortzaileetako bat eta eragile nagusia izan zen). Sartre ohartua zen ordurako, 68ko maiatzeko ikasleen mugimenduari batera, ideien historia-ko kapitulu bat amaitzen ari zela, eta maoismoak beste atal berri bati ematen ziola hasiera. Esan gabe doa, ideien historian amaitzen ari zen kontakizuna marxismo klasikoaren kapitulua zela, alegia, ordu arteko Sobietar Batasunak hezurramitu zuen komunismoaren eta iraultzaren kontakizuna. Alde horretatik, 1968ko maiatzeko iraultza antiautoritarioa Frantziako alderdi komunistaren (PCF) ortodoxia zurrunaren aurkako mugimendua ere izan zen, eta ikasle matxinatuen talde ideologiko aktiboek, nahiz eta gutxiengoa izan, maoismoaren eta trotskismoaren banderak aire ratzen zituzten, PCFk ordezkatzen zuen komunismo zaharkitua- ren aurka. Izan ere, Alderdi Komunistak ez zuen iraultzarik nahi, Estatuaren erakunde barruan eroso bizi zen eta. Gainera, George Marchais alderdi buruak gainetik begiratzen zien unibertsitateak eta kaleak hartu zituzten ikasle matxinatuei, abe-raskumeak baino ez baitziren harentzat. PCF eta sindikatuentzat, berriz, “abenturismoa” baino ez zen ikasleen matxinada. Izan ere, zer iraultza klase egin nahi zuten ikasleek? Halakorik! Norbaitek

egitekotan, langileen zeregina zen hori. Ikasleena ez zen iraultza bat, festa bat baizik. 68ko maiatzeko ikasle matxinatuekin elkertasuna adierazteko milioika langilek grebara jo zuten, baina PCFk eta sindikatuek urak bere bidera ekarri zituzten soldatak hobetzearen truk, eta hori horrela gertatu zen komunismo ortodoxoak ez zuelako iraultzarik nahi. Gainera, iraultza klasikoaren sasoa joana zen. 68ko maiatzeko ikasle eta gazteen mugimenduak beste norabait begiratzen zuen, eta harako ez zuen balio marxismoaren bulgata zaharrak, bai ordea handik eratorritako hirugarren munduko utopia iraultzaileak (maoismoak, kastrismoak, Che Guevara, Vietnam). Gazteen horizonte berrietan espiritu antiautoritarioa, anti-hierarkikoa, libertarioa eta gazteen arteko halako anaitasun bat izan ziren nagusi Parisen, Berlinen eta Erroman. Eguneroko bizitza aldatu behar zen *hic et nunc*; horretarako harreman pertsonalak eraldatu behar ziren. Mugimendu hauek garapen desberdina izan zuten herrialdeen arabera: Estatu Batuetan kontra-kulturan (kultura *hippya*) eta komunitate alternatiboetan gauzatu zen; Alemanian komunitate libertarioen mugimendua indartsuagoa izan zen Frantziakoa baino.

Baiki, 1960ko eta 1970eko marxismo-leninismoaren gainbeherak ez zuen atzerabiderik, nahiz eta halako paramarxismo moduko bat hedatuta zegoen giroan, edo, Guy Debord Internazional situazionistak esan zuen bezala, 1968ko marxismoa “hizkuntza mailegatu” moduko bat zen; kontua da

ore zaharrez diskurtso berriak itxuratzen ari zirela. Raoul Vaneigem situazionista belgikarrak –68ko maiatzeko ikasleen giro ideologiko eta emozionala islatzen asmatu zuen *Traité de savoir-vivre à l'usage des jeunes générations* (1967) liburuaren egileak–esan zuen leninismoa Kronstadteko marinelei iraultza zer zen tiroka irakastea zela.

Autoportrait á soixante-dix ans (1976) liburuan, Sartrek idatzi zuen 68koa izan zela une batez askatasunaren pareko zerbait (askatasuna egintzan bertan) gauzatu zuen aurreneko gizarte-mugimendu garrantzitsua. R. Aron ez zen bat etorri Sartrekin hartan ere. *La Révolution introuvable. Réflexions sur les événements de mai* (1968) liburuan idatzi zuen hura ez zela iraultza bat izan; ezkertiar nostalgikoentzat soilik izan zela halako zerbait, hau da, estalinismoaren ondoren, utopiaren titia kenduta, betidanik amestutakoa aurkitu zutela sinetsi nahi izan zutenentzat soilik izan zela hura iraultza libertarioa, alegia, iraultza ez tiranikoa ez burokratikoa. Aron errealista eta antipatikoa gertatu zen gazteentzat, are gehiago “errealismoa” eskuineko hitza zenean “ezinezkoa” eskatzeko prest zegoen ikasle jendearentzat. 1968ko maiatzeko giroan ospetsu bihurtu zen esaldi hau: “Nahiago dut Sartrekin deskuidatu, Aronekin arrazoia izan baino”. Aronek esango du Estatu Batuetako, Alemaniako edo Frantziako ikasleak ez zirela marxismo-leninismoaren izenean matxinatu, baizik eta gizakiaren jatorrizko eskakizunengatik. Batez ere norbanakoaren anomiak bultzatuta, hau da, kreatibitatea,

autonomia, egiazkotasuna eta askatasuna bahituta (alienatuta) dauzkan kontsumo-gizartearen kontra kaleratu zirela unibertsitarioak; nahiz eta zuzeneko demokrazia eskatu, ideologiarik gabeko matxinada izan zela neurri handi batean, xede gabekoa, ez zela ikasleen helburua boterea lortzea izan. Aronek gerora ospetsu bihurtu zen “Psikodramaren” definizioa eman zuen. Gizarte industrial eta modernoaren balio hutsalen ukapena zen. Aurreko iraultzetako estilo eta *atrezzoarekin*, baina iraganeko biolentziarik gabe egin ziren maiatzeko manifestazio erraldoiak, aurreko iraultzak bezain deklamatorioak bai, baina biktimarik gabe. “Aurpegirik gabeko iraultza” (Edgar Morin). Toni Judt-ek *Postwar. A history of Europe since 1945* (2005) liburuan iradoki zuen moduan, ikasleek idatzitako esloganek kaleetako paretetan –eta ez garai hartako liburu sakon eta mamitsuetan– jasotzen zuten matxinatuen egiazko espiritua. Eta modu umoretsu eta alaian idatzitako esloganetan frustrazioa islatzen da, baina ez hiraz idatzitako aldarri bortitzik. “Maitasuna egin, ez gerra”. Ordu arte inoiz ezagutu gabeko anbiguotasun ideologikoak eta helburu zehatzekiko atxikimendu faltak erabat nahastuta utzi zuten helduen mundua, “zaharren” mundua, haien ideologia eta utopia zurrinak (demokrazia-tik komunismoraino). Eskema zaharrekin ezin zen ulertu 68ko maiatzean gertatu zena. Sistema osoak sentitu zuen oinarrien ahulezia. Ez zen gizartearen egiturarik eraldatu, baina sakona izan zen maiatzeko ikasleek Berkeleyn, Berlinen, Parisen, Milanen,

Turinen edo Varsovian barrena jaurtitako aldarriek utzi zuten arrastoa.

Aronentzat, 1960ko hamarkadako ikasleek arrazionalismoaren aurkako errebeldia erromantikoa hezurmamitzen zuten. Gizarte industrial aurreratu, konplexu eta modernoan atariko protestak izan ziren. Herbert Marcuseren *One-Dimensional Man* (1964) liburu arrakastatsuan aurkitu bide zuten ikasle matxinatuek bizi zituzten egoera hutsal eta itxaropen zurrun askoren arrazoiak. Aroni aldez aurretik erantzungo balio bezala, bere arrazionaltasun guztiarekin ere, ongizatearen Estatua askatasunik gabeko Estatua zen. Ongizate kontsumista eta aberatsaren aurkako manifestu erabatekoa zen Marcuserena.

Marcusek Estatu Batuetatik idazten zuen, hango beltzen albotik, Hegoaldeko hirietan arraza gutxiengo bati ukatzen zitzaizkion eskubide zibilen alde borrokatzen ziren ikasleen ikuspegitik, eta nola ez, Vietnamgo gerraren aurka. Baina bereziki *beatnik* (“*Don't but me, man -I'm beat*”, Utzi bakean, nazkatuta nago) eta *hippyen* mugimendu libertarioetan jarri zuen arreta, eta sisteman integratu ordez, “kontsumo gizartearen” onurei mingaina atera eta bizitza alternatiboen alde egiteko asmoa zutenekin lerratu zen. Nekaezina da Marcuseren ahalegina iraultzaren pindarren peskizan, sistemak integratu gabeko talde alternatibo eta bazterrekoen inguruan egiten duen miaketa-lana, soilik haiengan balego bezala iraultza haizatze-ko erregai: Estatu Batuetako gutxiengo beltzak,

ikasleak, hirugarren munduko deskolonizazioaren alde borrokatzen ziren mugimenduak, talde alternatiboak, anti-sistemak, eta abar. Gorago aipatzen genuen arrazionaltasunaren gizarte industrial aurreratuen aurrean, halako fronte zabal bat eraiki nahiko zukeen Marcusek, berak *The new left* edo “Ezker berria” (ezker zaharretik bereiziz) izenarekin bataiatu zuena. Ezker berri horrentzat jada ez da proletarioa klase iraultzailea, eta ideologikoki ere ez da marxista ortodoxoa. Betiko ideologiaren aurrean erne jartzen da, artean formarik hartu ez hartu dabilen sentiberatasun berri baten eramaile baita harentzat ikasleen mugimendua. Ez gaude jada marxismo klasikoaren paradigma berean. Marcusek arbuizaten duen arrakastaren gizarte “autoritario-demokratikoan”, berak *one-dimensional society* gisa famatu zuen hartan, gizartean integratu ala ez da funtsezko bihurtuko zaion baldintza. Eta 1960ko hamarkadara arte langileria izan bazen indar iraultzailea, aldatu egin da jada lekukoaren eramailea, ezen langileria ongizatearen gizartean integratu baita mendebalde aberatsean.

Ez zuen beste helbururik *Eros and Civilization* (1955) liburu ospetsuak ere, Freuden teorien eduki transgresoreaz baliatzea proposatzen baitu gizarte zapaltzaileari aurre egiteko. Erosek bizitzaren aldeko indarrak biltzen ditu: sexua ez dago zergatik erreprimitu zibilizazioaren mesedetan. Eros eta Thanatos, sexua eta errepresioa, plazeraren printzipioa eta errealitatearena. Freuden *Kulturaren ondoeza* liburuan oinarritzen da transgresioa eta

askatasun sexuala iraultzaren borrokara erakartze-ko saioan. Bera izan zen lehenengoa lan munduko gizakia eta desioaren gizakia solasean jartzen. Eta 68ko maiatzaren ingurumarian, “desioa” ezkerreko balioa zen eta “errealitatea” eskuinekoa. Eta, nola-bait ere, Erich Fromm Frankfurteko hasierako eskolakideari idatzitako erantzuna zen liburua. Erich Fromm psikoanalista kulturalista zen eta entzute zabala lortu zuen 1960ko eta 1970eko hamarkadetan.

Hala, Erich Frommen psikoanaliaren helburua pazientearen integrazioa zen, mendebaldeko gizartearen balioetan ahalik eta erosoan txertatuta bizitzea. Marcuseren ustetan, Freuden teoriaren potentzialtasun kritikoa eta iraultzailea desaktibatu eta zikiratu egiten zen horrela. Garai bateko (1930eko hamarkadan) gizartearen kritiko zorrotza izan zena *statu quo*-aren ideologiara lerratu izana aurpegiratzen zion Marcusek Frommi, gizarte amerikarrarekin nahastu zuela Freud-en errealitatearen printzipioa; eta horixe bihurtu zen Frommen psikoanalisia Ameriketako ideologia bat. Lacan-entzat ere ez zen besterik Ameriketako psikoanalisia, “*american way of life*” sistema konformistara makurtze doilorra. Izan ere, lanerako, familia izateko eta gozatzeko gai zen gizakia zuen psikoanalisia ortodoxoak helburutzat, Frommen ustetan. Lan egin eta gozatzeko (sexua) gaitasunak dira Freudentzat bizitza osasuntsuaren kondizioak. Zoriontasuna ez zen helburu Freudentzat; alderantziz, guztiz pesimista zen gizakiaren zoriontasunari

zegokionez. Frommek, berriz, sinesten zuen (edo sinetsi nahi zuen) posible zela zoriontasun poxi bat gure gizartean. Horrela, bada, Marcuseren iritzian hori ideologia baino ez zen; izan ere, gizarte errepresibo batean norbanakoaren eta gizartearen zoriontasuna kontraesan larrian zeuden, eta zorionaren balioa bera errepresiorako tresna bilaka zitekeen. 1960ko hamarkadan, Alemaniako giro kulturalean gertatu zen, batez ere, sexuaren eta politikaren txirikordatzea (Marcuse, Fromm, Reich). Marcusek Frommi eskainitako erantzuna da *Eros and Civilization* liburuko epilogo: “Errebisionismo neofreudianoaren kritika”. Ezin titulu adierazgarriagorik asmatu.

Freuden eta Marxen arteko solas honetan, Wilhelm Reich psikoanalista eta marxistaren lehen lanak izan zituen aurrekari (edo bidelagun) bakar. Gero, Reich freudismoaren eta marxismoaren ortodoxietatik aldendu zenean, sexuaren dimentsio kosmikoaren zeruan galdu zen, eta burua lausoturik, Estatu Batuetako kartzela batean eman zituen bere azken egunak. 68ko maiatzaren inguruan ospetsu egin zen haren *Orgasmoaren funtzioa* liburua. Marcusek, psikoanalisiaren esparruan ezkerreko hegali kokatzekotan, Reich bakartia jarriko zukeen bertan; beste guztiak eskuinekoan.

Marcuseren iraultza-goseak argi ikusi zuen non ez zegoen zer eginik, alegia, iraultzaren lekukoa historikoki eraman zuen gizarte-klaseak, langileriak, ez zuela horren beharrik. Baina, ideologiak ideologia, 1960ko hamarkadaren erdi aldera

sozialdemokrazia gehiago zen bizimodu bat, kontu politiko bat baino. Ongizatearen gizartea ere bizimodu bilakatu zen, eta langileriaren bizi-kalitatea asko hobetu zen, gizarte osoaren onuraz gero eta gehiago disfrutatzen zuenez. Gauzak horrela zirela, M. Walzer filosofo komunitaristak Marcuseren *One-dimensional man* liburua kritikatu zuen, esanez “zenbat eta hobeto, okerrago” leloan erortzen zela, eta hori antidemokratikoa zela.

1968ko apirilean Teoria Kritikoaren bilduma-lanari idatzitako hitzaurrean, begi onez ikusten zuen Horkheimerrek garaiko ikasleen mugimendua (zerbait hobearen egarria, gizarte zuzenago baten irrika, emanda zetorkien egoerara egokitzeari ezetza ematea). Ez zuen modu berean ikusten indarkeriaren erabilera, antzua zeritzon eta. Haren hitzetan: “Bere akats eta guzti, hala-holako demokrazia beti da hobea, diktadura baino”. Eta pentsatzen zuen askatasun indibidual hauskorrari eutsi egin behar zitzaiola, beti dagoelako mehatxupean. “Aukeran, salbatu beharko litzateke garai batean liberalismoa deitzen zen hura: gizabanakoaren autonomia”, idatzi zuen. Estatu totalitarioetako ikasle eta gazte matxinatuek ere (Varsovia, Praga) ez zuten besterik lortu nahi, ez zuten sozialismoaren aurka egiten, baizik eta gizabanakoaren autonomia eza salatzen zuten. Hala, harrituta geratu ziren Pragako erreformistak, Rudi Dutschkek (Marcuseren jarraitzaile leialak) Berlingo ikasle matxinatuen buruak bisitatu zituenean, 1968ko “Pragako Udaberriaren” testuinguruan, eta haren

ahotan behin eta berriz entzun zutenean demokrazia pluralista zela benetako etsaia. 1968ko udazkenean, Pragako “giza aurpegiko sozialismoaren” aldarri askatzailea Sobietar Batasunaren diktadura sozialistako tankeek isilarazi zutenean –bidenabar esanda, Fidel Castrok ere babestu zuen inbasioa–, objektiboki gezurtatzen ari zen Dutschke ikasle mendebaldarraren (objektiboki aberatsago eta askeagoaren) iritzia.

Pragan gertatu zena, ordea, zaharra zen jada; bi mende luze hartzen zituen utopia baten azken txinpartak ziren. Azken berrogeita hamar urteetan mundu osoko intelektualak, baina batik bat mendebalde aberatsekoak, sorgindu zituen marxismo iraultzailearen mitoaren desegite luzearen beste kapitulu bat itxi zuen Pragakoak. 1989ak markatu zuen azkenekoa. Hala ere, Berlingo ikasleek banderatxoak egin zituzten garaiko hiru izar berriekin: Marx, Mao eta Marcuse. Eta ikasle italiarrek eslogan deigarri hau: “Marx da Jainkoa, Marcuse haren profeta eta Mao haren ezpata”. Seguruenik, ez zuten urruti izango Thomas Hobbesen honako gogoeta honen oihartzuna: “Ezpatarik gabeko erabakiak, hitz hutsak baino ez dira”. Maoren eragina handia izan zen Italian, eta haren “boterea fusilaren puntatik sortzen da” formula bere egin zuten Berlin eta Milan/ Turingo ikasleek, eta saiatu ere saiatu zuten biolentzia iraultzailearen sendabide taumaturgikoa. Hiru M-ek (Marx, Mao, Marcuse) eta praktika troskistek erakarri zuten bat baino gehiago Baader-Meinhof bandara (RAF) Alemanian eta

Brigada Gorrietara Italian. Sartrek Andrea Baader bisitatu zuen 1972an kartzelan, eta 1973an Muniqueko estadio olinpikoan israeldarren aurkako atentatua txalotu zuen. Indarkeriaren lilura handia bazen ere, intelektual gehienek ez zuten pauso hori eman, indarkeriaren xarma gorabehera. Utopia bat amaitu zen eta berriak loratzen hasi ziren. Diskurtso hegemoniko baten azken txinpartak ziren, eta horiek ahitzearekin batera, berriak hasi ziren bistaratzen: ekologismoa, feminismoa eta beste.

1973ra arte iraun zuen 68ko maiatzaren eragin askatzaileak. Urte hori, baina, 70eko hamarkada markatu zuen krisi ekonomikoaren hasiera izan zen. Ordu arteko desio eta utopia pertsonal eta existentzialen irrikak lurrundu egin ziren. Jendeak lan egin behar zuen bizitzeko. Krisiarekin 1960ko hamarkadako alaitasun eta anaitasun sentimenduak epeldu egin ziren; 1970eko hamarkada, aurrekoaren kontrakoa izan zen, grisa eta indibidualista. Bigarren Mundu Gerraren ondoren hasitako hazkunde ekonomikoak gailurra jo zuen 70eko hamarkadan. Hiru hamarkada iraun zuen hazkundeak, eta 60ko hamarkadaren amaieran zuen bizitza maila inbidiagarria ekarri zion Europako mendebaldeari. 1970eko hamarkadako krisi ekonomikoaren eraginez, 1960ko urteak utopien urte zoriontsu gisa ere ikusiak izan ziren, nostalgia igurtzirik falta ez zitzaion begiratu batean.

Bigarren iraultza industrialaren oinarrian egon ziren altzairu eta labe garaiak krisian sartu

ziren (gogoratu Euskal Herriko 1980ko hamarkadako birmoldatze industrial), eta 1980tik aurrera Luc Boltanskik eta Eve Chiapellok *Le nouvel esprit du capitalisme* (1999) liburuan deskribatutakoaren arabera, kapitalismoaren hirugarren fasean sartu ginen, nazioarteko kapitalismo finantzarioan. Kapitalismo zaharberrituak berreskuratu egin zituen 1960ko hamarkadako gazteen aldarrikapen nagusiak eta bere espiritu eraberritura egokitu zituen. Enpresetako aginte eta hierarkien malgutzea izan zen ondorioa, eta handik aurrera enpresa munduan ere autonomia eta sormena bezalako balioak lehenetsi ziren. Beraz, 68ko maiatzeko mugimenduetan bizitza betearen xede ziren hainbat aldarrikapen (askatasuna, autonomia, sormena, benetakotasuna), 1980tik aurrerako kapitalismo berriaren espirituak gizarteratu egin zituen: Autonomia bizitza pertsonalean, afektiboan eta lanekoan; sormena lan-esparruan eta bizitzan, norbere buruaren gauzatze (garatze) mugagabea; konbentzio sozialen gainetik, benetakotasuna bizitza pertsonalean; eta askatasuna zentzu zabalenean, sexualitatetik abiatuta (*“jouissez sans entraves”*) (gozatu eragozpenik gabe). “Kontsumo gizartearen” aurrean 1960ko belaunaldiak erakutsi zituen erreparoa desagertu egin ziren 1980tik aurrera, eta ironia bat ez balitz, pentsa zitekeen 68ko maiatzeko mugimenduen aldarrikapenak handik hamar urtera kapitalismo berriak zekarrenera hobeto egokitzeko saio bat izan zirela. Gainera kontsumorako gonbitak, *marketing* eta publizitate kanpainetan oinarriturik, 1960ko

hamarkadako “desioaren” merkantilizatzea izan zuen ondorio. Esan gabe doa, kapitalismoaren eztarri hondogabea Marxen eta Marcuseren kritikekin (izan langileriaren askatasun borroka edo “gizarte kontsumistaren” mamuak) hazi egiten zela, biziberritu, eta kritikaren indarrak desaktibatatu ondoren, aldarrikapena bera bihurtzen zuen kapitalismoak kontsumorako gai. Inork 1960ko urteetan pentsatu baldin bazuen desioaren erabateko liberazioak kapitalismoaren hil-kanpaiak joko zituela, ederki tronpatu zen. 1980tik aurrera, gizarte postmodernoen kultura ohiturak, kontsumo ohiturak eta bizimodu postmodernoa bistaritzen hasi ziren. Marcusek iragarri bezala, *drugstore* kultura joango zen hedatzen, eta aurrerantzean kultura jasoa eta subalternoa parekatuta aurkituko ditugu saltoki amaigabea bihurtu den gizartean, Platon *Penthouse*-ren ondoan.

Perry Andersonek esan zuen eskuinera egin zuen transfuga asko eman zuela maoismoak Paris-en. Moda intelektualetik ere izan zuen maoismoak. Espainiako 1970eko hamarkadako intelektual askoren gaitza ere izan zen, gehienak mimetismoz kutsatuak. Honela kontatzen zuen urte batzuk geroago Felix de Azuak eraginaren sorburuaz *El aprendizaje de la decepción* (1989) liburuan: bera ere maoista egin zela Parisko intelektualak hala zirelako. Baiki, Frantziatik zetozen era guztietako berrikuntzak besoak zabalik hartzen ziren Espainia artean modernizatu gabeen. Ordurako, baina, iraultzaren mitoa desegiten ari zen eta ametsetik

esnatzeko ordua iritsi zitzaion Europa mendebaldarrari. 1970eko hamarkadan “Hirugarren munduko” iraultza komunisten itxaropenek porrot egin zuten banan-banan (Mao Zedongen Txina, Vietnam, *boat people* eta Kanbodiako kolonizazioaren ondoren, Pol-Pot eta Khemer Gorriak...). 1981eko Mitterranden garaipen sozialistak iragan bihurtu zuen marxismo-leninismo-maoismoaren herentzia iraultzailea Frantzian, edo aurrerago ikusiko dugun bezala, teoria unibertsitarioen zereginetara mugatu zuen. Gizarte mendebaldarretan aurrera eramanezina bihurtu zen komunismoarekin jarrai genezakeen, baina beste bide batzuk saiatur (unibertsitate eta kongresu, argitalpen, eta abar). Handik aurrera, giza eskubideen ideal berriak ordezkatu zuen komunismoaren idealak.

Gizakiaren heriotzatik etikaren itzulerara

Nahiz eta ez den lan honen helburua 1960ko hamarkadako pentsamendu joera guztien sintesia egitea, saihestezina iruditzen zait estrukturalismoaren (eta postestrukturalismoaren) zertzelada nagusi batzuk eskaintzea, ikusirik 60ko eta 70eko urteetan Frantziako panorama intelektuala eraberritu zutela, eta 80tik aurrera, “Teoriaren” (“*French theory*”) estalpean, Ameriketako Estatu Batuetan lortu zuen arrakasta kontuan hartuta. Gerra ondoren, pentsamenduaren esparruan (humanismoa,

personalismoa edo fenomenologiarekin batera) existentzialismoa izan zen filosofiaren joerarik arrakastatsuenen Frantzian: “Aske izatera kondenatuta gaude”, “Bizitza proiektu gisa”, “Gizakiak egiten du historia”. Egoera hura ordezkatzera etorri zen mugimendu estrukturalista, giza zientzietako esparru guztiak ikuspuntu eta ikerbide berriekin kutsatu zuena. Pentsamendu joera gisa, Louis Althusserrengandik Michael Foucaultengana, estrukturalismoaren aldarrikapen deigarriena bere anti-humanismoa izan zen. Halaber, Ferdinand de Saussuren hizkuntzalaritzaren eraginez, Claude Levi-Strauss antropologoaren azterbide “topologiko” eta binarioetatik, Jaques Lacan psikoanalistaren hizkuntzaren bitartez eraikitako inkontzienteraino zabaltzen zen estrukturalismoaren eta (post)estrukturalismoaren esparrua.

Gainera, postestrukturalisten idatzietan marxismoaren teorizazioa ere eraberritu egin zen, batez ere Althusserren lanetan. Neurri handi batean, filosofia alemanaren (Marx, Nietzsche, Heidegger eta Freud) aldaera frantsesa edo ifrentzua zen postestrukturalismoa. *Lire le Capital* (1963) liburuarekin marxismoaren interpretatzaile teoriko nagusia bihurtu zen Althusser. Ez zuen inoiz Alderdia (PCF) utzi, ezta Alderdiak “zentralismo demokratikoa” “zakur bat abandonatzen den moduan”, bere hitzetan esateko, ezabatu zuenean ere. Ikuspegi estrukturalistaren bi joera nagusiekin bat etorririk (psikologia eta historizismoa metodologikoki bazter-

tuta), Marxen bigarren sasoiaz arduratu zen, hau da, *Kapitala* (1867) helburu zuen Marxen etapa zientifikoaz, egilearen hasierako sasoi humanista albora utzirik.

Descartesengandik Kantenganaino Mendebaldeko tradizio metafisikoak inoiz gainetik kendu ezin izan zuen arrazoimenaren subjektu kartesiarra, giza kontzientziaren muina eta humanismoaren eta kontzientziaren zimendu zena, baztertu egin zuen ikuspegi estrukturalistak. Subjektuaren teoriarik gabe, subjekturik gabe eraikitako Marxen *Kapitalaren* analisisa eskaintzen du Althusserrek. Spinozak filosofia modernoaren sorburu izan zen subjektu kartesiarra gezurtatu egin zuen, nahiz eta berea garatu gabe geratu filosofiaren historian. Hortik dator Spinozaren berpizkundea Althusserren eta bere ikasleen artean (Gilles Deleuze, Jacques Ranciere, Toni Negri...). Gaur egun, “Modernitate alternatibo” gisa, modan dago Spinoza pentsamendu filosofiko ezkertiarrean.

Foucault nietzschearrak ez du Althusserren zientziarekiko deboziorik erakutsiko, baina partekatzen du haren ikuspegia diskurtsoaren eta praktikaren aldebereotasunari buruz. Bi pentsalariak datoz bat ideiak eta ekintzak batera (eta ez bi arlotan bereiziz) landu behar direlako ustean. Eta biak daude interesatuta domeinu sistemen salaketarekin. Honaino baina kointzidentziak. Foucaultek marxismoaren kontzeptu giltzarri bat kritikatu du, ideologiarena, esanez Althusse-

rrren zientzia/ideologia (egia/gezurra) oposizio binarioan oinarritzen dela. Gainera “ideologiaren” kontzeptuak “ideien” subjektua eskatzen duela, eta Foucault anti-humanista ez zegoen ikuspegi subjektibistarik onartzeko prest. Diskurtsoak agintzen du subjektuaren ideien gaitetik, eta diskurtsoaren osotasunean barreiatzen da subjektua. Objektu gisa gizakia hartzen duten giza zientziek, gizakia dute orobat subjektu gisa, baina bere burua estrukturalistatzen inoiz izan ez zuenak, “gizaki” horren heriotza iragarri zuen *Les mots et les choses* (1966) liburuan: “Jainkoaren heriotza ez baino (...) Nietzscheren pentsamenduak iragartzen duena haren hiltzailearen heriotza da”, Foucaultekin “gizakia” noiznahiko ebidentzia bat izatetik, historikoki eraikitako diskurtso bat bihurtu zen. Gizaki unibertsala mistifikazio bat zen harentzat. Modu berean, ezagutzaren eta botere esparruen arteko harremanaz kezkatu zen. Foucaulten lanek 1960ko politika anti-autoritarioaren barruan gihar sentibera bat ukitu zuten, ezen 1970eko hasieratik bertatik hedatu ziren feminismoaren, homosexualitatearen edo anti-psikiatria mugimenduen legami bihurtuko baitira.

Lacanen hizkuntzaren bidez antolatutako inkontzientzian eratzen den subjektu ardatzik gabeak Althusser, Baudrillard eta Deleuze eta Guattarirengan izan zuen eragina. Funtsezkoa da hemen Lacanen “Ni”aren (batasun imaginarioa duen figura) eta subjektuaren (hizkuntzarena beste ardatzik ez

duen izaera) arteko bereizketa aipatzea. 1972an *Anti-Edipoa. Kapitalismoa eta ezkizofrenia* liburua argitaratu zuten Deleuze eta Guattarik. Lacanen teoriatik abiatuak, kapitalismoaren egoeraren kritika zehatza egin zuten. Freuden Edipoaren konfigurazioaren ardura umeengandik gurasoengana pasatuko dute Deleuze eta Guattarik, izan ere, gurasoak bihurtuko dituzte ez soilik umearen desioen errepresioaren arduradun, baita desioaren beraren eragile ere.

Althusser, Foucault eta Lacan, Marx, Nietzsche eta Freudekin solasean jarri ditugun modu berean, jarri genezake Jacques Derrida Heideggerrekin. 1968an “Egilearen heriotza” iragarri zuen Roland Barthes edo Pierre Bourdieu soziologoa dira postestrukturalismoaren beste izen bazterrezinak. Arrazoimen harroaren kontra, dekonstrukzioak erakutsiko du ez dagoela osorik koherentea den testurik, eta dekonstrukzioaren zeregina izango da, asmo harro horiek deseginez, inkoherentziak atzematea. Baina, Fredric Jameson marxistak *The political unconscious* (1984) liburuan adierazi zuen moduan, ikuspegi marxista batetik begiratuta, subjektuaren barreiatze hori, eta gaia azaltzeko erabili diren teoria psikoanalistak kontuan hartuta, funtsean, subjektu ideologiko burgesaren desegitearen seinale dira. Ikuspegi marxista batetik, subjektu indibidualaren desegite hori soilik talde ekintza eta auzolana berrasmatuz gaindi daiteke, bizitza sozial bateratu berri eta original batetik soilik gaindi dai-

teke subjektu burges zaharraren autonomia monadiko bakartia. Horrelako egoera batean, kontzientzia indibiduala ere gauza bizia izan daiteke, eta ez soilik “*effet de structure*” gisa teorizatua (Lacan, Althusser). Izan ere, “teorizismoan” erortzea izan zen Althusserren akats nagusia, beste hainbeste Poulantzaren kasuan; Eric Hobsbawm historialari marxistak *How to Change the World* liburuan zioen bezala, Althusserren jarraitzaileek Marxen *Kapitala* liburua epistemologiako tratatu batekin nahasten zuten.

Pentsalari horiek guztiek ez dute onartzen bere ekintzen arduradun litzatekeen subjektu aske-rik (estrukturen, diskurtsoen edo inkontzientearen morroi dira norbanakoak); unibertsaltasunaren aipurik ez da onartzen etnozentrismoaren salaketarik gabe; ez da onartzen egintzen eta egintzen gaineko diskurtsoen arteko bereizketarik (Foucault), ez egiaren eta interpretazioen artekorik. Askatasuna, azken batean, ilusio bat zen. Humanismoak, berriz, kontrako tesiak aldeztuko ditu.

Etikaren berpizkundek “gizakiaren” itzulera dakar. (Post)estrukturalismoan, fikzio ahistoriko bat baino ez zen “subjektutik” –ez da ahaztu behar “subjektuaren heriotza” dekretatu zuela postestrukturalismoak– askatasunaren, kontzientziaren eta norbere ekintzen arduradun izango den subjektu batera pasatuko gara. Estatu demokratiko-liberaletan kontsokratutako eskubide politiko eta zibilen oinarrian giza eskubideen ideia dago. Giza eskubide “unibertsalak” (ez 1789koak, baizik eta

1948koak). Giza eskubideak Holokaustoaren errautsetatik sortu ziren; 1948koa da adierazpena, eta Auschwitz gogoan zela erredaktatu zen. Giza-kiaren duintasuna eta errespetua urratu ezinezko balio bihurtuko dira aurrerantzean, eta inongo helburu kolektiboren izenean zapaldu ezingo den muga marraztu zuten. Eskubideen adierazpenaren oinarrian norbanako moralak dago. Eta gizakiaren duintasunaren errespetu hori ez dago giza izaera abstraktu batean oinarritua, baizik eta giza historian; aurrerantzean moralaren behararen kontzientzia ez da etorriko arrazoimenaren eskakizunetik, edo ez bakarrik arrazoimen ilustratutik, horroaren oroimenetik baizik. Emmanuel Levinasen etikak eta Solzhenitsinen *Gulag artxipelagoaren* agerpenek “subjektuaren” eta “etikaren” itzulera bideratu zuten. Aurrerantzean moralak egongo da ezein kritikaren ardatzean. Demokraziaren helburua izango da giza eskubideen balioak eta pluralismo moralak eta kulturalak harmonizatzea. Pluralismoak derrigor dakar berekin liberalismoa, planteamendu politiko gisa. Pluralismoak ez du esan nahi uko egiten zaionik “egiaren” bilaketari, baizik eta uko egiten zaiola norberak egiazat daukan hori inori indarrez inposatzeari. 1980ko hamarkadatik aurrera, giza eskubideen idealak ordezkatu zuen komunismoaren itsasargia.

Althusserren ikasleak (garai batean maoistak) izan dira komunismoaren (edo posmarxismoaren) ondarea Mendebaldeko unibertsitateetatik aldarrikatu dutenak, gaur arte: Rancière, Balibar,

Alain Badiou, Chantal Mouffe. Horiei Toni Negri, Michael Hardt, Slavoj Zizek eta Ernesto Laclau gehituko bagenie, ezkerreko ikuspegi post-modernotik apailatutako zerrendatxoa osatuko genuke. Mendebaldeko sistema parlamentarioa eta demokratikoki eratutako subjektu politikoa-ren legitimotasunak ezdeus dira komunismoaren ondarearen defentsa bere gain hartu duten filosofoentzat. Marxismoaren esparruan, Hegelengandik Kantengana etortzea errebisionismo seinaleztat hartu izan du ezkerrek beti, etika kolektibotik norbanakoaren eskubide moraletara itzultzea bezainbateko atzerapausoa. Eskuin alderako urratsak dira betiere; eta zer esanik ez demokrazia, gizarte zibila, tolerantzia, pluralismoa eta halako terminologia modan jartzen duen gizartea. Kapitalismo berantiarren hezurdura ideologiko berria litzateke hori. Zientzia politiko berriak modan jarritako terminologia politiko berria: kontratua (kontraktuala), konstituzioak, hiritartasuna eta gizarte zibila. Althusserren ikasleak ziren, halaber, *Nouveaux philosophes* deituen izen nagusiak, Andre Gluksmann eta Bernard-Henry Levy. 68ko eta 70eko maoista ohi haiek, errebisionista traidore bilakatu ziren 80ko hamarkadatik aurrera Alain Badiouentzat. Baita Regis Debrais bera ere, Althusserren kuttuna, zeina Bolivian atxilotu zuten, 1967an, Che Guevararekin batera borrokatzera hara joana zelarik; Regis Debraisek manifestu iraultzaileak argitaratu zituen 1969an; 1981tik aurrera, ordea, Miterranden gobernuan egon zen. Kautsky errebisionista

arnegatutzat jo zuen Leninek; Kautskyk berak, baina, argumentu berbera erabili zuen lehenago, Bernstein sozioaldemokrata kritikatzeko. Txinak 1960ko krisialdian Sobietar Batasunari aurpegi-ratutako argumentuak dira horiek, Kautsky eta “errebisionismo sozialdemokrata” aipamenak erabiliz. 1964an, Santiago Carrillok Fernando Claudín eta Jorge Semprún PCEtik kanporatze-ko erabili zituen “anatema” errebisionismoa da. Eta gisa horretako argudioak erabili zituen ezker abertzaleak ere, 1990eko hamarraldiaren hasieran, Txema Montero eta Iñaki Esnaola kanporatzeko. Errebisionista izatea zen iraultzaile batentzat egin zitekeen bekaturik larriena. Errebisionista erre-formista bat da, Estatua goitik behera eraitsi ordez, barrutik eraldatu daitekeela uste duena. Horixe izan zen Trantsizioko urtetako eztabaida, horixe oposizio antifrankistari planteatu zitzaion ordezk bidea. Batzuek erreformismoaren bidea aukeratu zuten, eta ETAk eta ezker abertzaleak iraultzaren bidea.

1971n, John Rawls-ek *Justiziaren teoria bat* (2008) (*A Theory of Justice*, 1971) liburua argi-taratu zuen. Liburu eragingarri horretan agertzen den demokraziaren, etikaren eta justiziaren ikus-pegiek erreferentzia aparta izaten jarraitzen dute, gaur egun arte, gizarte demokratikoetako ezta-baiden eta adostasunen inguruan. Halaber, Jürgen Habermasek, Frankfurteko Eskolako jarraitzaileak, *Komunikazio ekintzaren teoria* (1984) liburuan ira-dokitzen zuen moduan, halako tamaina du gaur

egun gizarte modernoen konplexutasun-mailak, non kontrolaezinak gerta litezkeen errotikako ezein eraldaketaren ondorioak. Beraz, “iraultzaile” hitza zentzu metaforikotik harago ahotan darabilenak aitortu beharko luke horrelako politikaren ondorio larriez zer dakien eta zer ez.

Trantsizioa Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995) eleberrian

Egunero hasten delako da Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberria. 1968ko apirilean amaitu zuen idazten Friburgon, Suitzan, eta 1969an argitaratu zen. Nobela bi planotan garatzen da, inoiz elkar ukitu gabe, nahiz eta lehenengo planoa (berritsuaren jardunak) bigarrenaren (Durkheimen abor-tatzen duen neska, Gisèle Sergier) ibileren zelatan dabilen etengabe. Lehenengo planoko berritsuaren ahotan adin ertaineko pertsona ikasi baten eza-gutza eta erreferentzia kulturalak testuratzen dira (Max Weber soziologoaren erantzukizunaren eta sentimenduaren moralen berri badu), batik bat garaiko giro intelektualean modan zeudenak. Horrela entzuten ditugu berritsuaren ahotan existentzialismoarekin eta marxismoarekin lotutako hainbat “topiko”: “alienazioa” (“pentsa noraino kendu eta aldatuko diguten geure izana... geure egiazko izana”), “gainegitura eta azpiegitura” (*Hamaika pausoko* hiztegitileak, Iñaki Abaituak, azkeneko hitz horrexekin hasi nahi izango du prestatzen ari

den hiztegia). Sartreren “L’homme est une passion inutile” (gizakiaren ahaleginak alferrikakoak dira), “existentzialismoa” (“Ni ez naiz jada, modatik pasea dagoelako, baina beti maite izango dut existentzialismoa”). Ez da faltako surrealista izandako poetaren (Jacques Prevert) poesiarik. Baina, bai berritsuari, bai Gisèleri, buruhauste handienak dioxosozko moralaren aldetik datorkie, moral katolikoaren eta Eliza Amaren aldetik. “Zein da zure morala?”, galdetuko zaio abortatzera doan neskari. *Egunero hasten delako* nobelaren unibertsoa bi mundu hauetan banatzen da: zaharren mundua eta gazteena, tartean dabil berritsua, batari eta besteari buruz jarduteko irrikaz, zaharrekin kritiko eta gazteen patuarekin ulerkor. Sexua ugaltzetik bereiztea izango da belaunaldi gaztearen aurreneko lorpena. Sexu kontuetan, Frantzian (eta Espainian zer esanik ez) artean pentsamolde zaharra zen nagusi 60ko hamarkadan, Eliza katolikoaren moralaren gatibu zen neurrian. Abortua bekatu da, beraz. Hala ere, orduantxe hasi ziren zirkulatzen plazera eta *jouissance* bezalako hitzak gazteen artean. Mundu zaharrarekin hautsi ondoren, maitasunaz eta sexuaz hitz egingo da, bi hitzak bereiziz (edo ez). Gisèlek lotu nahiko ditu sexua eta maitasuna (“sexua hutsa da hitzik gabe, poesiarik gabe, musikarik gabe, alegia”). Jende zaharraren eskuetan zeuden Estatua, Eliza, irakaskuntza, ginekologia eta beste, eta gazteek jasaten zituzten haien gurasokeria dogmatikoaren ondorioak.

Arrazoi moralen izenean eraikitako harresi dogmatikoak gairatu nahi dira. “Pilulak” ez ziren kaltegarri emakumearen osasunerako, askatasun promesa eta iturri baizik. Kontrazepzioaren auzian emakumearen esku egon behar zen erabakia, ez beste inorenean, nor bere gorputzaren jabe da (“nire gorputza neurea da”). Aldarrikapen hauek (dibortzioa, abortua, kontrazepzioa), 18 urterekin botoa emateko eskubidea, 68ko maiatzaren agendan egon ziren, eta hurrengo hamarkadan gauzatu ziren Europako herrialde aurreratu eta demokratikoetan. Erresuma Batuan 1967an despenalizatu zen abortua. 1971ko apirilean, Kode Penalaren aldaketa eskatzen zen Frantzian, abortua egina zuten 343 emakumek *Le Nouvel Observateur* astekarian sinatutako eskaera baten bidez. Sinatzaileen artean zeuden Simone Beauvoir eta Françoise Sagan idazleak, Catherine Deneuve eta Jeanne Moreau aktoreak, edo Gisèle Halimi aktibista politikoa. 1975ean legeztatu zen abortua Frantzian. Italiak 1978an egin zuen, baina Espainiak 1985era arte itxaron behar izan zuen. 1960ko hamarkadak gaztaroa deskubritu zuen. Ordu arte umeez eta helduek osatzen zituzten gizartearen adin-estamentu nagusiak. Baina, 1960ko hamarkadan, indarrez bistaratu zen gaztaroa, gizarteko estamentu dinamiko eta aldarrikatzaile gisa, zaharren (gurasoen), irakasleen eta beste erakundearen autoritatea zalantzan jartzen zutela.

68ko maiatzeko protesten abiapuntua ikasle-egoitzen barne-araudia kuestionatzea izan zen;

ikasleek egoitza mistoak eskatzen zituzten, neska-mutilek aukera izan zezaten beren artean harreman askeak izateko. Belaunaldi gazteak ez zuen bizi nahi gurasoen ohitura zurrunetan, haien balio eta pentsamoldeetan. Eta gurasoen mundua, ordu-ra arte hain segurua, bat-batean ahul agertu zen, azpia janda bezala, durduzatuta. Maitasuna, sexua, askatasuna, aldarrikapen politikoekin nahastu ziren, baina ez iraultzaren zentzu klasikoenean, baizik eta artean forma garbirik hartu ez zuen aldarrikapen humano jatorrizkoenetan oinarritu nahi zuen; “barne mundua ere (maila) politikora” berreskuratu nahi zuen, era berean. Bizitza betea go baten aldarrikapena zen, askatasunak, autonomiak, benetakotasunak eta sormenak bizitzan leku bat izatea eskatzen zuen gizarte baten aldarrikapena.

Hamaika pausoko protagonista nagusia filologoa da; hiztegi bat egiten dihardu baina, aldi berean, obsesionatuta dago idazten ari den eleberriko protagonistaren sumarioarekin, *Hamaika pauso* deritza nobelari. Liburuak –Iñaki Abaitua fikzioko protagonista idazten ari denak– Daniel Zabalegiren atxiloketa, kondena eta fusilatzea kontatzen ditu. “Beste” nobelan –benetakoan–, hiztegirako materialak, alegia, hitz bakoitzaren definizio logiko eta zehatza daukaten fitxak, hainbestearino kutsatzen dira fikziozko idazleari nagusitzen zaizkion bizipen existentzial eta afektiboez, non, azkenean, filologiaren zehaztasun zientifikoari obeditzeari utzi eta nobelagilearen oroimenaren zerbitzura jartzen

baitira. Filologoaren porrotak eleberrigilearen garapena dakar.

Ez du, baina, alferrik proposatu hiztegitikileak “Azpiegitura” izatea hiztegitiko lehen hitza. “Azpiegiturak” ETAREN azpiegitura adierazi nahi du, atentatuak egin ahal izateko beharrezkoa den logistika eratzea. Baina, horrez gainera, esanahi marxistaz baliatuz, esan daiteke ETA bihurtuko dela 1968tik aurrera belaunaldi gaztearen erreferentzia nagusi eta horren “gainegitura” (pentsamendu, ideia eta mundu-ikuspegia) goitik behera baldintzatuko duena, hainbestearino non, handik aurrera, 68ko belaunaldia “belaunaldi gatibutzat” ere kontsidera daitekeen, bere urterik onenetan ETAREN gatibu biziko baita.

Hamaika pauso nobelako trama 1973-1984. urteen bitartean gertatzen da. Trantsizioaren urteak bete-betean harrapatzen ditu, eta Trantsizioaren periodizazioen artean zabalena hartzen du. Franco hil zenean, 1975ean, hogeita hamar urteren bueltan zebilen belaunaldiaren unibertso politiko, sozial eta kulturalean elikatzen da nobela. Hemen ere, Juliaren etxean, Hondarribian eta Bartzelonako Coll de Portellen elkartzan ziren lagunak gazteak dira, unibertsitate-ikasketak amaitutakoak jada, eta espezializazioa egiten ari zirenak, edo Iñaki Abaituaren kasuan bezala, profesional gazteak. Baina ikasle unibertsitarioren itxurako pisuetako batean biltzen dira Bartzelonan. Esan nahi dut bizitza unibertsitario ezaxola eta malgutik gertuago daudela oraindik lan mundu arduratsu-

tik baino, artean gazte, helduen erantzukizunetara saltoa emateko. Eta haietako bakarren bat berrogei urteren bueltan badabil ere, nahiago du aukeran helduaren estatusari bizkarra emanda bizi. Bartzelonako Coll de Portelleko bilkuretan sexua, orgasmoa eta (psikologikoki) euskaldunen “oralitatea” dituzte hizpide, betiere igurtzi intelektual, transgresore, alternatibo eta ludikoa agerian. Hondarribiko Juliaren etxeokak (Ion Igartua, Alberto Pardo, Arantza Olabe, Abel Osa, Ane Aristi, Iñaki Abaitua eta Julia bera), existentzialismoaren esparruko estutasunaz, hiltzeko beldurraz eta kezka metafisikoez aritzen dira, marxismoaren esparruko “burges txikiaren penitentziaz”, “burges txikiaren errebeldiaz”, “burges txikiaren kontzientzia txarraz eta iraultzaz”, eta halakoez.

Franco hil bitartean, antifrankismoak biltzen ditu ideologikoki Juliaren etxeok lagunak; handik aurrera, Trantsizioak aurrera egin ahala, norik bere bidea hartzen du. Ordura arte ETAREN borroka denon borroka baldin bazen, Franco hil eta handik urte gutxira, ez da halakorik gertatzen; borroka jada ez da antifrankista guztiena, eta aldatu egiten da garai bateko ETAKO kideen sakrifizio, adore eta padezimenduekiko elkartasun-aitormena. Abaitua bera, lagunari ezetza emateko adore faltagatik, eta hein batean bere izaera koldarraren kontzientzia txarragatik, endredatu egiten da Eduardo Ortiz de Zaraterekin, “Zigor” ETAKO kidearekin. Trantsizioaren azkeneko urteetan, Abel Osa, garai batean borroka armatuarekin kritikoena zena, ETAREN

estrategia armatura lerratuko da bere marxismo-leninismoari (maoismoari) jarraituz. “Moja maoista” deitzen dio Iñaki Abaituak Aneri, Abelen neska-lagunari. Ion Igartua EAJren zerrendetan aurkezten da hauteskundeetara eta, Trantsizioko urteek aurrera egin ahala, tirabira bat baino gehiago izango du Abel Osa maoistarekin. Bata erreformismoaren bidetik zebilen, bestea iraultzaren bideari lotuta. Baina, Ionek Hondarribiko etxean iragarri zuen moduan, “amaitu zen festa”. Hori iragarri zuena azkena izaten zen beti Juliaren etxetik alde egiten, frankismoaren garaian; hartan, berriz, lehenengoa izan zen. Baina alde egin baino lehen, honako hau bota zuen Abel Osari begira: “Gauza bat da multikopistari eragitea, eta beste bat industria antolatzeke gai izatea”. Alberto Pardo madrildarra ere despeditu egin zen, esanez bera ere Madrilera itzultzen zela, aitaren enpresan lanean hasteko tenorea iritsi zitzaioela eta. 1979 edo 1980. urtea zen, eta Albertorentzat ere “amaitu zen festa”: heldua izaten hasteko garaia iritsia zen. Bai, 68ko maiatzeko matxinada ekaineko oporrekin amaitu zen Parisko eta Europa mendebaldeko ikasleentzat, oporren espiritu ludikoa eta iraultzailea errebindikatzuz amaitu ere. Eta hemen ere lehen hauteskunde “demokratikoekin”-ez 1977koekin, baina bai 1979koekin- amaitu zen “iraultzara” jolasteko tenorea. “Iraultza elkarrekin asko egotea da”, esan zuen *Hamaika pausoko* protagonista batek. Baiki, “1969ko udan, denok geunden maitemindurik”. Bai, 1960ko hamarraldiko urte haietan zoriontsu

izan ginen; baita marxisten artean ere, elkarrekin eztabaida amaigabeetan murgildurik, iraultza irudizko bateko kapituluak zirriborratuz, nahiz eta errealitateari bizkarra emanda jarduten genuen. Eta hauteskundeetako emaitzek agerian utzi zuten zenbat ziren iraultzaren aldeko indarrak; eta garbi erakutsi zuten, halaber, puztutako egoera irreal batean bizi izan zirela ezker muturreko ideologia iraultzaileak, eta kaleko jende arrunta –ez intelektuala, ez ideologikoki markatua– haien jarreretatik urrun bizi zela. “Hainbeste odol, borroka eta neke, orain auskalo non zeuden batzuk azal daitezen”, nobelako Aneren gogoeta eten zuen Ionek, esanez “Herriak nahi duena etor dadin”. 1980tik aurrera sortutako deslilura zen.

Aitaren espektroa

Hamaika pauso nobelako lehen esaldian Iñaki Abaituak bere heriotzaren aurreikuspena eskaintzen digu, memento mugarri horretarako geratzen zaizkion tarte eta koordenatu geografikoak marraztuz. Azken mementoko begiradaren euskarri gisa aukeratutako magnoliaren adarrari begira deskribatzen zaigu Daniel Zabalegi, fusilamendu pelotoiaren aurrean; Abaituak berak bere heriotzako orduan errepikatuko duen keinua izango da. Juliaren etxearen alboko magnolia utzi eta, handik ez luzera, Juliaren leihoa aukeratuko du azken begiradaren euskarri gisa. Bi-biak ere dotore, ezkontza

batera balihoaz bezala. “Egin aurretik, mugimendu oro entseiatzen duk buruan”, idatziko zuen, “egiteko gauza izango haizela segurtatzearren”.

Miresgarria da bi protagonista nagusien (I. Abaitua, D. Zabalegi) arteko lotura zimendatzeko orduan zeinen ondo asmatzen duen egileak amaren rolaekin. Aurrenekoari ametsetan gertatzen zaiona gertatuko zaio Daniel Zabalegiri eleberrian, eta bien patuak lotuta geratzen dira betiko. Honela dio I. Abaituak behin eta berriz ametsetan agertutako eszenari buruz:

“–Ohean nengoen –esan zuen–. Amak hil nendila eskatzen zidan, dena prest zegoela eta mugitzeko mesedez. (...)”

“Dena prest dago” esaten zion, “zerraldoa eresia, apaiza deitua, eskela jarria, eta orain hil egin behar duzu derrigorrez” (...) Azkenean etsi egin behar izan zuen, dena prest baitzegoen, zerraldo aberatsa ere bai (...), eta eskela, loreak eta hilobia –marmolezkoa, amak esaten zuenez–, eta eskatu zion oinetako beltz mutur luzeak jantzen uzteko behintzat, eta jantzi ondoren, narda ikaragarria gaindituz, zerraldoan sartu zen. (...) Iñaki Abaituak begiak jaitsi zituen, oinetakoen muturren bila”.

Daniel Zabalegiren amak ere “dendan zeuden hoberenak” eramane zizkion kartzelara. Eta berak “erabili ahal izango ditudanarengatik” erantzun. Baina: “...eta azkenean, zutoinera lotuta dagoelarik, makurtu egin nahi luke oinetako baten punta zikintzen duen lokatz zipriztina garbitzeko”.

Idazle bat handi egiteko moduko pasarteak aurkituko dira Daniel Zabalegiren heriotzaren atarian. Hunkigarriro barrentzen da kontalaria heriotzaren gainean duen kontzientzia bakarti horrengan, eta haren pentsamendu gordeenak irakurtzen utziko dizkigu. Eta klizez gainezkako hileta-oratoria epikoa alde batera utzirik, zalantzaren aurpegi azalduko zaigu, ideologiaren mozorro hutsalak desegin ondoren agertzen den aurpegi humanoa (humanoegia), egiazkoena.

Ama (Ama-aberria, bere seme kuttunen odoletik elikatzen dena), erlijioa, bizitza eta heriotza, sakrifizioa. Daniel Zabalegiren ama atsekabetuta sartu zen kartzelara semea fusilatu aurreko azken bisita egitera; baina eraldatuta irten zen, semea herriarengatik hiltzen zen gudaria zela sinetsita. Beste maila batean, ez da gutxiago poztu Iñaki Abaituaren ama ere, semeak, Antiguako Guardia Zibilaren kuartelillotik aske utzi ondoren, amari deitu eta ama pozik jartzen denean, ez zuelako seme koldar bat, gainera bere aita ere kartzelan egona zela eta harro egongo zela semeaz. Aitak falta ziren.

68ko maiatzeko ikasleak era guztietako autoritateen aurka matxinatu ziren: Estatuaren eta Unibertsitatearen aurka, alderdi politiko klasikoen eta irakasleen aurka, familia tradizionalaren eta gurasoen kontra. Nanterreko unibertsitateko irakasle-gelako graffiti batek honela zioen: “Zuen

santutegian egin dugu maitasuna”. “Debekatuta (zegoen) debekatzea”. Alemaniako gazteek nazismoarekin konpontxo egin izana aurpegiratuko diete gurasoei; Alderdi komunista zaharrari (PCI) iraultza egiteko adorerik ez izana Italiako gazte erradikalizatuek. Frantziakoek hasiera-hasieratik erretiratu zioten Alderdi komunistari (PCF) konfiantza. Ez batzuek ez besteek izan zuten adorerik *statu quo*-aren “burdinazko kaiola” hautsi eta askapen bidean harago joateko. Ez zuen EAJko nazionalismo historiko kristauak beste erantzunik jaso 1960ko belaunaldi gaztearen aldetik, haiek ere, balio moralengatik edo gerra ondorengo agonia luzearengatik, ez baitzuten adorerik erakutsi frankismo zapaltzaileari aurre egiteko. Ez ziren gai izan etsaiari tiro egiteko. Belaunaldi gaztearen nazionalismo erradikalizatuaren barruan, berri, gero eta indartsuagoa zen heriotzaren marra gainditzeko tentazioa, gerta zitekeenaren zehazgabetasunaren liluramenak hartara bultzaturik. Esperientzia katartikoa hasiera batean, odolarekin sinatutako ituna gero (Pardines-Txabi Etxebarrieta-Manzanas) eta “akzio-errepresio-akzioaren” gurpila abiaraziz, Franco hil zen arte. Gero gero-koak. Baina, behin abiada hartuta, ez zen jada film amerikarretan ikustera ohituta zeuden “The end” haien modukorik azalduko pantailan, “Amaitu da eta orain denok etxera” moduko mezurik. Ez zaio azken orduko zalduneria salbatzailerik iritsiko *Hamaika pauso* nobelan, zutoinari lotuta, noiz fusilatuko duten zain dagoen Daniel Zabalegiri.

Zaila baita imajinatzen fusilamendu bat, fikzioari laguntzarik eskatu gabe.

Diktadura frankistak ez zuen, ez, galdu gero-
ra ere Gerra Zibilaren urteetatik erakutsi zuen
hilketarako senik faxistena, hilketa sendagai eragin-
korrena bihurtzeraino: Julián Grimau (1963), En-
rique Ruano ikaslea (1969), Puig Antich anarkista
(1974) eta diktadorearen agonia-egunetan beretan
Anjel Otaegi, Juan Paredes Manot, *Txiki*, José
Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta
Ramón García Sanz; ETAkoak lehenengo biak,
FRAPekoak beste hirurak.

68ko maiatzeko belaunaldiaren kasuan, kri-
si edipikoaz ere hitz egin izan da, gurasoen aurka
egin zutela, oro har, baina aita sinbolizatuko lukeen
autoritatearen kontra zehatzago. Iragana aldatu be-
har zen, eta horretarako aita edipikoa hil beharra ze-
goen. Iragana beti etortzen da bueltan, ordea, bere
ordaina kobratzera. Iragana Marxentzat gerorako
igarobidea baino ez zen, zeinak etorkizunez betea
zetorren proletarioa aldean zeraman, historiaren
emagin. Freudentzat, berriz, etorkizuna dago ira-
ganez beterik, eta soilik analistak edo suerte onak
libra gaitzake haren atzaparretatik. Iraultza Freu-
dentzat aitaren aurkako matxinada baino ezin zen
izan, eta, beraz, beti dago porrotera kondenatuta.
Gizakiari buruz oro har, eta haren mundualdiari
buruz, pesimista zen inondik ere Freud. “Kreazioa-
ren kontakizunean ez da gizakiaren zorientasunik
kontenplätzen”, utzi zuen idatzita. Ez zuen besterik
esan Lacanek, aitaren eredia aldarrikatu zuenean

68ko ikasleen aurrean: “Zuek bilatzen duzuen aita bat da”. Zer da “galtzada-harrien azpian hondartza dago” delako hori (“*Sous les pavés, la plage!*)? Zer dira debekurik gabeko desioak? Halakorik! Lacan ere pesimista genuen. Harentzat eta maisu zuen Freudentzat Marcuseren *Eros and Civilization* liburuko maitasun burgesaren kontrako kritikak, erantzukizunaren eta fideltasunaren gainetik plazera aldarrikatuz, soflamak besterik ez ziren.

Bada *Hamaika pauson* karga afektibo izugarria duen objektua, Iñaki Abaituaren aita zenaren urrezko Omega zaharra, esku batetik bestera ibili zen ordularia. Erloju horren ibilera idazlearen lehenengo nobeletaraino doa –*Ehun metro* eta *Ene Jesus*–, pertsonaia nagusiarekin batera ikusten ari baikara gu hiltzorian dagoen aitaren eskuetatik berak objektu preziatua jasotzen duen unea: “Aitaren eskuak berea estutu zuenean, adibidez, gero objektu hotz eta astun bat bezala izara gainera erortzeko”. *Hamaika pauson*, beste eskualdatze batean murgilduta gaude, honako hau zorigaiztokoa: Iñaki Abaituak ETako militante bati ematen dio berak aitarendik jasotako erlojua. Une hartan “objektu hutsa baino gehiago zen zerbait betiko galtzen zuela iruditu zitzaion”, eta, aldi berean, “susmoa izan nuen memento hartan abentura triste baten hasiera bizi zuela”. Izan ere, erlojua militanteari eskualdatuz, protagonistak sinbolikoki ETari eman zion aita abertzalearendik berak heredatutako kapital etiko eta moral guztia, eta, horrez gainera, aita-autoritate berri bat ezartzen du, Ortiz de Za-

rate ETako militantearengan gorpuztua betiere (hura baita erlojuaren hartzailea), eta, azkeneko, hark protagonistarengan izango duen eragina zeharo irenslea izango da: erlojuarekin hasiko da; geroago, protagonistaren etxera joango da bizitzera Ortiz de Zarate; etxe barruan, Ortiz de Zaratek gelatik egongelara bidaliko du protagonista, eta ume bat bezala tratatuz umiliatuko du; eta, jakina, hark gustuko dituen emakumeak bereganatuko ditu. Aitarengandik jaso zuen *Omega* zaharrak, *Hamaika pausoko* protagonista nagusien artean eskuz esku ibili ondoren, Juliaren eskuetan amaituko du. Aitarengandik Abaituarengana, honengandik Ortiz de Zaraterengana, azkenean Juliarenean ostatu hartzeko. Hantxe hartu zuen azken aldiz Abaituak eskuetan “eta hatz batez ferekatu zuen..., eta gero kuerda eman zion, aitarengandik ikasia zuen bezala, koroa atzera eta aurrera mugituz”.

Erritual horrexekin utzi zuen atzean mundu oso bat betiko. Eta, beharbada, atzera eta aurrera, itzuli erdika erlojuari kuerda emate hori erritual xalo bat baino zerbait funtsezkoagoa zen, beraren eta munduaren norabidearen artean leize gaindiezin bat zabaltzen zuena. Atzean utzitakoa ahaztuz, aurrera egitea beste inpultsorik ez zuen munduarekiko desadostasuna. Ortiz de Zaratek “zakarki ematen ziola egiaztatu zuen, koroari bueltak beti alde batera emanez alegia, eta ez leunki, atzera eta aurrera, itzuli erdika”. Erlojuari ematen zion tratatu zakar hori munduari egindako bortxaren irudi paregabea zen.

Baiki, Ortiz de Zarateren eraginez, Iñaki Abaitua Susanarekin maitale eta Juliarekin bikote izatetik emakumerik gabe geratzera pasatuko da. Ortiz de Zarate (ETA) dena beretzat hartu duen “gainegitura” inbaditzaile bihurtuko da, Freud-en hordako “aita” krudela, Iñaki Abaitua Juliaren ondotik botako duena (“azken aldiz deitzen duela, babo alena”). Julia lapurtzeaz harago, Iñaki Abaituak sufritzen duen degradazio maila dago, bikotekide izatetik traban dagoen ume mokoaren mailara jaistera. Izan ere, helduen logela barruko gertaera eta maite-jolasei buruz ez dute umeek jakin behar, eta are gutxiago gurasoen intimitatean zelatan ibili. Garbi adierazi dio Ortiz de Zaratek zein den bere lekua Abaituari gizarte edo “familia” barruko harreman berrietan, zein den, azken batean, bakoitzaren rola “*roman* familiarrean”. Ez zuen beste rolik jokatzen Abaituak Susanaren eta Diego Suñer bere senarraren arteko familia-harremanean. Maitasun kontuetan senarrak berak ere onartzen zuen Abaituak Susanaren apetak bete zitzaizkion, hura entretenitu zezan, baina garbi zegoen zein zen bakoitzaren rola familia barruko harremanetan. Senarrak emaztearen apetak betetzeko *gigolotzat* zeukan Abaitua, ezen bere emaztearekin zituen maitasun-jolasetan ez zuen inongo pudorerik, Abaituak entzun ala ez, jolasen partaide pasibo izan ala ez. Egiatzko ordua iristen zenean, ikusezina zen harentzat Abaitua.

Erantzun gisa inhibizioa baino ez duten usurpazio-gertaeren segida bat ere bada *Hamaika pau-*

so. Horrela bihurtu zen ETA 68ko belaunaldiaren energia sexual eta afektiboen katalizatzaile, eta belaunaldi horren adostasun moralarekin iritsi zuen ETAk aginpide edipiko bat, Iñaki Abaitua (68ko belaunaldia) protagonistarentzat esperientzia garrantz eta irenslea suertatu zena.

Honela mintzatu zen Saizarbitoria hari buruz:

“ETAko militante batek bizitza hondatu diola sentitu eta hartaz libratzeko modu bakarra hura hiltzea dela ondoriotzat ateratzen duen norbaiten historia ere bada. Baina, azken batean, ezin utzi dionez hura bere kideztat hartzeari, eta, beraz, haren heriotza ordaintzera behartuta dagoenez, berarekin batera immolatu beharko du nahitaez”

Suizidio malenkoniatsu hori da protagonistak burutzen duen “ekintza” bakarra: “Oinak lehorrean finkatu zituenean eskuineko eskua jakaren barneko patrikan sartu zuen Mont Blanc beltz urrez apaindua ateratzeko, eta besoa luzatuz arma bat bailitzan aurreratu zuen argia zetorkion aldera”.

Bi arrazoirengatik ezin du Iñaki Abaituak Ortiz de Zarate hil. Batetik, maila nagian izanik ere, kide sentitzen duelako, hau da, egunen batean berak ere onartu eta txalotu dituen ekintzen egile izan delako Ortiz de Zarate. Neurri batean bera ere konplize sentitzen delako tragediaren zeremonian. Bestetik, arian-arian belaunaldi oso baten “aita simbolikoaren” lekua hartu duelako Ortiz de Zaratek ETAREN izenean. Ezin du haren aurka zuzenean

oldartu eta hil, inhibitu egingo da, Shakespeare-ren Hamlet antzerkiko Klaudio usurpatzaile baina aldi berean aita ordekoaren aurrean protagonista inhibitu zen modu berean. Izan ere, Julia amatiarren unibertsoetik kanpora egotzia izan da Abaitua, eta Ortiz de Zaratek hartuko du haren lekua. Freudek zioen inoiz ez gaudela bihozminetik babesgabeago maitatzen dugunean baino, inoiz ez garela hain errukarri dohakabe maitasun objektua edo haren maitasuna galdu dugunean baino. Juliarren alaba bezala, “bera ere iluntasunean bakarrik utzitako haur”. Eragozpen handiak dira aipatutako arrazoiak, eta horregatik hartuko du immolatzeko erabakia Abaituak. Baina suizidioaren psikologiak argitu ohi duen moduan, maiz suizida ez da norbere buruaren hiltzaile, beste batena baizik. Ez da besterik gertatuko Iñaki Abaitua suizidaren eta Ortiz de Zarateren arteko amaieran.

Asaba zaharren baratza

1960ko belaunaldi gaztearen krisi edipikoaren ondoren, ikusi da *Hamaika pausoko* protagonista nagusiak, Iñaki Abaituak, ezin duela aurrera egin “aitarekin” kontuak garbitu gabe. Berak ezin dio, bere belaunaldiak egin duen bezala, erlojuari modu zakarrean kuerda eman, aurreraka beti, aurreraka bakarrik. Berak, aitarengandik ikasia zuen bezala, “koroa atzera eta aurrera mugituz” emango zion kuerda erlojuari. Eta iraganari bizkarra emanaz

hazitako belaunaldiak ez bezala, atzera begiratuko du, iraganera, gurasoen mundura, eta han Gerra Zibila aurkituko du, eta harekin batera bere aitaren mundua, eta mundu hura ulertzen saiatuko da, gurasoen mundua bere eginez gainditzeko. *Gorde nazazu lurpean* (2000) liburuko lehen narrazioak “Gudari zaharraren gerra galdua” kontatzen digu, eta “Asaba zaharren baratza” deituan, aitaren mundu nazionalista eta kristaua. Nola baloratu du egileak gurasoen nazionalismoaren ondarea?

Bai “Gudari zaharraren gerra galduan”, bai “Asaba zaharren baratza”, bietan gogoratzen zaigu EAJ hark ondorengoei utzitako kapital moral bikainena egon behar zuten lerroan egon eta defenditu behar zuten kausaren alde egin izana izan zela. Halaxe dio “Asaba zaharren baratza”:

“Askotan aipatzen zuen gerra duintasunez galdu izateagatiko harrotasuna, eta niri hasieran gustagarri iruditzen zitzaidan, komikietan nahi izaten baitziren irabazten zutenak; baina laster ikasiko nuen bihotza galtzaileen taldera lerratzen. Galtzaile duinen taldera, noski; ez, irabaztea helburu, lortu ezinean galtzen dutenekin, baizik eta galtzaile izatea berez dagokienez, duin izateko galtzea beste erremediorik ez dutenekin”.

Baina segituan hartuko du hitza beste ahots zalantzatiago batek, esateko: “Kontua da merezi ote duen gerra galtzeko egitea”. Gauza bera “Gudari zaharraren...” narrazioan; galtzaileen arteko sola-

sean ari direnean onartuko dute, bai, nola ez, gerra galdu izana: "...baina duintasuna ez genuen galdu". Eta horren ondoan, gure gudari zaharrari behin eta berriz burura etortzen zaion leloa hauxe da: "Sartu ez bagina, hobe".

Eta, jakina, garai hartako hainbat buruki-deren jarrera duinaren lekukotasuna aipatuko da behin eta berriz bi narrazioetan:

"Galtzailea ez da nahitaez koldarra; alderantziz, adoretsua izan daiteke oso, eta, berez, askotan hitz egiten zuen kuraia handia erakutsi zuten abertzaleez. Ajuriagerraz batez ere, zeinaren txofer izateko suertea izan zuen Bilbo erortzear zegoela".

Juan Ajuriagerra, Jose Antonio Agirre edo Manuel Irujorengandik jasotako kapital morala da apenas zikindu gabe egin zela gerra. Bai gerra garaian, bai gerora ere, zenbat aldiz ez ote den aipatu gure gudariak arduratsuago agertzen zirela mojak eta apaizak babesten, faxistak hiltzen baino. "Abertzaleek ez zutela hiltzen; alderantziz, bizitza asko salbatutakoak zirela, batez ere gorriek garbitu nahi zituzten apaiz eta erlijiosoenak". Edo "Gudari zaharra..."ren kasuan bezala, CNTkoei pistolaz aurre egiten, Eibarko fabrikak erre ez zituzten, faxisten esku geratuko baziren ere. Gauza bera Bilboko lantegi eta zubiekin; izan ere, hori egin zutenak bertakoak ziren, eta bazekiten gerra amaitutakoan bertan bizi beharko zutela eta orduan fabrikak eta zubiak beharrezkoak izango zituztela.

Alde horretatik, EAJko burukide haien giza balioen artean halako pragmatismo sendo bat zegoen, eta kristau-demokrazia haren baitan ez zen falta izan diziplinarik, zeren, beldurra hezurretaraino sarturik ere, ez baitziren gudariak beste batzuk baino koldarrago ibili frontean, eta nekez gertatuko zen haien artean gorago “Gudari zaharra...”ko CNTko miliziano haien desertzioak bezalakorik. Zeren eta, hau ere esan beharra dago, gerra hartan ez zen dena antolamendu eta diziplina eredugarria izan. Baina hori beste kontakizun bat da.

Bi narrazioetan nabarmen agertzen den beste giza balio nagusi bat, EAJ historikoak oso bere izan duena, demokrazia-kristauaren klaseartekotasuna da, hau da, aberatsago edo pobregago izan, graduazioan gorago edo beherago egon, euskaldun gisa denok garela berdinak:

“Ume nintzenetik entzun izan nion euskaldunok, pobreak nahiz aberatsak, denok berdinak garela, eta uste horretakoa naiz neu ere: denok dugula, euskaldun garen aldetik, duintasun bera izateko kontzientzia, eta horri esker gurean ez direla ohikoak hor zehar klase desberdineko pertsonen artean izan ohi diren aldeak. Horregatik, amorrua eman zidan, eta nazka ere bai, historiaren orrietatik bere izena ezabatu zutela justifikatzeko, gizajoari azken finean bera txoferra baino ez zela aditu beharrak”.

Ez dio bestelako ikuspegi demokratikoari erantzuten Intxortako lubakien ardura izan zuen Beldarrain kapitainaren portaerak, gudari gaur zahar orduan hemeretzi urteko gazte zauritu berri haren aurpegian ikusi zuen oinazearen aurrean:

“Aginte postura heldu zirenean ez zegoen anbulantziarik, eta lurrean utzi zuten berriro. Beraz, lurretik ikusi zuen Beldarrain, txapel higatua buruan, panazko jaka urdin eta bonbatxo ohikoez jantzita, bere inguruan jendea beste ofizial batzuekin hizketan.

Haiek osatzen zuten biribiletik atera, eta une labur batez begiratu besterik ez omen zion egin. Oso ondo oroitzen zen horretaz, une hartan, haren begi tristeak begirada sakonarekin topo egin zuenean, hasi zitzaiolako –burdin goriaz errea bezala sentitzen zuen falta zuen berna– benetako oinazea. Beldarrainek aurpegian irakurri bide zion oinaze ikaragarri hura. Deus esan gabe, besoa altxatu UPHkoen lotura auto bat gelditu, bertan zihoan ofiziala jaitsiarazi eta, ondoren, zauritua Bilbora eramateko agindua eman zion txoferrari”.

“Asaba zaharren baratza” narrazioko protagonista nagusia bere aitarekin hizketan ageri da. Harengandik jaso zuen giza baliorik esentzialena bizitzari zor zaion errespetua izan zen. “Asaba zaharren” mundua behin betiko itxi baino lehen, haren irudia bizi eta maitekiro berreskuratu beharra zuen, hari azken agurra emateko eta hark erlijioarekin eta nazionalismoarekin izan zuen zorra betiko

kitatzeko. Orduan bakarrik izango da gauza inoiz idatzi duen esaldirik atsegingarriena idazteko: “zu zara nire aberria”. Iraganarekin kontuak garbitu ondoren, benetako pertsonen bizitzan, haien errealitatean sartzen utziko ligukeen atea zeharkatu zuen narratzaileak.

III

MODERNITATEA ETA POSTMODERNITATEA

Jean-François Lyotard-en *La condition post-moderne* (1979) liburuaren argitalpenarekin batera, 1980ko hamarkadaren erdi aldera egin zuen aurrera postmodernitatearen kontzeptuak eztaba-ida filosofiko, intelektual eta artistikoetan. Fredric Jamesonek *Postmodernism, or the Cultural Logic of Late Capitalisme* (1984) liburuan 70eko hamarraldiaren hasieran kokatzen zuen postmodernitatearen sorrera.

Perry Andersonnek *The Origins of Postmodernity* (1998) liburuan dioen bezala, ordura arte ezagutzen ez zen moduko aberastasuna eta batez besteko kontsumo-maila izugarria zuen gizarte kapitalistaren ikur kultural gisa sortu zen postmodernitatea. Ez zuen alferrik identifikatzen Jamesonek postmodernitatea kapitalismo berantiarraren sasoiarekin, hau da, kapital multinazionalaren fasearekin, non kultura eta ekonomia hertsiki lotuta agertzen

baitira. Gurean ez zen testuinguru ekonomiko eta kultural hori nagusi –ezta gutxiagorik ere–, ez trantsizioko urteetan, ez laurogeiko hamarkada osoan. Ez gurean, ez Espainian. Artean Espainiak urruti zuen gizarte postindustrialaren agertokia; 80ko hamarkadaren bigarren zatia baino lehen ez zuen hura atzemango. Euskal Herriaren kasuan, ez dezagun ahaztu 80ko hamarkadan gure industria zaharrak (siderurgiak batez ere) jasan behar izan zuen birmoldatze-prozesu latza. Ordukoak dira, halaber, birmoldaketak eragin zituen gatazka soziala, grebak eta langabezia larria.

Beraz, orduantxe jarri ziren abian, ekonomia-
ren desarautzean, geureganaino iritsi zen gizarte
postindustrialaren oinarriak, Europako integra-
zioan eta enpresa txiki eta ertainetan bermatuta.
Ekonomia globalizatuaren garaiaz hitz egiteko,
berriz, 90eko hamarraldira arte itxaron behar da.

Modernitatearen paradigmaten aurrean, post-
modernitateak utopiaren eta historiaren –kontzep-
tu filosofiko gisa hartuta– ahultze bat dakar. Histo-
riaren eta iraultzaren klausuratzea da, filosofiaren,
historiaren eta artearen sekularizatze bat. Historia-
tik eta iraultzatik desertatu dela esango da, eta aldi
postmetafisiko berri bat ireki dela. Urteen joanean,
“post” moda inposatu da eta esan liteke ez dagoela
ezer “à la page” aurrizki identitario hori gabe (post-
metafisika, post-historia, postnazional...). Gauzak
horrela direla, arrazoimenaren eta aldarrikapen

historiko tradizionalen alboan, ordura arte ikusezinak ziren errealitate berriak plazaratuz joango dira: gutxiengo etnikoak, gutxiengo sexualak, ekologia, emakumeen mundua, eta beste.

Ez dirudi 80ko hamarkadan balio horiek (utopia, iraultza) erabateko krisian sartu zirenik gurean. ETAk katalizatzen zituen balio horiek Euskal Herrian, eta tinko eusten zien beroriei ezkerreko diskurtso kultural hegemonikoak. Urteek aurrera egin ahala, diskurtso hori indarra galduz joango da, eta erabat indargabetuko da XXI. mendearekin batera.

Baina gutxien espero zitekeen zirrikitu batetik, hara non hasten diren Euskal Herrira iristen ordura arteko modernitatea gaindi zezaketen nobedadeak. 1991n publiko egiten da Guggenheim Fundazioak, artearen eta ekonomiaren binomioa aro multinazionalean inork baino hobeto irudikatzen duen ikurrak, Bilbon irekiko duela museo berri bat, Frank Gerhyk diseinatutako eraikin batean. “Sabin Etxean” eta Xabier Arzallusen oniritziarekin hartutako erabakiak haren aurka jarri zuen kulturako jendea. “Kultur kezka” erakundea sortu zen museoa Bilbon eraikitzeak berekin zekartzan ondorioei aurre egiteko. Azkenean, erraldoi amerikarrak, auzo globalaren izenean, hemengo artisten eta kultur eragile autoktonoen (ez bakarrik kulturako jendearen) sosak eramango zituen. Horiek ziren 90eko hasierako errezeloak eta kezkek. 1997an inauguratu zen Guggenheim

museoa (1999an, berriz, Rafael Moneoren Kur-saaleko “Kubo” famatuak) eta arras bestelakoa izan da haren efektua, Bilboren susperraldi urbanistiko eta sozio-ekonomikoaren eragile nagusitzat jotzen baitute.

Arkitekturaren esparruan sortu ondoren, garai historiko bat definitu zuen eredu kultural bat izatera pasatu zen postmodernitatea. Kapitalismoarekin, eta komunikabideen laguntza ezinbestekoarekin, merkatua eta kontsumoa *mass medien* jainko berri bilakatuko dira. Ez da erraza, nolana ere, postmodernitatearen zigilua identifikatzea artelan zehatzetan, haien begiespen, pertzepzio edo irakurketan. Zeren, ez al da egia postmodernitate estetiko ez dela –erradikalagoa, nahi bada– modernitate artistikoaren prezeptu eta aspirazioen luzapena baizik? Horregatik hitz egiten da gehiago eredu edo pauta kulturez arte estilo jakin eta zehatz batez baino. Idazlea ere, ordea, bere denboraren semea edo alaba da eta inor ez da bizi, ermitau egitea erabaki ez badu behintzat, bere garaiko erronka intelektual eta artistikoei bizkarra emanda. Bistan dago artista murgilduta bizi den mundu errealak eta irudimenezkoak haren sormen artistiko guztia iragazten duela azkenerako.

Gauza bat da bizitzeko eta kontsumitzeko ohitura berriek zenbaterainoko barneratze-maila duten errealitatean, eta beste bat, oso bestelakoa, gizartearen jokabide-aldaketa horiek guztiek zer-nolako eragina duten artelanetan, sentsibiltate

postmodernoareen hartzaile diren neurrian. Ildo horri jarraiki, komeni da arreta jartzea jada ukaezina den egitate bati, alegia, azken hamarraldiotan dimentsio publikoak eta sozialak hartu duen nagusitasunari intimitate pertsonalaren eta pribatuaren kaltetan. Paralelismo bat egiten badugu literaturaren alorrean, argigarria da poesiaren kasua, hain zuzen ere, olerki errezitaldi publikoetara biltzen diren ikus-entzuleen kopuruak ez baitatoz bat, inondik ere, literaturaren genero horrek di-tuen irakurle-kantitatearekin.

Postmodernitatearen eragina are handiagoa da zenbat eta hurbilago egon sorkuntza dimentsio publikotik. Poesiaren harreran, esate baterako, irakurketa isilari errezitaldietako ikuskari publikoa gailenduko zaio. Postmodernitateak ez du interesik “ni”aren barnetasun intimoetan; haren proiektzio publikoak, ikusgarritasunak, bereganatzen du interes hori. Barneko “ni” intimo horren bizitokia, arte modernoaren muina izan zena, modernitatearen beraren “konstrukto” gisa joko luke Foucaultek. “Ni” ahuldua, pitzatua, da postmodernitateak postulutzen duena, ikuskarira eta kontsumora errendi daitekeena. “Ni” kolonizatuaz hitz egin zuen Habermasek. Hau da, ustez esperientzia errealekin ari delakoan, errealitatearen simulakroaz ari den “ni” horretaz.

Paradoxikoki, postmodernitatearen auziaren inguruko eztabaidarik interesgarrienak modernitatearen eredu beretik sortu izan dira. Nozio berriak ezin du aurreko ereduak bere-berea zuen borroka

ideologikoa saihestu. Gauzak horrela, batzuentzat ideologikoki eskuinekoa eta erreakzionarioa da postmodernitatearekin adierazi nahi den ikuspedia eta praktika soziala; besteentzat, aldiz, halako planteamendu batek ez luke zentzurik, hau da, ezker/eskuin binomioa erabat kamutsa gertatuko litzateke eztabaida horretan. P. Andersonnek dioen moduan, ez dago hemen historikoa eta soziala ez den ezer; oro da politikoa, azken batean. Nahiz eta postmodernitatearen analisisian lubaki berean egon ez, egile gehienak bat etorriko lirateke (Jameson, Anderson, Terry Eagleton, Habermas) postmodernitatearen dimentsio politikoaren balorazioan.

Amaitzeko, esan dezagun ez zela erabatekoa izan postmodernitatearen nozioaren inguruko adostasuna ere: zenbait kultur ikertzaile ezkertiarrek (Jameson, Anderson) eta filosofo hermeneutak eta pragmatistak (Gianni Vattimo eta Richard Rorty) bere egingo zuten postmodernitate hitzaren potentzialtasuna. Jürgen Habermasentzat modernitateak osatu gabeko proiektua izaten jarraitzen zuen. Egungo soziologo ospetsuenek ere ez zuten hitza bere egin: Zygmunt Bauman-ek nahiago du “modernitate likidoaz” hitz egin, Anthony Giddens-ek “modernitate berantiarraz” eta Ulrich Beck-ek “bigarren modernitateaz”. Baina, modu batera edo bestera, guztiak datoz bat gizarte postindustrialak eragindako portaera eta ohitura kulturalak baloratzeko orduan.

Amerika boteretsuak bermatutako bilakaera horren erroak ahulak ziren artean 80ko hamarka-

dan gure artean. 90eko hamarkada arte ez zen bis-taratu ez giza portaeratan ez portaera kulturaletan postmodernitateaz hitz egiteko moduko bilakae-rarik. Baina, 90etik aurrera, aldatuz joan ziren gure batez besteko kontsumoa eta ohiturak, inguruko beste nazio aurreratuenekin gero eta homologatua-go agertzeraino. XXI. mendetik aurrera, erabatekoa izango da egoera ekonomiko berriak ahalbidetuko dituen askatasun-ohitura (eta kontsumo-ohitura) berrien arrakasta.

80ko hamarraldian, Adornoren “negatibo-tasun-kritikoak” bazuen artean bere zentzua, pro-positamen ahul, bigun, arin, erraz eta kontsumitze-koak zirenak baztertzeko orduan; hitz batean esan-da, merkatuaren sarera egokitze eroso eta salduari bizkarra emateko modua zen. Modernitateak eta abangoardiek merkatua zuten deabru eta, iragana eta oraina gaudituz, geroan zuten beren utopia.

Gerora, merkatua, kontsumoa, aisia, salmen-tak, irakurterraztasuna, *best seller*-aren kultura eta *mass-medien* balioak barreiatuz joan ziren gure artean, 90eko hamarraldiak aurrera egin ahala, eta XXI. mendearekin batera nagusi bihurtu zi-ren. 80ko hamarraldiko egoera politiko-ekono-miko-sozialak zail jartzen zuena, erraztu egin zuen mende berriak.

Eta kritikari dagokionez beste hainbeste. Ez da nahikoa izango modernitatearen ikuspegi kri-tiko eta estetikoaren konbentzioak errespetatuz jar-dutea. Ez da lanaren kalitate estetikoaren epaitzen, ez

da hori postmodernitateak ezarri duen desafioa, beste honako hau baizik: modernitatearen balio estetikoak (eta moralak) dira gizonezkoen (feministotik begiratuta) edo europar inperialista zurriaren (afro-amerikarren ikuspegitik begiratuta) botere-esparruari eusteko aitzakia (Foucaulten arabera), eta balio estetiko horiek mantentzeak ez gaitu bazterkeria sozio-kulturaletik salbatuko. Jakina, kalitate estetikoa bihurtzen denean literatura-
ren neurgailu, ezinbestean sortuko da banaketa: elitea (kultua) eta popularra (subkultura). Postmodernitateak banaketa hori gaintu egin du, eta bi muturren arteko bitartea leundu egin da. Ez du postmodernitateak objektibotasuna jainkotuko, baizik eta objektibotasuna bera kontsentsurako gai bihurtuko da. Objektibotasuna subjektibotasun boteretsu nagusitua da.

Beraz, estetikaz haratagoko balio eta interes-gune berriak sartu ziren jokoan. Balio horiek ez zetozen bat obra baten kalitatea –heldutasun formal edo artistikoa, etab.– aintzat hartzen zituzten irizpideekin, nahiz eta XXI. mendearen atarira arte balio horietan hezi eta zaildu behar zuen literatur kritikariak gustu fina eta hutsezina beretu nahi bazuen. Hori guztia pikutara joana zen jada.

Historiaren ikuspegi bertikalaren aldean, horizontaltasuna hobetsiko du postmodernitateak kultur hausnarketan. Eta kultura-aniztasuna izango da aurrerantzean ibilbide horren emaitza.

Bistakoa dirudi –gaur, atzo bezalaxe– egilea bizi den mundu aldakorrek iragazten duela sorkaria, azken batean. Postmodernitateak kolonizatzen ditu, lehentxeago edo geroxeago, bai subjektu sortzailea eta bai haren fantasiak. Zaila da, gaur egun, subjektu indartsu bat postulatu duen autobiografia bat imajinatzea. Guztiz kontrara, biografiaren globalizazioak esan nahi du, Ulrich Beck-ek adierazi zuen bezala, munduko kontrasteak eta kontraesanak ez direla hor kanpoan soilik gertatzen; aldiz, gure bizitzen erdigunean gertatzen dira, ezkontideen artean, kultura bat baino gehiagoko familietan, etab. Bizimodua zenbat eta aldakorrago –pertsonek arteko elkartzek eta bereizketak; laneko aldaketak, bizitzeko espazio nagusi gisa leku jakin bati lotutako bizimodu sedentarioaren amaiera–, orduan eta zailagoa da ezin erronka autobiografikoren koherentzia. Horren ordez, zatiketa eta deskonexioa nagusitzen dira, loturarik eza, alegia. Hona zer idatzi duen Jose Luis Pardok (*Estética de lo peor*, 2011) horren gainean: “agur esan zaio, kontakizun sendo eta oso baten barruan, ez dio axola zer esperientzia-zati zentzuz txertatzeko sentimendu amaigabe horri”.

Modernitatearen aroan orainaren behaketa zehatza zen xede, errealismo artatsu eta xehetasun zalea, irudi sinesgaitzenak obsesiboki aztarrikatzen zituen, handik abiatuta, memoriaren kontakizuna berreraikitzeke; postmodernitatean, ordea, kontalari bidaiaria (benetakoa eta irudizkoa) da

protagonista, batetik bestera dabilena, hegazkinez batik bat, biografia transnazonala bizi duena, non ordenagailu, *e-mail*, erantzungailu automatiko edota postontzi elektronikoek paper erabakigarria jokatuko duten trikimailu narratiboak ebazteko orduan. Errealitatea husten ari dela ikusten dugun bitartean, arintasuna eta fantasia iruzurtia puzten ari dira.

Modernitate postmodernoa: Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978)

Bernardo Atxagaren *Etiopiak* abangoardiaren espiritu mutiri eta subertsiboa ekarri zuen euskal poesiara. Izan ere, artean inork erakutsi ez zuen erabakitasun eta kemenez jarri zituen hankaz gora poesiaren eta bizitzaren arteko harreman konbentzionalak. Poesia ez zen ezer bizitza irauli ezean. Rimbaudek bizkarra eman zion literaturari; eta Etiopiako poeta ere ez dago hutsalkeria estetizistekin konformatzeko. Abentura berri bat zuen helburu, giza balioak oro hankaz gora jartzearen abentura, hots, botereari eta haren euskarri den ziutateko lengoaiari mingaina ateratzea.

Gizarte burgesaren muinean agintzen zuen arrazoimenari, logika administratiboari eta kalkulu instrumentalei, eta funtsean haren sostengu moralaren familiarren balioei egiten zaie eraso *Etiopia* honetan, eta umorea (ironia) eta disparteia izango

dira poetaren baliabideak zurruntasunaren hormak eraisteko orduan.

Ez zebilen oker Gottfried Benn poeta espressionista, esan zuenean “Errealitatea” kontzeptu kapitalista zela. Modernitatearen arrazoimen instrumentalari aurre eginez, bihotzaren arrazoiaren aldeko hautua egin zuen erromantizismoak: maitasuna, intimismoa, afektua. Eta lehen erromantiko haientzat bezala, surrealistentzat ere erlijio berri baten itxaropen bihurtu ziren balio horiek.

Hala ere, balio horiek itxuragabeki degradatuak zeuden hiri burges bihozgabeetan. Eta arrazoiaren logika murriztaile eta desitxuratzaillearen aurrean, abangoardiek umeen irudimenaren mundu askea, zibilizazioaren tenazetatik artean iragazi gabea, inbokatu zuten. Ez zuen besterik egin Atxagak “Ainhoa” poeman, inozentziaren erakarmen poetikoa hain xaloki iradoki zuenean. Familia barruko liskar bibliko batekin hasten da *Etiopia*, Abel anaia hiltzeagatik kondenatu zuen Jainkoak Kain. Boterearen krudeltasun apetatsuenaren lehen agerraldia da Kainena. Botere mendekatzailea. (Ez da faltako *Etiopian* (Estatu) botere apetatsu horren adibiderik: Caryl Chessman edo Sacco eta Vanzetti.)

Beraz, “hautsi da anphora”, ziurtasun dogmatikoak desegin dira betiko eta geratu dena haren ispilu deformatua da, mila zatitan apurtua. Aurreantzean, bakoitzak bildu beharko du, *The waste land*-eko poetak (T. S. Eliot) egin zuen bezala, norbere kontsumorako mitologia pertsonala, nor-

beraren kultura erreferentziak (erlijio, filosofia, poesia, zinea, musika, komikia...). *Etiopiako* poetaren mitologia pertsonala *Etiopiarako* bidaiari gauzatzen da, *Etiopia* inguratzen duten hareazko bederatzi zirkuluen inguruan egindako bidaiari. Ez dira faltako Bogarten ahotan entzundako zinemaren munduko topikoak, edo marketing modernoari, komikiaren munduari eta *pop* musikari buruzkoak. Umorea, ironia eta jolasa batera ari dira lanean, nahiz eta umore hori ezinegonaren adierazgarri larriena den maiz.

Hori guztia berria gertatu zen euskal olerkigintzan, Espainiako poesian *Novissimoen* eraginez gertatu zen modu berean. Batean zein bestean, atergabea da 60ko urteetatik aurrera Europa inbaditu zuen *mass-mediako* kultura amerikarraren eragina. Horregatik famatu ziren 60ko hamarkadan Pere Gimferrer-en *La muerte en Beverly Hills* (1967) edo *Canción para Billie Holiday* (1968). Baina Atxagaren poesiarako nahiago Leopoldo María Paneroren *Así se fundó Carnaby Street*-eko (1970) aukera poetikoa (Carnaby Street, garai batean Londresko *gay*-en topaleku ezaguna, geroago *gay* eta heterosexualen modako gune nagusi bihurtua). Kultur erreferentzia berriak ziren horiek guztiak. Frankismopeko mentalitate zahar, kontserbadore eta klaustrofobikoari mingaina atera eta aire freskoa biriketartzeko modu (eta moda) bat izan zen. Eta, orduan, geroago bezala, moda horrek Amerikako bizimoduaren eta kulturaren kolorea zuen. Modernitate berri bat zen. Moderno izateko

era berri bat. Eta zurrundutako kultura ilun, serio eta tristearen aurrean, arintasun eta askatasun dosi handi bat ekarri zuen.

XXI. mendearen talaiatik begiratuta, badakigu justu hamarkada horiexek (60-70eko hamarkadak) ezagutu zutela abangoardien erabateko garai-pen kulturala eta soziala. Baina laster asko sistematik –interes politiko eta ekonomikoak– bere egin zuen abangoardien ondarea eta erakundeetatik bertatik bultzatu zuen hura. Guy Debord situazionistak jada 60ko hamarraldia amaieran adierazi zuen bezala, ikuskizunaren gizartean bizi ginen. Gaur egunetik begiratuta, haren hitzek zentzu beteagoa hartzen dute. Fredric Jamesonek esan zuen bezala, orduantxe sartu ginen postmodernitatean; hau da, abangoardia eta probokazioa sistemak integratu zituen garaian bizi ginen.

70eko hamarraldian, artean ironiaren indarra zuena kontsumo-arauei barruan zegoen handik gutxira. Amaitu zen modernitatea, eta hango sentsibilitatearen lorpen transgresore eta eragingarrienak, utopikoenak, hitz batean esateko, adierazpen publizitario bateko apaingarri eta lurrin bilakatu dira. Esan dezakegu inoiz arteak ezagutu zuen arrakastarik distiratzailerik eta eragingarrienean hustu dela haren substantzia, aurrerantzean “prozedura”, “erabilera”, “muntaiak”, “*performance*”, “*ready-made*” eta piroteknia handiz egindako aktibismo efimero baina masiboetara errenditzeko. 1960ko hamarkadako *happening* deituak geroko “*performance*” ikuskizunaren aurrekariak izan ziren.

Bernardo Atxaga inor baino lehenago ohartu zen artearen eta kulturaren munduan gertatzen ari zen aldaketaz. Kale-kantoi bakoitzean, Rimbauden plantak eginez gizarteratzen zen poeta bat zegoela, alegia. Itxurakeria zen nagusi artearen esparruan.

Mamu bat dabil arte garaikidean barrena

Arthur Danto arte-kritikaria, Manhattango 74. kaleko Stable Galleryn, Andy Warholek inauguratu zuen bigarren erakusketa ikustera sartu zen, 1964an. Erakusketak “Brillo Boxes” zuen izenburua, eta bertan Ameriketako Estatu Batuetako edozein supermerkatutan aurki zitezkeen Brillo kaxen diseinu berberarekin egindako objektuak zeuden ikusgai. Galdera hauxe egin zion Dantok bere buruari: “Berdin-berdinak diren bi objekturen aurrean, nola liteke bata artelana izatea eta bestea, berriz, eguneroko objektu arrunta?”. Batean krispetak zakutxoak, bestean Brillo kaxak eta hurrengoan Coca-Cola botilak edo adreiluak aurki baditzakegu ikusgai galerietan, pentsatu beharko genuke edozer bihur daitekeela arte (“*anything goes*”). Inaugurazio-egun hartan erabaki zuen Dantok ordura arte Arteaz (letra larriaz) genuen diskurtsoak jada ez zuela balio erakusketaren berri emateko, eta, bere ondorengo artikulu eta liburu eragingarrietan, “arte hil ondorengo arteaz” mintzatu zen. Lan horietan azaltzen saiatzen da nola pasatu ginen “artearen

historiaz” hitz egitetik “artearen filosofiaz” hitz egi-tera. Objektu estetikoaren gainetik, hari buruzko diskurtsoa dago; are gehiago, azken hori gabe ez dago artelanik. Izan ere, objektua bera ez bezala, ezinbestekoa da diskurtsoa; diskurtsorik gabe ezin- go genuke inoiz ezer adierazi artelanari buruz.

Abangoardien agortzearekin batera iristen du arteak egoera hori, geureganaino datorren egoera, bestalde: bere formulaziorik larrienean esateko, modernitatearen utopia eta esperantzak agortu di- ren uneaz ari naiz. Modernitateak etorkizuna zuen helburu, baina ezertan sinesten ez dugun postmo- dernityte garaiotan, eklipsatu egin da etorkizun hori.

Marcel Duchamp XX. mendeko erreferentzia bazterrezina da artearen historian. Bera izan da arte modernoak inoiz izan duen eraberritzailerik erradikalena. Ez zuen artearen erlijioan elizakoan baino fede gehiago erakutsi. Erlijio erromantikoa- rekiko ateo izanik, inork ez bezala zabaldu zion leihoa 60ko hamarraldiko *pop culture* amerikarra- ri, aurrez sukaldean prestatutako materialak mu- seoetako erakusleho bihurtu ohi zituenari.

Ordura arteko arte abstraktua eguneroko- tasunaren aurkari amorratua zen, eta merkatua eta merkantilizazioa zituen etsai. Arrakasta bera susmopean zeukan. Ez horrela *pop* arteak, honek jende arrunt samaldaren eguneroko mundu-ikus- pegi, gustu, sentimendu eta aspirazioak hartzen baitzituen aintzat. *Pop* kulturarekin elite jantzia- ren eta herri xehe arruntaren irispideak berdindu

egin ziren, eta artearen eta bizitzaren arteko mugak malgotu. Aurrerantzean, artelanaren eta egunero-ko masa-kulturaren ikonoen artean ez da mugarik egongo.

Guy Debord situazionistak jada 60ko hamarraldian amaieran adierazi zuen bezala, “ikuskitunaren gizartean” bizi ginen. Ikuskizuna harentzat salerosgaiaren azkeneko estadioa da, desioa bera merkantilizatu den garaia. Guy Deborden iritzian hori “bizitzaren” ukazioa zen.

Arrazoi zuen Adornok, modernitate-garaiko artearen filosoforik behinenak: zinezko artelanak bere sustantziatik harago begiratu behar du, utopiaren edo transzendentziaren zelaietara. Karga moral handiko elitismoa zen ezkerreko intelektuallarena. Azken batean, gizabanako burujabe eta askea helburutzat zuen ilustrazio proiektuaren ispilu nahi zuen artea ere. Gauzak horrela, Frantziako Iraultzatik aurrera, artea ezingo da bizi transgresioaren eta hausturaren gurpilean baino. Horixe da bere garaiko arte modernoari Adornok eskatu zion zinezko konpromisoa (Mark Rothko, Jackson Pollock, Arnold Schönberg, Michelangelo Antonioni, Paul Celan edo Samuel Beckett). Ez zen hori berria erromantizismotik aurrera, artea krisian egon baita beti modernitatean. Beste modu batera esanda, krisi-egoera horixe izan zen modernitatearen muina, eta abangoardiak izan ziren krisi horren historian azkeneko kapitulua.

Burgesiaren aurka tematuz eta norbera sakrifikatuz (maitasuna eta plazera ere kontzeptu burge-

sak izaki) joan ziren eraikitzen negatibotasunaren panteoi modernoak. Arrazoimen instrumentalaren aurrean, Adornok erresistentzia morala defenditu zuen. Musikarako mututasuna aldarrikatu zuen, eta txukuntasunaren baitan, kaosa ereitea. Antonioniren *La notte* agertzen da. Artearen agortzea susmatuz –“desartizazioa” hitza asmatu zuen egoera hori adierazteko-, Becketten *L'innommable* eleberriaren azken hitzak hartu zituen bere mezua aditzera emateko: “*Il faut continuer*”, nahiz eta ahaleginean porrot egin. Adornok ez zuen, ordea, gauza berririk aldarrikatzen; azken batean, erromantizismoarekin batera sortutako mito modernoari jarraituz, porrotak berak egiten zuen handiago artistaren tamaina.

Adornok deseroso eta trakets erantzun zuen, Frankfurteko institutua okupatu eta bular biluziak aireratuz haren ohiko kontrol administratibo eta filosofikoa desafiatu zuten emakume unibertsitarioen aurrean. Poliziari deitu zion ikasle matxinatua ikasgelatik kanporatzeko. 1968ko maiatzeko protestak artean bizirik zirela, 1969ko gazte haien askatasun-aldarrikapenek filosofoaren defentsak errenditu zituzten. Urte berean hil zen.

Adornoren estetika negatiboak ezer gutxi luke esateko postmodernitateko arteari buruz, hau da, artearen mundua Artearen Industria bihurtu den kapitalismo berantiarraren sasoiari buruz, non kultura eta ekonomia hertsiki lotuta daude. Artea/dirua (kapital espekulatiboa) binomioak artearekiko harreman tradizionala aldatu zuen, 70ko hamar-

kadatik aurrera. Artea inbertsio-ondasun bilakatu zen. Robert Hughes (*Nothing If Not Critical*, 1990) arte-kritikariak adierazi zuen bezala, merkatuaren helburua honako hauxe zen: edozein objektu maisulan bihurtzea eragotziko luketen balio guztiak ezabatzea.

Arte demokratikoaren garaian bizi gara. 1950eko hamarkadan, Clement Greenberg arte-kritikariak Rothko eta Pollock artista espresionisten alde hitz egiten zuenean, artearen munduak men egiten zion. Igaro dira jada hamarkada batzuk norbanako baten botoak beste edozeinenak adina balio duenetik: “*Everyone is a critic*”. 70ko urteetatik aurrera, *mass-mediak* eta masa-kulturak hartuko dute aditu elitistaren lekukoa, eta arte-mundutxoaren (galerista, arte-merkatari, komisario, marketing...) laguntzarekin erabakiko da zer den artea. Aurreratu dezagun definizio bat: galerietan aurkezten zaiguna da artea. Edo beste hau: galerien (edo museoen) erakustokietan agertzen ez dena ez genuke jakingo zer den. Adibide pare bat: 2009an, New Yorkeko Madison Avenueko Gagosian galerian, Damien Hirst artistaren (12 miloi dolarreko marrazo disekatuaren egilea) erakusketa bat eskaini zen. “*End of an Era*” zuen izenburu eta, *Bull’s head* tituluarekin, zezen baten burua agertzen zen kristalezko kaxa baten barruan. Artelanak Gagosian, Sotheby’s edo Christie’s marken bermea badarama, balio erantsi bat du merkatuan. Gauza bera gertatuko da museoekin: MoMa, Guggenheim, Tate. Sonatua izan zen 2001ean egile berari Lon-

dresko Mayfair galerian gertatutakoa: garbitzaile batek, gela garbitzen ari zela, erdi hutsik zeuden kafe kikara multzoa, zigarrokinez betetako hautsontziak, garagardo-botila hutsak, erabilitako pintura paleta bat, pintzelak, goxoki paperak eta lurrean zabaldutako egunkari orriak pilatu eta zaka-rrontzira bota zituen. Bere ezjakintasunean garbitzaileak ezin zuen imajinatu hura guztia “Damian Hirst original bat” zela. Hura artea zela, alegia.

Aisialdiaren eta turismoaren industria dela-eta, garai batean *connaissanceur*-arenak edo bildumazalearenak ziren portaerak, masa-kulturalarenak izatera pasatu dira. Zentzu honetan, Guggenheimez ari zela, museoaren helburua zein zen garbi utzi zuen Xabier Arzallusek *Así fue* (2005) liburu autobiografikoan: “Nik ez dut arteaz hitz egiten, errentagarritasunaz baizik”

Katedralak bisitatzeko fedea ezinbesteko baldintza ez den modu berean bisitatzen dira artearen tenpluak gaur egun, eta kanpoko azalak bihurtu dira ikuskizun; erakusketak ez, baina. Diruaren harrabotsak aspaldi gainditu zuen objektu artistikoen komunikazio-gaitasuna. Masa-kultura edo turismo-kultura da gure garai demokratikoetako kultura nagusia.

Gizakion aurreikuspenen eta esperantzen aurka, Historiak ohituta gauzka inondik ere espero ez genituen ordezeko aukerak eskaintzen. Marxek esaten zuen bezala, Historiak guk baino irudimen handiagoa du. Horra Berlingo harresiarekin gertatu zena. Horra Marxek bere *Ideologia alemana* libu-

ruan gizarte sozialistarentzat iragartzen zuen etorkizuna: besteak beste, mundu guztia izango da artista eta kritikari (“Edonork ehizatuko du goizetan, arrantza egin arratsaldetan, ganadu-lanak iluntzean eta kritikari bihurtu afalostean.”) Baina etorkizun sozialistarako Marxek agindu zuen mandatu hura kapitalismo globalizatuak gauzatu du. Abangoardien agendan ere ez zen beste utopiarik. Lautreaumont-ek edo Joseph Beuys-ek ere gauza bera adierazi zuten: mundu guztiak izan behar zuela artista, lehenengoak; “*Everyone is an artist*”, bigarrenak.

XXI. mendetik begiratuta, badakigu 60-80ko hamarraldian gertatu zela abangoardien erabateko garaipen kulturala eta soziala. Formalistak, minimalistak, neo-dadaistak eta beste mugimendu batzuk merkatuaren etsai agertzeaz gainera, artelana objektu salgarritzat hartzearen aurka ere bazeuden. Eta, haiekin batera, kontzeptualak, land-art, body-art, video-art, minimalak eta batek daki zenbat eskola gehiago loratu ziren 60ko hamarralditik mende amaiera bitartean. Iraultzaren alde borrokatzen zuen abangoardiaren alboan, erakunde ekonomikoek diruz lagundutakoak izango dituzte lehenak.

“*Deep pluralism*” (pluralismo erradikala) da arte amaierako “arteen” (beste izenik ezean) panorama. Hipertrofia artistiko honetan, nola ez da ba zaila gertatuko pluralismo horren berri emango lukeen narratiba lineal bat eraikitzea?

Esan dugu gorago, inoiz arteak izan duen arrakastarik distiratzaille eta eragingarrienean hustu

zela arte modernoaren substantzia. Hainbestekoa izan da arrakasta, non, automobiletatik sukaldaritzaraino (menu, pintxo), geure bizitzetako arnasa bihurtu baita artea.

Pop artea izan da, seguruenik, artearen balio tradizionalen (abangoardiarenak ere kontuan hartuta) hustuketaren erantzule nabariena. Europan, ordea, Andy Warholen ekarpena amerikar kultura hegemoniko eta merkantilistarekin kritikoa zela uste izan zen. Artearen bazterrak politizatuagoak zeuden Europan. Totalitarismoek zokoratutako arte abstraktua balio aurrerakoien ikur zen bitartean, haiek hobetsitako arte figuratiboa (errealismo *kitsch*-a) atzerakoia zen, eta oraindik *pop* kulturaren ondorio larrienez ohartu gabe, zentzurik aurrerakoi eta askatzaileenean besarkatu zuten hura. Telebista, hozkailuak eta jogurtak egunero-kotasunaren erakusgarri ziren, baina ez derrigorrez estrategia kontsumitzailearen morroi. Onargariak, beraz, artearen ohiko ikuspegi modernotik begiratuta.

Ikus daitekeenez, *pop*-aren balorazio horretan gaizkiulertu xume baten gatibu izan zen kontinente zaharra (zer esanik ez frankismopeko Espainia). Warholek, ordea, egia zioen, esaten zuenean, mundu guztiak bezala, berak ere aberats eta ospetsu izan nahi zuela. Gauzak horrela, artearen maila etikoak ez zeukan zertan gainditu modaren industriarena.

Interregno batean bizi da arte garaikidea. Interregno horretan jarrera desberdinak agertu dira artearen aferaren aurrean, artearen akaberaren

aurrean halako ezkutuko satisfazio ospatzaile bat erakutsi dutenak, alde batetik, eta artearen ispiluan egungo gizarte postmodernoaren kondizioa ikusi nahi dutenak, bestetik. Bigarren joera lehenengoa baino eutsiagoa da. Batzuen eta besteen ahotan dabilena, ordea, ez dago hain urrun. Airean dagoen galdera, dena dela, beste hau da: ea artearen irudikapen gaitasunak ez hotz eta ez bero utzi(ko) gaituen; ezertxo ere esateko ez duen gauza ezdeusa ez ote den bihurtu(ko) artea.

Dantok zioenari eutsiz, “arte hil ondorengo arteaz” ari gara mintzatzen, arterik gabeko arteaz, edo esperantza berriari izenik jartzen asmatzen ez dugun garai bati buruz. Kultur erronkaren bidez gizartea eraberritzeko ahaleginak ehun urte iraun zuen. Baina dagoeneko iragan da artearen eta bizitzaren arteko harreman lehiatsua gainditzeko ahalegin hura. Modernitatearen ondareak jarraituko du oraindik eragiten postmodernitatean, baina orduko esperantzekiko gure harremanak ezin du gainetik nostalgiaren igurtzia kendu. Etorkizun izan nahi zuen berrikuntzaren tradizioa historiaren ondare bihurtu da.

IDEIAK

BILDUMA

1. Fito Rodriguez. *Jerusalem. Xalimen hiria*. 2008.
2. Eneko Bidegain: *Gerla Handia, muga sakona*. 2009.
3. Fito Rodriguez: *Buru ta zioak*. 2010.
4. Jokin Apalategi: *Euskal Herriaren emantzipazioaz*. 2013.
5. Fito Rodriguez: *Justizia Interditaren Poetika*. 2013.
6. Karmele Artetxe: *Einstein Euzkadin Gerraurreko zientzia eta goi mailako kultura euskaraz*. 2014.
7. Fito Rodriguez: *Gontz garaia (Ipuinak kontatu ezin dituztenei)*. 2014.
8. Fito Rodriguez: *Egunero egun ero*. 2015.
9. Iñaki Aldekoa: *68ko belaunaldia. Politika, kultura eta beste mamu batzuk*. 2015